GAZTERIAREN ARLOKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

GAZTERIAREN ARLOKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2026

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

Argitaraldia: 1.a, 2026ko ekaina

Ale-kopurua: 80 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Ongizatea,
Gazteria eta Erronka Demografikoaren saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Egileak:
Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Emantzipazio zuzendaritza

Inprimatzea:
Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

Itzulpena: Saretik Hizkuntza Zerbitzuak (https://www.saretik.eus/)

Diseinua eta maketazioa: Erreka Multimedia S.Coop

Lege-Gordailua: LG G 549-2026

Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported (http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu)

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA **05**

2. ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ESTRATEGIKOA **07**

3. ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ESTRATEGIKOA **11**

4. ESTRATEGIA EGITEKO PROZESUA **13**

5. GAZTEEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA **17**

5.1 Testuinguru demografikoa 19

5.2 Hezkuntza 20

5.3 Enplegua eta Gizarte Kohesioa 22

5.4 Emantzipazioa eta Etxebizitza 24

5.5 Osasun integrala eta Prebentzioa 26

5.6 Euskara 30

5.7 Aisialdia 31

5.8 Parte-hartzea 33

5.9 Berdintasuna Emakumeen eta Gizonen artean 35

5.10 Dibertsitatea eta Bizikidetza 36

5.11 Jasangarritasuna 37

5.12 Egungo egoeraren eta etorkizuneko aurreikuspenen balorazioa 39

6. ERRONKAK ETA DESAFIOAK **41**

7. PRINTZIPIOAK, IKUSPEGIAK ETA IRIZPIDEAK **45**

7.1 Printzipioak 46

7.2 Ikuspegiak 48

7.3 Irizpideak 49

8. GAZTERIAREN ARLOKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIAREN EGITURA 51

8.1 Emantzipazioa eta Autonomia 56

8.1.1 Hezkuntza eta Enplegurako Prestakuntza 56

8.1.2 Enplegua 62

8.1.3 Etxebizitza 65

8.2 Ongizatea eta Identitate Kulturala 70

8.2.1 Bizimoduak eta ingurune osasungarriak 70

8.2.2 Euskara 72

8.2.3 Kultura eta aisialdia 75

8.3 Parte-hartzea eta Konpromiso Soziala 78

8.3.1 Parte-hartzea 78

8.3.2 Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna 84

8.3.3 Dibertsitatea eta Bizikidetza 87

8.3.4 Ingurumeneko jasangarritasuna 91

9. GOBERNANTZA 95

9.1 Lidergoa, sustapena eta koordinazioa 95

9.2 Plangintza ekonomikoa 96

9.3 Jarraipena eta ebaluazioa 97

ERANSKINAK 101

A. Estrategian eragina duten legeen zerrenda 101

B. Erreferentziazko programa-dokumentuen zerrenda eta programa, zerbitzu eta jarduerarik nabarmenenak 106

C. Diagnostikoaren adierazleak 131

D. Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategia monitorizatuko duten adierazleak 134

1. AURKEZPENA

Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategia (aurrerantzean, `Estrategia´ edota 'Gazteriaren Estrategia') datozen urteetarako gazteriaren arloko politikak diseinatzeko eta planifikatzeko funtsezko tresna da. Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzak prestatu du —Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren mendekoa—, eta, baliabide propiorik ez duenez, kanpoko zerbitzu tekniko bat izan du hura diseinatzeko eta jarraipena egiteko, Administrazioaren giza baliabideen erabilera optimizatzeko.

Estrategia honek Euskadiko administrazio publikoei, zein gazteriaren arloan konpetentziak dituzten organismoei eragiten die, eta erakundeen eta sailen arteko koordinazio-esparrua ezartzea du xede nagusia. Esparru horrek gazteekin lotutako esku-hartzeen eraginkortasuna handitu nahi du, kudeaketa integrala eta jarduketa-ildo komunak sustatuz, gazteen arloko politika koherenteak finkatzeko Euskadin.

Zehazki, Estrategiak modu egituratuan antolatzen ditu administrazioen eta organismo publikoen jarduera bideratzeko helburuak, jarduketa-ildoak eta jarraibideak. Lehentasun argiak ezartzea eta gazteei zuzendutako zerbitzuetan, jardueretan eta ekipamenduetan prestazio homogeneoa bermatzea du xede. Horregatik, erakunde parte-hartzaile bakoitzaren[1] gazteriaren arloko planak, proiektuak eta ekimenak hartzen ditu barne Estrategiak eta egitura koherente batean bateratzen ditu, Euskadik kolektibo horrekin lotuta duen etorkizuneko ikuspegiarekin lerrokatuta.

Lotura estua du Gazteriari buruzko martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 19.1 artikuluarekin (aurrerantzean, Gazteriaren Legea[2]). Araudi horretan honako hau ezartzen da:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak onartuko du Gazteriaren arloko Euskal Estrategia, eta bertan bilduko dira, koordinatuta eta globalki, EAEko administrazio publikoek gazteriaren arloan garatu behar duten jarduera gidatuko duten esku-hartze ildoak eta gidalerroak, izaera orokorrekoak eta administrazio bakoitzaren eskumen-esparrua errespetatuko dutenak. Gero, Eusko Legebiltzarrari emango dio horren berri, bai eta estrategiaren ebaluazioaren edo betetze-mailaren berri ere, urteko memoria bidalita.

1 Kontsultatu `Erreferentziazko dokumentu pragmatikoen zerrenda´.

2 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena..

Gazteria Legeak hiru ardatz nagusiren bueltan artikulatzen ditu bere ekintzak, gazteria-politikaren eta *Gazteria Sistemaren* bilakaeraren eta aldaketa sozialen arabera:

1. Gazteen heltze- eta garapen-prozesuan laguntzea.
2. Gazteen emantzipazioa eta helduarorako trantsizioa sustatzea.
3. Parte-hartze soziala sustatzea arlo guztietan.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, Estrategiak gazteen ikuspegia txertatzen du Euskadiko politika publiko guztietan eta 12 eta 30 urte bitarteko gazteak hartzen ditu barne. Emantzipatzeko batez besteko adina murriztean eta aukera-berdintasunean oinarritutako sozializazio-prozesuak sustatzean jartzen du arreta bereziki.

Halaber, *Gazteria Legeak* 25 jarduketa-ildo definitzen ditu eta hainbat arlo hartzen dituzte barne ildo horiek, hala nola enplegua, hezkuntza, etxebizitza, genero-berdintasuna, sexu- eta genero-dibertsitatea, kultura, kirola, osasuna eta prebentzioa, ingurumena, kontsumoa, boluntariotza, mugikortasuna eta bizikidetza. Eraginkortasuna bermatzeko, ildo horiek hiru ardatzetan eta lehentasunezko hamar arlotan kondentsatu dira, *V Gazte Planarekin* lerrokatuta:

EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA:

1. Hezkuntza eta Enplegurako Prestakuntza
2. Enplegua
3. Etxebizitza

ONGIZATEA ETA IDENTITATE KULTURALA:

4. Bizimoduak eta ingurune osasungarriak
5. Euskara
6. Kultura eta aisialdia

PARTE-HARTZEA ETA KONPROMISOA SOZIALA:

7. Parte-hartzea
8. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna
9. Dibertsitatea eta Bizikidetza
10. Ingurumeneko jasangarritasuna

Gazteriaren Legeaz gain, Estrategian eragin zuzena dute, eta zenbait lege sektorialek Legearen edukietan eragiten dute. Horiek A eranskinean jaso dira laburki[3].

3 Ikus A eranskina.

2. ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategia tokiko mailatik Europako komunitate mailaraino garatutako araueta politika-esparru nagusiekin bat eginez eraiki da.

Estrategia sortu berria bada ere, Euskadiko III. Gazte Plana 2020ren Esparru Orokorrarekin duen lotura nabarmendu behar da. Gazteriaren arloko Euskal Estrategia, Estrategia honen aurrekari zuzena eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazio guztietarako gazte-politika integralak diseinatzeko eta horien jarraipena egiteko erreferentziazko esparru orokorra. Horietan, administrazio horien jarduera 2016. urtera arte orientatzeko esku-hartze ildoak eta jarraibideak jasotzen ziren, modu koordinatu eta orokorrean. Aurreko planaren indarraldia amaitu ondoren, 2017an azken ebaluazio bat egin zen, gomendio estrategikoen multzo bat identifikatzeko. Horiek Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategiaren diseinuan sartu dira, eta gazteen egungo errealitatera egokitu dira azterketa diagnostiko zorrotz baten bidez, Gazteen Euskal Behatokiak, EUSTATek edo inkesta ofizialek egindako informazio-iturri kuantitatibo eta kualitatiboetan oinarrituta.

Esparru estrategiko berrian sartutako gomendio nagusiak hiru ardatz nagusiren inguruan egituratzen dira: informazio-iturriak, helburu estrategikoak eta jarraipen-adierazleak.

Informazio-iturriak

- Erabilitako estatistika-iturriak berrikusi eta eguneratu dira, datuen adierazgarritasuna eta fidagarritasuna hobetzeko. Adibidez, etxebizitza eskuratzeko kostuari buruzko adierazlea Alokairuaren Merkatuaren Estatistikan (EMA) oinarritzen da orain, eskainitako prezioen ordez, eta horrek merkatuaren errealitatera zehatzago hurbiltzea ahalbidetzen du.

Helburu estrategikoak

- Helburuak adierazleetan ikusitako bilakaeraren arabera doitu dira. Horrela, hirueletasunari buruzko helburua handitzea planteatzen da, betetze maila handia delako; garaia baino lehen eskola uztea murrizteko helburua, berriz, egiturazkoa da, eta erabat desagerraraztea oso konplexua dela onartzen da.

Jarraipen-adierazleak

- Adierazle osagarriak sartu dira, hala nola etxebizitza publikoari buruzkoak, gazteen emantzipazio- prozesuaren azterketa aberasteko.

- Berrikusi beharreko adierazleak identifikatu ditu, anbiguoak direlako edo neurtu nahi den fenomenoa behar bezala islatzen ez dutelako. Horixe da intolerantzia ideologikoaren adierazlearen kasua, eta horren interpretazioa desitxuratuta egon daiteke jokabide diskriminatzaileak gaitzesteko jarrerengatik. Halaber, zalantzan jartzen da salaketa-tasa emakumeen aurkako indarkeriaren zuzeneko neurri gisa erabiltzea egokia den, eta fenomenoarekiko hurbilketa kualitatiboagoa proposatzen da.

- Datuak sexuaren eta adin-taldearen arabera bereizi behar direla azpimarratu da, batez ere osasun mentalaren, jarduera fisikoaren edo lan-desberdintasunaren pertzepzioaren adierazleetan; izan ere, balio agregatuetan islatzen ez diren alde esanguratsuak ikusten dira.

- Justifikatu gabeko gorabeherak dituzten adierazleen ordez —doktorego-tesien kopurua, adibidez —egonkorragoak jarri dira, eta 2021a baino lehenagoko azken neurketa dutenak eguneratu dira (adibidez, kontsumo jasangarria edo lagunekin euskara erabiltzea), esparru estrategiko berrian indarrean egongo direla bermatzeko.

Bestalde, estrategia koherentea da XIII. Legegintzaldiko Gobernu Programarekin, eta bat dator, batez ere, gazteen lehentasunei erantzungo dien gazte-politika integrala garatzeko konpromisoarekin eta, zehazki, I. ardatzeko 53.1 konpromisoarekin:

> *2024-2030 aldirako Gazteriaren Euskal Estrategia definitzeko eta onartzeko prozesua garatzea, Euskadiko gainerako herri-administrazioekin eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan, gazteek partaidetza-prozesuetan adierazitako osasuna, hezkuntza, klima-aldaketa, kultura, aisia, parte-hartzea, berdintasuna edo bizikidetza lehentasunei erantzungo dieten baterako erantzunak artikulatzeko.*

Era berean, I., II., III. eta IV. ardatzetan jasotako hainbat konpromisorekin bat egiten du, bai eta funtsean pertsonen ongizatera, hazkunde- eta ongizate-eredura, energia-eraldaketara eta bizikidetzaren iraunkortasunera bideratuta dauden konpromisoekin ere. Zehazki, konpromisoak honako hauek dira:

2024-2028 Gobernu Programa XIII. Legegintzaldia	Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategiaren arloak
I. Ardatza: Pertsonak erdigunea Konpromisoak: 9/1; 45/3; 12/7; 17/3; 18/1-5; 47/6; 48/1; 51/1-4; 52/1-8; 53/1-5;56/3	Hezkuntza eta Enplegurako Prestakuntza, Euskara, Kultura eta aisialdia, Bizimoduak eta ingurune osasungarriak
II. Ardatza: Hazkunde- eta Ongizate-eredua Konpromisoak: 64/1-3; 94/1; 105/3-4	Enplegua, Hezkuntza eta Enplegurako Prestakuntza, Ingurumeneko jasangarritasuna
III. Ardatza: Eraldaketa energetikoa eta jasangarritasuna Konpromisoak: 118/3; 119/2	Enplegua, Bizimoduak eta ingurune osasungarriak, Ingurumeneko jasangarritasuna
IV. Ardatza: Bizikidetza, memoria eta giza eskubideak Konpromisoak: 127/2-3	Parte-hartzea Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna, Dibertsitatea eta Bizikidetza

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da bere lotura Euskadiko III. Gazte Planarekin (2011–2016), Estrategia honen aurrekari zuzena eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztientzako gazteria-politika integralak diseinatzeko eta jarraitzeko erreferentziazko esparru orokorra izan zena. Plan horrek modu koordinatuan eta global batean jasotzen zituen administrazio horien jarduera gidatu behar zuten esku-hartze- ildoak eta jarraibideak 2016. urtera arte.

Indarrean egoteko epea amaitzean, 2017an azken ebaluazio bat egin zen, eta horrek gomendio baliotsuak ateratzeko aukera eman zuen. Gomendio horiek kontuan hartu dira egungo Euskadiko Gazteriarekiko 2030eko Estrategia diseinatzerakoan.

Europako Helburua (2019-2027)	Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategiaren atalak
1. EB eta gazteak lotzea	Parte-hartzea, Hezkuntza eta Enplegurako Prestakuntza
2. Genero guztien berdintasuna	Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna, Dibertsitatea eta Bizikidetza
3. Gizarte inklusiboak	Dibertsitatea eta Bizikidetza, Enplegua
4. Informazioa eta elkarrizketa eraikitzailea	Parte-hartzea, Kultura eta Aisialdia
5. Buruko osasuna eta ongizatea	Bizimoduak eta ingurune osasungarriak
6. Landa-eremuko gazteria sustatzea	Enplegua, Etxebizitza
7. Kalitatezko enplegua guztiontzat	Enplegua, Hezkuntza eta Enplegurako Prestakuntza
8. Kalitatezko ikaskuntza	Enplegua, Hezkuntza eta Enplegurako Prestakuntza
9. Espazioak eta parte-hartzea guztiontzat	Kultura eta Aisialdia, Parte Hartzea, Etxebizitza
10. Europa berde eta jasangarria	Ingurumeneko jasangarritasuna, Kultura eta Aisialdia, Parte Hartzea
11. Europako programak eta gazte-antolakundeak	Parte Hartzea, Enplegua

Gainera, Estrategiak erakundeen arteko gobernantza indartzen du, Euskadiko maila administratibo guztien arteko plangintza koordinatua ziurtatzeko eta gazteek beren orainaldian eta etorkizunean eragin zuzena duten erabakietan parte hartzeko. Ildo horretatik, ezinbestekoa da Euskadiko gazteria-politikak planifikatzeko erabilitako tresna nagusiak aipatzea. Tresna horiek erkidego mailakoak ez ezik, aldundietakoak eta Euskadiko hiri nagusietako udaletakoak ere badira. Estrategiaren eranskinetan xehetasun gehiago gehituko diren arren, jarraian labur deskribatuko dira Euskadiko gazteen politika osatzen duten plan eta programa nagusiak:

- Euskadin, V. Gazte Plana da Euskadiko gazteen egoera hobetzeko neurriak eta helburu zehatzak ezartzen dituen jarduketa-esparru nagusia. Plan horrek hainbat arlo estrategiko jorratzen ditu, hala nola enplegua, hezkuntza, emantzipazioa eta gazteen parte-hartzea. Aurreko planen jarraipena da eta Euskadiko gazteek egun dituzten behar eta erronka berrietara egokitzen da.

- Oro har, Estrategiak arreta berezia jartzen du emantzipatzeko batez besteko adina murriztean, bai eta aukera-berdintasunean oinarritutako sozializazio-prozesuak sustatzean ere. Emantzipazioaren arloari dagokionez, Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategiak indarrean jarraitzen badu ere —emantzipazioa lehentasunezko dimentsio gisa hartzen du gazteen bizi-ibilbidearen barruan, eta lotura estua du gainerako garapen-

arloekin—, estrategia hori Gazteriaren arloko Euskal Estrategian txertatuko da, onartu ondoren; hau da, Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia Gazteriaren Estrategiarekin bateratuko da funtzionalki eta programatikoki.

- Bestalde, Euskadiko Gazteria Legea da Euskadiko gazteriaren arloko politiken garapena arautzen duen esparrua. Gazteei zuzendutako politika publikoen funtsezko printzipioak ezartzen ditu, administrazioen konpetentziak definitzen ditu eta erakundeen arteko lankidetza sustatzen du. Gainera, gazteek erabakietan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzen du eta, halaber, zuzenean eragiten dieten kontuetan haien ahotsa entzun dezatela bermatzen du.

- Foru aldundi bakoitzak, Arabakoak, Bizkaikoak zein Gipuzkoak, bere gazteentzako ekintza-plana garatzen du eta lurralde bakoitzaren ezaugarri espezifikoetara egokitzen du. Plan horiek gazteen enpleguari laguntzeko neurriak, prestakuntza-programak eta bizitza publikoan parte hartzea sustatzeko neurriak izaten dituzte, eta bereziki erreparatzen diete dibertsitateari eta landa-eremuei. Halaber, aldundiak lankidetzan aritzen dira Eusko Jaurlaritzarekin Europako programak ezartzeko, hala nola Erasmus+ eta Europako Elkartasun kidegoa.

- Halaber, udalek gazteen udal planak egiten dituzte tokiko beharrei erantzuteko. Plan horiek gazteentzako espazioak eskaintzen dituzte, herritarren parte-hartzea sustatzen dute eta kultur eta aisialdi-jarduerak bultzatzen dituzte.

Oro har, tresna eta plan horiek **erakundeen arteko koordinazioa** bermatu behar dute, Euskadiko gazteriaren arloko politikak modu koherentean aplika daitezen gobernuko maila guztietan. Halaber, Euskadiko gazteek aukera berdinak izan ditzaten bermatu behar dute, edozein lekutan bizi direla ere.

3. GAZTEEN ESTRATEGIAK GJH-EI EGITEN DIEN EKARPENA

Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategia bat dator Nazio Batuen 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako hainbat Helbururekin (GJH) eta, hala, Euskadirentzako etorkizun parekideagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa lortzeko ekarpena egiten du.

Zehazki, Estrategia oso koherentea da GJH hauekin:

- **4. GJH. Kalitatezko hezkuntza:** Gazte guztientzako hezkuntzarako eta prestakuntzarako sarbidea sustatuz eta enplegurako eta ekintzailetzarako aukera-berdintasuna eta gaitasunen garapena sustatuz, Estrategiak ekarpen zuzena egiten die 4.4 eta 4.5 helburuei. Gainera, garapen jasangarrirako hezkuntza integratuz bere ekintza-ildoetan, bat egiten du 4.7 helburuarekin

- **5. GJH. Genero-berdintasuna:** Estrategiak zeharka jorratzen du genero-berdintasuna esku hartzeko arlo guztietan eta desberdintasunekin amaitzea eta emakume gazteen ahalduntzea sustatzea du xede. Hala, ekarpena egiten dio 5.5 helburuari, emakumeek erabateko parte-hartze eraginkorra izan dezaten lidergoan eta aukera-berdintasuna egon dadin.

- **8. GJH. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa:** Gazteen enplegua, ekintzailetza eta gaitasun tekniko eta profesionalak eskuratzea sustatzean, Estrategiak ekarpena egiten dio 8.6 helburuari, hots: enplegatuta ez dauden, ikasten ari ez diren eta prestakuntzarik jasotzen ez duten gazteen proportzioa murriztea.

- **10. GJH. Desberdintasunak murriztea:** Estrategiaren helburua da desberdintasunak murriztea gazteentzako aukeren eta zerbitzuen sarbidean, batez ere zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen kasuan. Bat dator hori 10.2 helburuarekin: pertsona guztiak ahalduntzea eta gizarteratzea, inklusio ekonomikoa eta politikoa sustatzea.

- **11. GJH. Hiri eta komunitate jasangarriak:** Etxebizitza, garraio publikoa, mugikortasun jasangarria eta gazteek erabakietan parte hartzea moduko gaiak jorratzean, Estrategiak hiri eta komunitate inklusiboagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak sortzeko ekarpena egiten du, 11.2, 11.3 eta 11.7 helburuekin lerrokatuta.

- **GJH 16, Gizarte bidezkoak, baketsuak eta inklusiboak sustatzea:** Estrategiak pertsonen berezko aniztasuna aitortzea sustatzen du, bizikidetzan eta gizarte-kohesioan aurrera egiteko, bai eta gatazka-, indarkeria- eta tratu txar-egoerei aurrea hartzeko eta aurre egiteko ere, 16.1 eta 16.7 helburuekin bat etorriz.

GJH horiez gain, Estrategiak ekarpena egiten die beste helburu batzuei, hala nola 3. GJH. Osasuna eta ongizateari; 12. GJH. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuei; eta 13. GJH. Klimaren aldeko ekintzari; osasunaren, prebentzioaren, kontsumo arduratsuaren eta ingurumenaren arloan egiten dituen ekintzen bidez.

4. ESTRATEGIA EGITEKO PROZESUA

Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategia prestatzeko, teknika kualitatiboen konbinazio baten alde egin da, beharrezko jarduerei buruzko proposamenak identifikatu eta kontrastatzeko aukera emanez. Erabilitako teknikak honako hauek izan dira:

- Dokumentazioaren berrikuspena, gazteriaren arloko aurreko plan estrategikoen, araudiaren, ikerketa teknikoen eta dokumentu esanguratsuen azterketa barne.
- Kontraste-fitxak, ardatzen eta jarduera-proposamenen inguruko ekarpen egituratuak jasotzeko, funtsezko eragileei bidaliak.
- Elkarrizketa sakonak, gazteriaren politiken arloan esperientzia duten profil tekniko eta instituzionalei egindakoak.
- Hausnarketa-taldeak, non gazteek, langile teknikoek eta arduradun instituzionalek parte hartu zuten lehentasunen, erronken eta estrategia-ikuspegien inguruan kolektiboki gogoeta egiteko.



DOKUMENTUEN BERRIKUSKETA
- Beste lurralde batzuetako estrategiak.
- Aurreko azterketak.
- Erreferentziazko araudia.
- Planak, txostenak, memoriak...



FITXAK
Hainbat mailatako administrazio publikoei fitxak bidaltzea, informazio diagnostikoa jasotzeko.



ELKARRIZKETAK
Administrazio publikoei, organismoei eta erakundeei elkarrizketak egitea, diagnostikoaren erronkak, helburuak, lehentasunak eta abar kontrastatzeko eta, hala, Estrategiaren lehen zirriborroan aurrerapausoak emateko.



EZTABAIDA TALDEAK
- Gazteen artean hainbat gairi buruzko gogoeta egiteko eta elkarrizketarako espazioak.
- Adituekin kontrastatzeko taldea.
- Erakundeen arteko lankidetza-espazioa, Estrategia diseinatzeko, edukiak kontrastatzeko...

Estrategiaren elaborazio-prozesua ikuspegi parte-hartzaile eta zeharkako batek gidatu du; ikuspegi horrek ez du soilik ahots eta esperientzia anitzak jasotzea ahalbidetu, baizik eta eremu desberdinetatik —instituzionaletik, teknikotik eta gazte-eremutik— datozen begirada osagarriak txertatzea ere bai. Ikuspegi honek aberastu egin du diagnostikoa eta lehentasun estrategikoen definizioa.

Lehenik eta behin, bigarren mailako iturrien azterketa sakona egin zen, honako hauek barne: Euskal Autonomia Erkidegoko arau-esparrua, maila europarrean antzekoak diren estrategiak, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak garatutako aurreko plan eta azterlanak, eta gazteriaren egoerari buruzko txosten analitikoak.

Horrez gain, lehen mailako iturriak ere integratu ziren, Euskadiko Gazteriaren Behatokiak egindako inkesta eta azterketetatik eratorritakoak, gazteen baldintzei, iritziei eta ibilbideei buruzko datu eguneratu eta zehatzak eskainiz. Berrikuspen horrek Estrategiaren garapena testuinguruan kokatu eta oinarri sendo bat ezarri zuen aurrera egiteko.

Ondoren, informazioa bildu zen Euskadiko hiru hiriburuetako udalei, hiru aldundiei, Eusko Jaurlaritzako Sailei eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari bidalitako fitxa diagnostiko baten bidez. Tresna horiei esker Euskadin gazteriaren arloan existitzen diren politikei buruzko ikuspegi zabala lortu ahal izan da, lehentasunak identifikatzeko eta hobetzeko arloak hautemateko.

Arlo garrantzitsuetan sakontzeko eta Estrategiaren helburu estrategikoei, lehentasunezko jarduketa ildoei, erantzun gabeko beharren eta balizko orientazioen informazioa lortzeko, elkarrizketak egin zitzaizkien administrazioetako eta organismo publikoetako informatzaile giltzarriei[4]. Elkarrizketa horiek Estrategia egiteko prozesua aberastu zuten, askotariko ikuspegiei eta ezagutza espezializatuei esker.

Halaber, eztabaida-talde bat antolatu zen gazteriarekin zerikusia duten hainbat arlotako adituekin, Estrategiaren edukiei zehaztasun eta sakontasun handiagoa emateko.


Gainera, eztabaida-taldeak eratu ziren hiru lurralde historikoetan hainbat profiletako gazteekin[5]. Gogoeta- eta elkarrizketa-espazio horietan gazteek haien ezinegonak, beharrak eta proposamenak adierazteko aukera izan zuten eta, hala, Estrategiak haien ahotsak eta aspirazioak islatzeko.

Azkenik, erakundeen eta sailen arteko koherentzia eta koordinazioa bermatzeko lan-saioak egin ziren Estrategian esku hartzen duten Administrazioetako eta organismo publikoetako ordezkariekin. Saio horietan ideiak trukatu ziren, sinergiak identifikatu eta ekintza bateratuak definitu.

Azkenik, Estrategiaren zirriborroaren gaineko idatzizko iruzkinak eta iradokizunak jasotzeko parte-hartze kanal publiko bat zabaldu zen. Etapa horretan hainbat eragileren ekarpenak jaso ahal izan ziren eta horrek are gehiago aberastu zuen hemen aurkezten den amaierako dokumentua.

4 Arabako Foru Aldundia; Arabako Gazteriaren Foru Erakundea; Gipuzkoako Foru Aldundia; Bizkaiko Foru Aldundia; Gasteizko, Bilboko eta Donostiako Udalak; EUDEL; EGK; Emakunde; Arartekoa.

5 Eztabaida-taldeetan parte hartzen duten pertsonen aniztasuna ziurtatzeko ahalegina egin zen, irizpide hauek kontuan hartuta: bizilekua duten lurralde historikoa (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), adin-tartea, bizi-unea (ikasketak, enplegua, emantzipazioa, etab.), ikasketa-maila, eta hiri- edo landa-testuinguruen jatorria.


Azaroa-abendua (2023)
Urtarrila-martxoa (2024)
Martxoa-ekaina (2024)
Uztaila-Abendua (2024)
1. FASEA Prestaketa
2. FASEA Egoeraren diagnostikoa
3. FASEA Estrategia hurbiltzea
4. FASEA Estrategiaren diseinu partekatua
2025 eta 2026
5. FASEA Erakundearteko Koordinazio Organoaren eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren informazioa
6. FASEA Autonomia Erkidegoko Administrazioaren onarpena
7. FASEA Eusko Legebiltzarrera bidaltzea
8. FASEA Gardentasunaren atarian argitaratzea
2024tik 2031ra
URTEKO JARRAIPEN-TXOSTENAK ETA AZKEN EBALUAZIO-TXOSTENA

5. GAZTEEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Diagnostiko hau erradiografia apal baina erabakigarria da, eta Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek dituzten erronka eta desafio nagusiak identifikatzera dago bideratuta.

Datuak Gazteriaren Euskadiko Behatokiak erregistratutako adierazlerik esanguratsuenetatik atera dira, bai lehen mailako iturrietatik —aldizkakotasun jakin batekin egin eta argitaratzen dituen txostenak— bai bigarren mailakoetatik —jarduera-eremu bakoitzean (osasuna, etxebizitza, enplegua...) estatistikara eta/edo arlo espezifikoetara bideratuago dauden beste organismo batzuk erregistratu eta monitorizatzen dituzten datuak—. Daturik eguneratuena lortzen ahalegindu gara, baina datak aldatu egiten dira adierazlea erregistratu eta monitorizatzen duen organismoaren arabera.

Horregatik aldatzen da adierazle bakoitzak barne hartzen duen adin-tartea ere. *Gazteria Legearen* arabera gazteak 12 eta 30 urte bitarteko pertsonak diren arren, adierazlearen eta erregistratu eta monitorizatzen duen organismoaren arabera, adin-tartea 15 eta 34 urte bitartekoa izan daiteke. Hala ere, adin-tarte nagusia 15 eta 29 urte bitartekoa da.

Nolanahi ere, uneoro identifikatu dira bai datuaren azken erregistroa, bai adin-tartea, erradiografia ahalik eta zehatzena izan dadin eta alderaketa eta kontraste egokiak ezarri ahal izateko. Aipatzekoa da sexuari, lurraldeari edo adin-tarteari buruzko banakapenak ematen direnean, datuen artean alde nabarmenak eta esanguratsuak daudenean egiten dela —banakapenak ez eskaintzekotan, ez da funtsezko alderik identifikatu batez bestekoarekin alderatuta—.

Datuak, eta dagozkien adierazleak, hainbat arlotan sailkatu dira:

1. Testuinguru demografikoa,
2. Hezkuntza.
3. Enplegua eta Gizarte Kohesioa.
4. Emantzipazioa eta Etxebizitza.
5. Osasun Integrala eta Prebentzioa.
6. Euskara.
7. Aisialdia.
8. Parte-hartzea.
9. Berdintasuna Emakumeen eta Gizonen artean.
10. Dibertsitatea eta Bizikidetza.
11. Jasangarritasuna.
12. Egungo egoeraren eta etorkizuneko aurreikuspenen balorazioa.

Testuinguru Demografikoaren eta Egungo Egoeraren eta Etorkizuneko Aurreikuspenen Balorazioaren kasuan izan ezik (diagnostikoari testuingurua emateko balio dute), arloen aukeraketa *Gazteria Legeak* 20. artikuluan identifikatzen ditu 25 esku-hartze ildoen sinplifikazio tekniko erabilgarria da. Izatez, arlo bakoitzaren definizioa kontsulta daiteke hasieran, kontzeptuaren testuingurua ezagutzeko. Halaber, arlo horiek modu integralean erantzuten diete osatzen duten dimentsio guztiei eta gazteen identitatea eta bizi-proiektuak baldintzatzen dituzte.

Arlo bakoitzaren erradiografiaren amaieran, ondorioen koadro bat dago, gogoetarik esanguratsuenak nabarmentzeko. Gogoeta horiek beharrezkoak dira dokumentu honetako azken atalean jasotzen diren erronkak eta desafioak identifikatzeko, horiek izango baitira Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategia egiteko abiapuntua.

Eremu bakoitzaren erradiografia amaitzean, ondorioen taula bat erantsi da, dokumentu honen azken atalean (6., 7. eta 8. puntuak) jasotzen diren erronkak eta erronkak aitortzea errazten duten gogoeta esanguratsuenak azpimarratzeko.

5.1 Testuinguru demografikoa

Arloak Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gazteriaren dimentsioarekin, egiturarekin, bilakaerarekin eta bestelako ezaugarriekin lotutako informazioa biltzen du.

OHARRA: Atal honetan jasotako datuak 2023koak dira, besterik adierazi ezean.

Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko 329.093 pertsona daude, hau da, biztanleria osoaren % 14,6 dira, 2.208.007 bizi baitira guztira. Indize hori etengabe igo da 2016tik, oso gutxi bada ere. Urte horretan heldu zen minimora: % 13,1. Azken urteotako joerari jarraituz, Euskadiko gazteen proportzioa estatuko (% 16,2) eta Europako batez bestekoa (% 16,3) baino txikiagoa da.

Sexuaren aldagaiari erreparatuz, % 48,4 (159.522) emakumeak dira eta % 51,5 (169.571) gizonak. Adin-tarteei dagokienez, % 34,3 (112.993) 15 eta 19 urte artekoak dira; % 33,7 (110.980) 20 eta 24 urte bitartekoak; eta beste % 31,9 (105.120) 25 eta 29 urte artekoak. Adin-tarte bakoitzeko kideen kopurua igo egiten da adinean behera egin ahala. Lurralde historikoaren arabera, gazteak honela daude banatuta: % 14,7 (48.421) Araban, % 51,0 (167.975) Bizkaian eta % 34,2 (112.697) Gipuzkoan.

Euskadin bizi diren gazteen % 21,6 atzerritarrak dira, 71.271 gazte guztira. Kopuru hori azken 15 urteotako altuena da. EAEko biztanleria osoan ez bezala, atzerriko gazteen artean adin-taldeen arteko banaketa desorekatua dago: % 20,2k 15 eta 19 urte artean ditu; % 35,0k 20 eta 24 urte artean; eta % 44,7k 25 eta 29 urte artean.

Euskadiko emakumeek lehen haurra izateko batez besteko adina 30 urtetik gorakoa da oraindik ere. Zehazki, 2024an 32,4 urtetan zegoen. Joera hori gutxi baina etengabe handitu da mende honen hasieratik. Esanguratsua da lehen haurra izateko amen batez besteko adina nazionalitatearen arabera: 2024ean, 32,4 urte izan zen Espainiako nazionalitatea zuten emakumeentzat eta 28,7 urte atzerriko nazionalitatea zutenentzat. Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean, 0,8 urte atzeratu dute lehen haurra izateko adina 2010 eta 2024 artean. Halaber, adierazgarria da Euskadiko emakumeen lehen haurra izateko batez besteko adina estatukoa baino apur bat altuagoa dela (31,5 urte) eta EBko batez bestekoa baino nabarmen altuagoa: 29,8 urte[6].

Atzeratutako amatasunaren edo aitatasunaren indizea[7] % 32koa da, eta % 35era iristen da 20 eta 29 urte bitartekoen artean.

Ondorengoak izan nahi dituzten gazteen ehunekoa % 72,6koa da, nabarmen murriztu da hortaz 2017tik, % 77,1tik gorakoa baitzen datu hori. Beherakada bereziki handia da emakumeengan: 2017an % 80,6 eta gaur egun % 72,4 (8,2 puntu). Baita 25 eta 29 urte bitarteko pertsonengan ere: 2017an % 81,6 eta 2024an % 72,3 (9,3 puntu).

[6] Bi datuak 2023koak dira.

[7] Seme-alabarik izan ez arren izan nahiko lituzketen, baina nahiko luketen adinean guraso izateko aukera gutxi edo batere ikusten ez duten pertsonen ehunekoa da.

ONDORIOAK

- EAEko gazteen kopurua mantso baina etengabe handitu da. Adin-tarte bakoitzeko kideen kopurua igo egiten da adinak behera egin ahala. Hala ere, gazteria-indizea estatuko eta EBko batez bestekoa baino txikiagoa da.
- Atzerriko nazionalitatea duten gazteen kopurua azken 15 urtetako handiena da, eta 25 eta 29 urte bitarteko tartea da pisurik handiena duena.
- Lehen haurra izateko amen batez besteko adina poliki baina etengabe ari da atzeratzen eta 32,4 urtekoa da Espainiako nazionalitatea duten emakumeetan. EBko batez bestekoarekiko aldea 2,6 urtekoa da. Halaber, azken urteotan igo egin da atzerriko nazionalitatea duten emakumeen lehen haurra izateko batez besteko adina, 28,7 urtekoa baita dagoeneko.
- Seme-alabarik izan ez arren izan nahiko lituzketen, baina nahiko luketen adinean guraso izateko aukera gutxi edo batere ikusten ez duten 20 eta 29 urte arteko pertsonen ehunekoa % 30ekoa da.
- Ondorengoak izan nahi dituzte gazteen ehunekoa nabarmen murriztu da azken urteotan, batez ere emakumeen eta 25 eta 29 urte bitarteko pertsonen kasuan. Horiek dira hein handiagoan planteatu dezaketenak.

5.2 Hezkuntza

Atal honetan hezkuntza formalarekin eta enplegurako sarbidea hobetzeko bestelako ezagutza eta konpetentzia batzuk eskuratzearekin lotutako informazioa bildu dugu.

OHARRA: Atal honetan jasotako datuak 2022koak dira, besterik adierazi ezean.

2025an, EAEko gazteek ikasketen edo lortutako prestakuntza-mailaren gainean duten asebetetzea 7,8koa da 0tik 10erako eskalan.

Eskola-uzte goiztiarraren tasa, zeinak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu eta maila handiagoko titulaziorik lortu ez duten 18 eta 24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa neurtzen duena, % 5,0ekoa zen, emakumeen (% 2,9) eta gizonen (% 7,1) artean 4,2 puntuko aldearekin. Datu orokorrak beheranzko joera izan du duela 10 urte baino gehiagotik, nahiz eta 2021ekoa baino altuagoa izan. Alabaina, emakumeen aldeko joera mantendu da denboran zehar. Nabarmentzekoa da Euskadik duela eskola-uzte goiztiarraren tasarik baxuena autonomia-erkidego guztien artean —estatuko batez bestekoa % 13,0koa da— eta indizea EBko batez bestekoa baino baxuagoa da baita ere (% 9,3).

Bestalde, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 67,8k du goi-mailako titulazioren bat —izan unibertsitateko ikasketak edo goi-mailako prestakuntzak—. Datua 2,4 puntu altuagoa da emakumeen kasuan: % 69,00, eta % 66,6, berriz, gizonen kasuan.

Adierazgarria da halaber 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 56,2k ondo hitz egiten duela euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Hirueletasun-tasa denboran zehar goranzko joera izan arren, desberdintasun handiak daude adin-taldeen arabera: 5,3 puntu altuagoa da gazteenen (15-19 urte) eta adin gehiena dutenen artean (25-29 urte). Baita lurralde historikoen artean ere: handiagoa da Gipuzkoan (% 60,6), Bizkaian (% 54,9) eta Araban (% 50,0) baino.

Bestalde, 16 eta 19 urte bitarteko gazteen % 45,2ren jarduera nagusia irakaskuntza arautua da[8]. Ehuneko hori % 47,2ra iristen da emakumeen kasuan eta % 43,4ra gizonenean. Espero zitekeen moduan, batez besteko hori jaitsi egiten da adinak gora egin ahala: % 90,0koa da 16 eta 19 urte bitartekoen artean eta % 7,9koa 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

Ikastera, hizkuntzak ikastera eta/edo boluntariotza egitera atzerrira joan diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa % 56,5ekoa da.

ONDORIOAK

- Euskadik eskola-uzte goiztiarraren tasa oso baxua du —estatuko batez bestekoaren oso azpitik— eta aldeko bilakaera izaten ari da. Sexuen araberako aldea egonkor mantendu da denboran zehar, eta abandonua handiagoa izan da gizonen kasuan.
- 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ia bi herenek du goi-mailako titulazioren bat.
- Gazteen hirueletasun-tasa, alegia, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo hitz egiten duten pertsonen tasa, % 61,5tik gorakoa da 15 eta 19 urte bitartekoen artean.

[8] Soilik ikasi egiten dute edo ikasi eta lan egiten dute baina astean 20 ordutik beherako lanetan.

5.3 Enplegua eta Gizarte Kohesioa

Atal honek erreferentzia egiten die lan-mundura sartzeko baldintzei (besteen kontura edo norbere kontura lan egitea), eta gazteen enpleguaren formulak, kalitatea eta egonkortasuna islatzen ditu, baita prekarietatearen eta langabeziaren erradiografia espezifikoa ere. Gainera, informazio sozioekonomikoa eta gizarte-kohesioarekin lotutakoa ematen ditu.

OHARRA: Datuak hainbat urtetakoak dira, eta kasu bakoitzean dago zehaztuta urtea.

Jarduera-tasa, edo, bestela esanda, 2024an lanean edo lan egiteko prest[9] dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa % 51,4koa da. 2,8 puntutik gorako aldea dago emakumeen (% 50,0) eta gizonen (% 52,8) artean. Urte honetan bertan, langabezia-tasa[10] % 10,9koa da, serieko baxuena. Eta okupazio-tasa[11] % 45,8koa. Jarduera-tasaren kasuan bezala, okupazio-tasan desberdintasun jakin bat dago emakumeen (% 47,2) eta gizonen (% 44,4) datuaren artean, baina egia jarduera-tasa altuagoa dela gizonezkoen artean (% 52,8) emakumeen artean baino (% 50,0).

Lan-merkatura sartzeari dagokionez, 2025an, unibertsitateko ikasketak amaitu ostean merkatura sartzeko tasa[12] % 91ekoa izan zen, eta Lanbide Heziketa amaitu ondorengo tasa[13] % 84,6ra iritsi zen.

Nabarmentzekoa da 2023an, ikasketa profesionalak edo unibertsitateak amaituta dituzten eta lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 80k bere prestakuntza erabiltzen duela lanean. Ikasketei lotutako enplegua esaten zaio horri. Emakumeen kasuan, datua apur bat baxuagoa da (% 71,5) gizonena baino (% 70,9). Bestalde,2025ean lanean ari diren 15 eta 29 urte bitarteko pertsonek lanarekin duten asebetetze-maila 6,6koa da 0tik 10erako eskalan.

Enpleguaren modalitateari dagokionez, 2023an, 20 eta 29 urte bitarteko okupatutako pertsonen % 4,2 bere kontura[14] ari zen lanean, enpresari edo autonomo gisa. Norbere kontura lan egiten dutenen ehunekoa oso txikia bada ere, noizbait planteatu duten 20-29 urteko gazteen ehunekoa % 42,5koa da.

2024an, 18 eta 34 urte bitarteko gazteen hilabeteko batez besteko soldata garbia —aparteko ordainsari hainbanatuekin— 1.564 eurokoa izan zen. Emakume gazteen batez besteko soldata 1.438 €-koa izan zen bitartean, gizonezkoena 1.617 €-koa izan zen, beraz, soldata arrakala 179 €-koa da. Adierazgarria da soldaten zenbatekoak 2010ean eta 2011n jasotako ordainsarien antzekoak izan zirela.

[9] Enplegua aktiboki bilatzen ari diren langabeak.

[10] Langabezian daude 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, pertsona aktiboen guztizkoaren gainean.

[11] Enplegua duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

[12] Lanean ari diren pertsonen ehunekoa EHUn, Deustuko Unibertsitatean eta Mondragon Unibertsitatean graduatutako pertsona guztien artean, eta ikasketak amaitu eta 3 urtera aktibo daudenak.

[13] Erdi- eta goi-mailako Lanbide Heziketan graduatu diren pertsonen artean lanean ari direnen ehunekoa, eta ikasketak amaitu eta hurrengo 12 hilabeteetan aktibo daudenak

[14] Bai datu orokorrek, bai lurraldearen arabera bereizitako datuek laginketa-errore handia dute, hortaz, tentuz hartu behar dira. Izan ere, norbere kontura lan egitea fenomeno minoritarioa da gazteen artean, eta, horren ondorioz, laginak ez dira datuen fidagarritasuna bermatzeko bezain zabalak

Bestalde, gizarte-kohesioarekin eta desberdintasun ekonomikoarekin lotutako datu hauek aztertu ditugu. 2022an, gazteen % 4,8 benetako pobrezia-egoeran[15] zegoen eta familia gazteen benetako pobrezia-tasa[16] % 12,7koa zen. Alde horretatik, 35 urtetik beherako pertsona bat buru zen familia batean bizi ziren eta mantenu-pobreziarako arriskuan zeuden[17] pertsonen ehunekoa % 16,6koa izan zen. Sexuari dagokionez, emakumeek (% 18,9) gizonek baino gehiago jasaten zuten (% 14,5).

Nabarmentzekoa da azken hiru adierazleetan desberdintasun esanguratsuak daudela lurraldeei dagokienez, eta Gipuzkoan dago egoerarik okerrena. Familia gazteen benetako pobrezia-tasaren kasuan— datu orokorra: % 12,7—. Araban eta Bizkaian datua berdina da (% 15,7) eta Gipuzkoan ia-ia erdira murrizten da (% 8).

Amaitzeko, 2024an baliabide nahikorik ez izateagatik oinarrizko beharrei erantzuteko dirulaguntza publikoren bat jaso behar izan zuten pertsonen kasuan, 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 3,4 DSBEren (Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta) titularra zen eta 2025ean 30.314 gazte izan ziren prestazio horren onuradunak. Hau da: dirulaguntza jasotzen zuen familia batean bizi ziren.

[15] Benetako pobreziak egoera hauek jasotzen ditu: oinarrizko beharrak behar adina estaltzen ez diren arrisku-egoerak, pobreziaren dimentsioren batean edo bestean ageri direnak (mantentzea edo pilatzea), herritarren eguneroko bizitzan behar adina konpentsatu gabe daudenean, eta hala, pobrezian ez bizitzeko gutxieneko ongizatea lortu ezin denean. Adierazlea sortzerakoan, mantentze- eta pilatze-adierazleen posizioaz gain, horrekin lotutako beste prekarietate-elementu batzuk ere hartu dira kontuan. Esanguratsuena da azken urteetan izandako gabezia-egoerak.

[16] 35 urtetik beherako pertsona bat buru den familia batean eta benetako pobrezia-egoeran bizi diren pertsonen ehunekoa.

[17] EPDS metodologiaren arabera, mantentze-dimentsioko pobreziaren arrisku-egoeran egotea da beharrik funtsezko edo oinarrizkoenak asetzeko potentzialki nahikoak ez diren diru-sarrerak izatea, bereziki, elikadurarekin, etxebizitzarekin, jantziekin eta oinetakoekin lotutako gastu erregularrekin lotutako beharrei dagokienez.

ONDORIOAK

- Lanean edo enplegua aktiboki bilatzen ari diren emakumeen ehunekoa gizonena baino nabarmen txikiagoa da.
- Unibertsitateko edo LHko ikasketak amaitu osteko lan-munduratzea kopuru oso altuetara iritsi da eta gazteen ehuneko oso handi bat bere ikasketekin lotutako lanpostuetan ari da lanean.
- Norbere kontura lan egitea aukera oso minoritarioa da gazteen artean, nahiz eta planteatu dutenen ehunekoa dezente handiagoa izan.
- Gazteen erdiak baino gehiagok aldi baterako kontratua du, eta ehunekoa apur bat handiagoa da emakumeen kasuan.
- Lanean ari diren gazteen ia heren bat lanaldi partzialean dago. Baldintza horietan lan egiten duten emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da.
- Gazteen batez besteko soldata 1.564 eurokoa da eta emakumeen eta gizonen artean ia 179 euroko soldata-arrakala dago. Kolektibo horren soldataren balioa ez da handitu azken 12 urteetan, hortaz, praktikan, nabarmen murriztu da erosahalmena.
- 35 urtetik beherakoak buru diren familien % 16,6 benetako pobrezia-egoeran edo pobrezia-arriskuan dago.
- 30.314 gazte dira DSBEren onuradunak, dirulaguntza hori jasotzen duen bizikidetza-unitate batean bizi direlako.

5.4 Emantzipazioa eta Etxebizitza

Gazteek familiako etxetik ateratzeko eta bizi-proiektua modu autonomoan egiteko erabiltzen dituzten formulei buruzkoa da atal hau. Halaber, etxebizitza lortzeko formulak, kostua eta ordaintzeko ahalegina ere bildu ditugu.

OHARRA: Datu guztiak 2022koak dira, aurkakoa adierazi ezean.

18 eta 34 urte arteko pertsonen % 32,3 dago emantzipatuta. Emantzipazio-tasa estatuko batez bestekoarekin alderatuz gero, ez da alderik apenas (% 32,8), baina bai EBkoarekin (% 50,9). Gainera, EAEko datu orokorra nabarmen murriztu da azken 12 urteotan; 2011n % 45,4koa zen eta egun % 32,8koa da. Halaber, aipagarria da sexuaren arabera dagoen 5 puntuko aldea: Emakumeen % 34,9 dago emantzipatuta eta gizonen % 29,9. Adin- tarteari dagokionez, espero daitekeen moduan, emantzipazio-tasak gora egiten du adina handitu ahala: % 5,3ekoa da 18 eta 24 urte bitartekoen artean; % 32,8koa 25 eta 29 urte bitartekoen artean; eta % 71,5ekoa 30 eta 34 urte bitartekoen artean.

Euskadiko emantzipatzeko batez besteko adina 29,8 urtekoa da, estatuko batez bestekoa baino urtebete gutxiago (30,0) eta EBkoa baino hiru urte gehiago (26,2). Emantzipatzeko benetako adinaren eta Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteentzat ideala den adinaren arteko aldea 5,2 urtekoa da. Bestela esanda: gazteek 24,6 urterekin emantzipatu nahiko lukete.

2023ko datuen arabera, emantzipatuta zeuden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 44,5 alokairuan bizi zen eta % 52,4 jabetza-erregimenean.

Etxebizitzaren prezioak emantzipazio-tasan duen pisua eta emantzipatzeko batez besteko adina baloratzeko, hainbat adierazleri erreparatu behar zaie, besteak beste, etxebizitzaren prezioari. Jabetzako etxebizitzen kasuan, jabetzako etxebizitza libreen kostuarekin lotutako adierazlea dago eskuragarri, eta adierazten du 18 eta 34 urte bitarteko soldatadun pertsona batek hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen merkatu libreko etxebizitza bat erosteko hipotekaren lehen kuota berak bakarrik ordaintzeko. Ehuneko hori 2024an % 64,2koa da, % 69,9ra iristen da emakumeen kasuan eta % 62,1ra gizonenean. Hala, 18 eta 24 urte bitarteko gazteek beren soldataren % 85,0 bideratu beharko lukete hipotekaren lehen kuota ordaintzeko; 25 eta 29 urtekoek % 65,6 eta 30 eta 34 urte bitartekoek % 56,6.

Alokairuko etxebizitza librea eskuratzeko kostuaren kasuan, 18 eta 34 urte bitarteko soldatadun pertsona batek merkatu libreko alokairuko etxebizitza bat berak bakarrik ordaintzeko hilabeteko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen neurtzen du. Datua % 52,4koa da; emakumeen kasuan % 57,0 eta gizonen kasuan % 50,7. Adin-tarteei erreparatuz gero, 18 eta 24 urte bitarteko pertsonek soldataren % 69,4 bideratu beharko lukete etxebizitzaren alokairua ordaintzera; 25 eta 29 urte bitartekoek % 53,3 eta 30 eta 34 urte bitartekoek % 46,2.

Alokairuko etxebizitza librearen batez besteko errentaren eta gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea[18] 350 eurokoa da, hilabeteko soldata garbiaren % 30 bideratzen duen soldatadun pertsona gazte batentzat; 388 eurokoa emakumeen kasuan eta 334 eurokoa gizonen kasuan. Lurraldeen arteko aldeak ere esanguratsuak dira: Gipuzkoan dago alderik handiena 388 eurorekin; gero, Bizkaian 339 eurorekin; eta, azkenik, Araban, 301 eurorekin.

Hori horrela, 2024an, gazteen % 44k uste du urtebeteko epean ezin izango duela emantzipatu, nahi izan arren familiako etxetik ezingo duelako atera, edo nahi izan ez arren itzuli egin beharko duelako. Adin-tarteei erreparatuz gero, 20 eta 24 urte bitarteko gazteen % 50,0ri eta 25 eta 29 urte bitarteko % 40,0i ezerezean geratu zaie emantzipatzeko aurreikuspena.

[18] Alokairuko etxebizitza librearen batez besteko errentaren eta 18 eta 34 urte bitarteko pertsona gazte baten alokairua ordaintzeko gehieneko errentaren artean dagoen aldea da, eurotan. Hori kalkulatzeko alokairuaren errenta gehienez ere hileko soldata garbiaren % 30 izatea hartzen da kontuan.

ONDORIOAK

- 25 eta 29 urte bitarteko gazteen ia bi heren eta 30 eta 34 urte bitarteko lau pertsonatik bat familiako etxean bizi da oraindik.
- Emantzipazio-tasa nabarmen murriztu da azken 12 urteotan.
- Gazteek hileko soldata garbiaren % 64,2 bideratu behar dute merkatu libreko etxebizitza bat erosteko hipotekaren lehen kuota haiek bakarrik ordaintzeko.
- Gazteek hileko soldata garbiaren % 52,4 bideratu behar dute merkatu libreko etxebizitza baten alokairu-errenta haiek bakarrik ordaintzeko.
- Aurreko bi adierazleen kasuan, emakumeen gizonek baino ahalegin handiagoa egin behar dute. Adin-tarteen araberako ehunekoa murriztu egiten da urteak bete ahala.
- Soldatadun gazte baten gehieneko errenta onargarriaren eta merkatuko prezioaren arteko aldea 350 eurokoa da, eta handiagoa da emakumeen eta Gipuzkoan bizi direnen kasuan.
- Gazteen % 44ri ezerezean geratu zaie epe laburrean emantzipatzeko aurreikuspena.

5.5 Osasun integrala eta Prebentzioa

Atal honek gazteen hautemandako osasun integralari eta benetakoari egiten dio erreferentzia; hortaz, dimentsio fisikoa, burukoa, sexuala eta soziala hartzen ditu kontuan. Halaber, ongizatearen sustapenarekin eta bizimodu osasungarriaren ohiturekin lotutako praktikak biltzen ditu, hala nola jarduera fisikoa. Eta kontrara, baita nahi ez diren egoerekin eta arrisku-egoerekin lotutakoak ere, besteak beste, kontsumoak eta mendekotasunak, laneko istripu-tasa, trafiko-istripuak eta suizidioa.

OHARRA: Datuak hainbat urtetakoak dira, eta kasu bakoiztean dago zehaztuta urtea.

2024an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek osasun fisikoarekin duten asebetetze-maila 7,4koa da 0tik 10erako eskalan. Buruko osasunarekin duten asebetetze-mailari dagokionez, 7ra jaisten da. Bi kasuetan, nabarmentzekoa da datua apur bat baxuagoa dela emakumeetan gizonetan baino: osasun fisikoarekin duten asebetetze-maila 7,3 puntukoa da emakumeen kasuan eta 7,6ekoa gizonen kasuan. Buruko osasunarekin duten asebetetze-maila berriz, 7,0 eta 7,5 puntukoa da, hurrenez hurren.

Zehazki, osasun mentalari dagokionez, antsietate eta/edo depresio sintomen prebalentziari erreparatuz gero, 2024an, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 18,9ek azken lau asteetan sintomak izan dituela adierazi du. 2018koarekin alderatuta ia 14 puntu igo da, eta bikoitza baino gehiago da emakume gazteentzat gizon gazteentzat baino: % 12,4 eta % 25,6 hurrenez hurren.

2025ean, gazteen % 90,0k adierazi zuen jarduera fisiko neurritsua edo handia egiten zuela maiz. Bereziki aipagarria da datu horrek denboran zehar izan duen bilakaera; izan ere, 2007an, gizonek emakumeek baino ehuneko altuagoak zituzten eta 2018an, berriz, ehunekoak oso antzekoak izan ziren. Horrek esan nahi du emakumeek jarduera fisiko gehiago egiten dutela.

Urte horretan bertan, obesitate-tasa 2023an % 4,8koa zen, eta gizonen artean emakumeen artean baino apur bat altuagoa izan zen. Tasa horren joera egonkorra da azken 20 urteetako seriea kontuan hartuz. Gainera, gazteen kolektiboaren ehunekoa biztanleria osoaren obesitate-tasaren oso azpitik geratu zen, % 13,1ekoa izan baitzen.

Gazteen osasun fisikoa narriatzen duten ohiturei dagokienez, 2023an, % 17,4k adierazi du tabako- kontsumitzaile ohikoa dela. Nabarmendu behar da tabakoaren kontsumoaren joerak behera egin duela, 15 urtetan erdira baino gutxiagora murriztu baita —2008an iritsi zen maximora, % 36,4—. Kontsumitzen hasteko batez besteko adina 16 urtekoa da.

Alkoholaren arrisku-kontsumoari[19] lotutako kopurua % 34,4koa da 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean, 2017an baino ia 12,5 puntu gutxiago. Alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina 15,4koa da, 2000tik erregistratzen diren datuen ildo berean.

Kalamuaren ohiko kontsumoari dagokionez, % 9,7k adierazi du azken 30 egunetan kontsumitu duela. Kopurua aurreko urteetakoa baino baxuagoa da. Izatez, 2006ko balioaren heren bat da. Emakumeen eta gizonen arteko aldea nabarmena da: 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 5,2k soilik kontsumitu du kalamua aldi horretan, eta gizonen kasuan, % 13,8k. Kalamua kontsumitzen hasteko batez besteko adina 17,1 urtekoa da, aurreko erregistroen oso antzekoa.

Beste mendekotasun mota batzuen kasuan, 2023an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 16,3k izan du erabilera arazotsua Internetekin[20]: % 20,8k emakumeen kasuan eta % 12,1ek gizonen kasuan. Adin-taldeei dagokienez ere, alde esanguratsuak daude: % 22,1ekoa da 15 eta 19 urte bitartean, eta % 8ra jaisten da 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

Sexu-transmisiozko gaixotasunen (STG) infekzio berriei dagokienez, 2022an, nabarmen igo ziren 15 eta 29 urte bitarteko pertsonei diagnostikatutako kasuak; 2.089 izan ziren, duela 5 urtekoen bikoitza eta duela 10 urte baino ia sei aldiz gehiago. Izatez, tasari erreparatuz gero, 2025an, 70,5 izan ziren 10.000 biztanleko; aurreko urtean baino 3,2 puntu gehiago (10.000 biztanleko 67,3) eta 2012an baino 58,8 puntu gehiago (10.000 biztanleko 11,7). 2022an, infekzioen % 63,6 emakumeenak dira eta % 77,1 gizonenak. Pertsona gazteak dira EAEn diagnostikatutako STG kasu berri guztien % 52,8.

GIBari dagokionez 2023an, 37 infekzio berri egon dira, 5 emakumeetan eta 32 gizonetan. Kasu honetan, 10.000 biztanleko tasa 1,3koa da, eta egonkor mantendu da serieari erreparatuz

[19] Azken hilabetean arrisku baxuko atalasea gainditzen duten alkohol-kopuruak kontsumitu dituzten gazteen ehunekoa: astean Alkohol Estandarraren Unitateak (UBE) 14 eta 7 unitate baino gehiago, gizonetan eta emakumeetan hurrenez hurren. Arrisku neurritsua (astean 14,1 eta 27,9 UBE artean gizonen kasuan eta astean 7,1 eta 16,9 UBE artean emakumeen kasuan) eta arrisku handia barne (astean 28 UBEtik aurrera gizonen kasuan eta astean 17 UBEtik aurrera emakumeen kasuan). UBE bat 10 gramo alkohol dira.

[20] Azken urtean Internet modu konpultsiboan erabiltzeko prebalentzia. CIUS (Compulsive Internet Use Scale) eskalarekin neurtzen da, eta 28 puntu edo gehiagoko ebakidura-puntua hartzen da eskalan.

gero. EAEn hautemandako kasu berri guztien artean (127), 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen GBI infekzioak % 29,1 dira.

Sexu-praktika arriskutsuekin lotutako beste ondorioetako bat haurdunaldien borondatezko etetea da. 2023an, 15,3koa izan zen tasa 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen artean eta egonkor mantendu da 2010etik.

Azkenik, gazteen lan-istripuen tasarekin eta/edo heriotza-tasarekin lotutako datuak ere bildu ditugu. 2024an, lanean ari ziren 16 eta 34 urte bitarteko gazteen laneko istripu-tasa 40,9koa izan zen mila pertsonako, eta alde oso handia egon zen emakumeen (1.000tik 22,8) eta gizonen artean (1.000tik 56,9). Gainera, Araba da indizerik altuena duen lurraldea (48,1 istripu 1.000 pertsonako), Bizkaiarekin (1.000ko 40,2) eta Gipuzkoarekin (1.000ko 38,5) alderatuta. Nabarmentzekoa da indize hori murriztu egin dela, eta ia 12 puntu jaitsi dela azken 14 urteetan.

Suiziodioetatik eratorritako heriotza-tasari dagokionez (adin-talde bereko 100.000 pertsonako zenbatzen da), 2022an 100.000 pertsonako 4,5ekoa izan zen tasa 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean; eta alde txiki bat izan zen emakumeen (100.000 pertsonako 3,3) eta gizonen (100.000 biztanleko 5,6) artean. Badirudi murriztu egin dela alde hori aurreko urteekin alderatuta. Seriearen bilakaerak ez du erakusten tasa handitu denik. Aipatu beharra dago adin-tarte horretako tasa biztanleria osoarena baino apur bat txikiagoa dela (100.000 biztanleko 8).

Sexuaren araberako alde gehiena trafiko-istripuen heriotza-tasan dago. Datu orokorra 1,9koa zen arren 100.000 biztanleko, emakumeen kasuan 0ra murrizten da eta gizonen kasuan 3,8ra igo. Nabarmendu behar da seriearen arabera asko jaitsi dela azken urteetan. Gainera, aurreko adierazleak adierazi duen moduan, trafiko- istripuek eragindako heriotza-tasa txikiagoa da gazteen artean biztanleria osoaren kasuan baino (100.000 biztanleko 3,5).

ONDORIOAK

- Gazteek osasunarekin duten asebetetze orokorra nabarmena da, baina aldeak daude emakumeen eta gizonen artean buruko osasunaren balorazioari dagokionez —nesken datuak asebetetze txikiagoa adierazten du—.
- Antsietate eta/edo depresio sintomen prebalentziak ia 14 puntu egin du gora 2018tik, eta hori adierazten duten emakume gazteen kopuruak (% 25,6) bikoiztu egiten du gizonezko gazteen kopurua (% 11,4).
- Intentsitatea neurritsuko jarduera fisikoa egiteko ohitura 20 puntu igo da 2007tik.
- Gazteen obesitate-tasa biztanleria osoarena baino nabarmen txikiagoa da.
- Substantzia toxikoen kontsumoa ohikoagoa da gazteen artean biztanleria osoan baino. Bereziki nabarmentzen da alkoholaren kontsumoa. Halaber, desberdintasun esanguratsuak daude emakumeen eta gizonen artean alkoholaren eta kalamuaren kontsumoari dagokionez.
- Gazteen kopuru esanguratsu batek Interneten erabilera arazotsua egiten du, batez ere emakumeen eta adingabeen kasuan.
- Sexu-transmisioko gaixotasunen infekzioak asko igo dira gazteen artean eta intzidentzia handiagoa da gizonen artean.
- Haurdunaldiaren etete boluntarioen balioak egonkor mantendu dira azken 10 urteetan.
- Laneko istripuen tasa 12 puntu murriztu den arren azken 14 urteetan, gizonen kopuruak emakumeena dexente bikoizten du.
- Sexuen arteko desberdintasun hori ere agerikoa da suizidioagatiko heriotza-tasaren eta trafiko istripuek eragindako heriotza-tasaren kasuan. Tasa horiek nabarmen txikiagoak dira gazteen artean biztanleria osoaren artean baino.

5.6 Euskara

Atal honetan gazteen euskararen ezagutza, ohiturak eta espazio publiko eta pribatuetan egiten duten euskararen erabilera aztertu ditugu.

OHARRA: Datuak hainbat urtetakoak dira, eta kasu bakoiztean dago zehaztuta urtea.

2021ean, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 31rentzat euskara edo euskara eta gaztelania ziren lehen hizkuntzak. 2011tik, igotzen jarraitzen du joera horrek —urte horretan, datua % 26koa zen—. Lurraldeen arteko aldeak esanguratsuak izan ziren: Gipuzkoako gazteen % 48,4rentzat euskara zen lehen hizkuntza; Bizkaiko % 23,7rentzat eta Arabako % 15,5entzat.

Euskararen presentziaren, ohituraren eta erabileraren lurralde-joera hori etengabekoa da eta arlo honetako adierazle guztietan islatzen da. Hala, kasu batzuetan alde oso nabarmenak daude.

Gazteen euskararen ezagutza % 80,5ra iristen zen 2024an, eta sexuen artean desberdintasun apur bat zegoen: emakumeen kasuan % 83,0 eta gizonenean % 78,0. Lurraldeari dagokionez, Gipuzkoa da hizkuntza dakiten gazte gehien biltzen dituen lurraldea, % 86,8ekin; gero, Bizkaia, % 77,6rekin eta Araba % 73,7rekin. Euskara dakitenen ehunekoa bikoiztu egin da 1999tik, orduan % 40,2koa baitzen.

Euskara komunikazio-hizkuntza gisa zuten unibertsitatez kanpoko ikasleen kasuan, 2024ean % 69,2 ziren. Adierazle horretan ere desberdintasunak daude lurraldeen artean: Gipuzkoan, % 83,0koa da datua; Bizkaian, % 64,5koa eta Araban, % 54,8ekoa.

Hezkuntza formalean ez ezik, espazio informaletan ere igo egin da euskararen erabilera.

2021ean, 16 eta 24 urte bitarteko pertsonen % 37,9k euskara erabiltzen zuen lagunekin komunikatzeko. 13 puntu igo da datu hori 20 urtean. Kasu honetan, alde handia dago Gipuzkoan; % 63,6k erabiltzen zuen euskara, eta Bizkaian eta Araban, berriz, % 24,5ek eta % 27,5ek, hurrenez hurren.

Euskararen erabilera handitu den beste arloetako bat sare sozialena izan da. 2025an, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 43,6k adierazi du hizkuntza hori erabiltzen duela, aurreko urtean baino lau puntu gehiagok. Gipuzkoaren kasuan, datu hori % 54,8ra iristen da.

Euskaraz irakurtzeko ohiturari dagokionez, gazteen % 34,5k adieraz du azken hiru hilabeteetan euskarazko libururen bat irakurri duela, aisialdiagatik, lanagatik edo ikasketengatik.

Azken hiru adierazle horietan, Gipuzkoan euskararen presentzia, erabilera eta ohitura handiagoa izateaz gain, emakumeek gizonek baino ehuneko altuagoak dituzte. Hurrenez hurren: Lagunekin euskara erabiltzean, % 44,9 eta % 31,4; sare sozialetako erabileran % 42,6 eta % 38,8; eta irakurtzeko ohituraren kasuan % 32,8 eta % 26,2.

ONDORIOAK

- Adierazle gehienek erakusten duten moduan, euskararen presentziarekin, erabilerarekin eta ohiturarekin lotutako datuak nabarmen igo dira azken 20 urteetan.
- Aztertutako adierazle guztietan, Gipuzkoa da oraindik ere euskararen ezagutza eta erabilera errotuen dagoen lurraldea eta igotzen jarraitzen du.
- Emakumeek kopuru altuagoak dituzte euskararen ezagutzari eta erabilerari dagokionez, bai hezkuntza formalaren arloan, bai aisialdiko eta denbora libreko jardueretan zein harreman pertsonaletan.

5.7 Aisialdia

Arlo honetan gazteek aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko egiten dituzten praktika eta jarduera ohikoenak jaso ditugu. Hortaz, aukeratutako aisialdi-ereduaren ezaugarriak, zein esperientzia kulturaletarako sarbidea eta kontsumoa barne hartu dira.

OHARRA: Datuak hainbat urtetakoak dira, eta kasu bakoiztean dago zehaztuta urtea.

2025an, 6,9 puntuko balorazioa eman diote 15 eta 29 urte bitarteko gazteek denbora librearekin duten asebetetze-mailari, 0tik 10erako eskalan. Emakumeen puntuazioa (6,7) gizonena baino apur bat txikiagoa da (7,1).

Parte-hartze aktiboarekin lotutako adierazleei erreparatuz gero, 2025ean, gazteen % 37,9k jarduera artistikoei eskaintzen zien aisialdia, hala nola argazkilaritzari, pinturari, instrumentu bat jotzeari... Datu hori bikoiztu egin da 2008tik, baina, ziurrenik, hazkunde horretan eragina izan du 2020ko itxialdiak, hortaz, tentuz hartu beharko da balio hori eta bilakaera aztertu. Desberdintasunak daude adin-tarteari dagokionez, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen kasuan % 40,2koa zen eta 25 eta 29 urte bitartekoen kasuan, % 37,9koa. Gainera, emakumeek (% 44,8) gizonek baino hein handiagoan (% 31,1) eskaini zioten aisialdian jarduera artistiko mota horiei.

2023an, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 17,1ek ematen du bere denbora librea, edo eman izan du iraganean, Interneten edukiak sortzen. Kasu honetan, hein handiagoan jarduten dute gizonek (% 18,8) emakumeek baino (% 15,3). Bereziki aipatzekoa da 15 eta 19 urte bitarteko adin-tartea, eduki birtual gehien sortzen dituztenak baitira: % 22,5ek sortzen ditu edukiak, 25 eta 29 urte bitartekoen % 15,3rekin alderatuta.

Kirola modu erregularrean egin dutenei dagokienez —astean 3 aldiz edo gehiago—, 2025an % 59,1 izan dira eta ia 9 puntuko aldea dago emakumeen (% 54,4) eta gizonen (% 63,3) artean. Adin-tarteei erreparatuz gero, 15 eta 19 urte bitarteko pertsonek (% 66,4) kirol gehiago egiten dute 20 eta 24 urte bitartekoek (% 53,2) eta 25 eta 29 urte bitartekoek (% 57,2) baino.

Kultur kontsumoarekin lotutako adierazleei dagokienez, 2024an, gazteen % 53,2 joan zen kontzertu batera kontsulta egin aurreko hiru hilabetetan. % 67,8 zinemara joan zen, % 44,3 museo batera eta % 23,8 antzerkira. Halaber, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonak gehiago joaten dira kontzertuetara, zinemara, museoetara eta antzerkira biztanleria osoarekin alderatuta, nabarmen murrizten baitira ehunekoak: % 4,7 joaten da kontzertuetara; %12,4 zinemara; % 10 museotara eta % 2,6 antzerkira.

Bakarrik egiten diren aisialdiko eta denbora libreko beste jarduera batzuei dagokienez, irakurtzeko ohitura eta egunean hiru sare sozial edo gehiago erabiltzeko ohitura nabarmentzen dira. 2021ean, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen irakurtzeko ohitura % 48,8koa izan zen. Azken hilabetean aisialdiagatik liburu bat irakurri izana adierazi duten gazteen ehunekotik kalkulatzen da tasa hori, eta aldea nabarmena da emakumeen (% 54,4) eta gizonen artean (% 63,3).

Bestalde, 2025an, gazteen % 71,7k adierazi du hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituela egunean. Adierazle horren ehunekoa izugarri igo da 7 urtetan, 2016tik bikoiztu egin baita. Halaber, alde handiak daude adin-taldeen arabera: 15 eta 24 urte bitarteko pertsonen % 74,3ek hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen ditu egunean. Kopuru hori % 66,3ra murrizten da 25 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean.

ONDORIOAK

- Gazteak nahiko asebeteta daude aisialdiarekin eta denbora librearekin.
- Adin-tarterik gazteenean dauden pertsonak, 15 eta 19 urtekoak, dira aisialdia mundu birtualera gehien bideratzen dutenak: bai edukiak sortuz, bai egunero sare sozialak erabiliz.
- Pertsona gazteen erdiak baino gehiagok egiten du kirola modu erregularrean, baina 9 puntuko alde nabarmena dago emakumeen eta gizonen artean, eta emakumeak dira gutxiago egiten dutenak.
- Nabarmentzekoa da gazteek kontzertuetara, zinemara, museoetara eta antzerkira joateko duten joera, biztanleria osoarena baino askoz ere handiagoa baita kasu guztietan.

5.8 Parte-hartzea

Atal honek pertsonek bizitza komunitarioan eta sozialean parte hartzeko dituzten mekanismoak jasotzen ditu, bai aurrez aurrekoak, bai birtualak, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez. Parte- hartze horren araberakoa da iritzi publikoa eta gizarte-eredua eratzeko eragile aktibo izatea, eta, ondorioz, eragiteko eta eraldatzeko benetako gaitasunak izatea. Oso lotuta dago hori denbora libre hezitzailean sustatzen diren balioekin.

OHARRA: Datuak hainbat urtetakoak dira, eta kasu bakoiztean dago zehaztuta urtea.

2025an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen asoziazionismo-tasa % 43,7koa da, handiagoa gizonetan (% 43,7) emakumeetan baino (% 43,4). Hein handi batean, gizon gehiago daudelako kirol-elkarteetan. Datu horrek erakusten du balioak egonkorrak izan direla 2000tik. Desberdintasun esanguratsuak daude adin-taldeetan: 15 eta 19 urte bitarteko pertsonen % 49,2 elkarteren bateko kide da, 25 eta 29 urte bitartekoen artean, berriz, % 40,9. Aurreko kasuan bezala, desberdintasun horren arrazoia da 15 eta 19 urte bitarteko pertsona gehiago direla kiroletako elkarte edo klubetako kide.

2025ean, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 46,8k berretsi du gazte-elkarte bati edo aisialdiko elkarte bati lotuta zegoela edo egon zela. Araba nabarmentzen da % 47,6rekin, eta atzetik Bizkaia (% 44,4) eta Gipuzkoa (% 46,7,3). Datuak handiagoak ziren emakumeen kasuan (% 44,6), gizonekin alderatuta (% 47,4).

Parte-hartze motari erreparatuz gero, 2025an, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 14,9k adierazi du boluntariotza-jarduerak egiten dituela. Joera hori goranzkoa izan da azken 15 urteetan —2008ko tasaren bikoitza baino apur bat gehiago—. Asoziazionismo-tasaren kasuan bezala, adinak gora egin ahala, boluntariotza lanetako parte-hartzea jaitsi egiten da: 15 eta 19 urte bitarteko adin-tartean % 15,7koa da eta 25 eta 29 urte bitarteko tartean, % 14,3koa.

Gazteen parte-hartze sozialerako beste moduetako bat da mobilizazioetara joatea. 2025an, gazteen % 63,4ek adierazi zuen azken urtean mobilizazioren batean izan zela. Gehiago izan ziren emakumeak (% 73,8) gizonak baino (% 53,4). Desberdintasun hori mobilizazio feministetan edo genero-indarkeriaren aurkakoetan parte hartzeagatik da, ohikoagoak baitira emakumeen artean. Bestalde, adin-tarterik gazteenak izan dira parte- hartze mota horretan gehien inplikatu direnak: 15 eta 19 urte artean, % 54,9 mobilizatu zen eta 25 eta 29 urte artean, % 43,2.

Halaber, emakume gazteek aktibismo handiagoa egiten dute sareetan. Izan ere, 2022an, emakumeen % 30,3k adierazi zuen eztabaida edo salaketa sozialen bat hasi edo sustatu zuela Interneten edo sare sozialetan testu bat idatziz edo irudi edo bideo bat zabalduz. Gizonen kasuan, % 26,8k. Adinak gora egin ahala, igo egiten da interneten eztabaidak edo salaketa sozialak hasi edo sustatu dituzten gazteen kopurua: % 21,5 dira 15 eta 19 urte bitartekoen kasuan eta % 33,1 20tik 24ra bitartekoen kasuan.

Bestalde, parte-hartze politikoari dagokionez, 2020an, 18 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 85,7k bozkatu zuen aurreko hiru urteetan egindako hauteskundeetan.

Azkenik, 2025an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 70,2k uste du erakundeek ez dutela haien iritzia kontuan hartzen. Datu horrek handia izaten jarraitzen du eta adina igo ahala gora egiten du: 15 eta 19 urte bitarteko pertsonen % 63,1ek uste du hori eta 25 eta 29 urte bitartekoen % 76,1k.

ONDORIOAK

- Adin-tarterik gazteeneko pertsonak (15 eta 19 urte artean) dira asoziazionismoaren, boluntariotzaren eta parte hartzeko beste moduen alde gehien egiten dutenak.
- Asoziazionismoaren tasa boluntariotzak egiten dituzten pertsonen hirukoitza izan arren, lehenengoa egonkor mantendu da 20 urtetan zehar, eta boluntariotza-lanak egiten dituzten gazteen kopuruak aldiz igotzen jarraitzen du duela 15 urtetik.
- Parte-hartze sozialerako moduei dagokienez, gazteen erdia kalean mobilizatu da azken urtean eta ia heren bat sareetan. Bi kasuetan, emakumeak aktiboagoak izan dira.
- Adin-tarterik gazteeneko gazteak (15-19 urte) askoz gehiago mobilizatu dira aurrez aurre (% 54,9) birtualki baino (% 21,5). Adin handiagoko gazteen kasuan, aurrez aurre mobilizatzen diren pertsonak gehiago dira online mobilizatzen direnak baino, baina bi balioen arteko aldea nabarmen txikiagoa da.
- Gazte gehienek bozkatu egiten dute.
- Gazteek uste dute instituzioek ez dituztela kontuan hartzen. Uste hori nabarmen handitzen da adinarekin.

5.9 Berdintasuna Emakumeen eta Gizonen artean

Atal honetan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun- eta diskriminazio-egoerak sortzen diren errealitatearen dimentsioak aztertuko ditugu. Halaber, emakumeak desabantailan dauden esfera pertsonal, sozial eta ekonomikoak ere ikusaraziko ditugu, benetako aukera-berdintasuna baldintzatzen baitute. Halaber, babesgabetasun- eta arrisku-egoerak islatzen dituzten jokabide matxistak eta sexistak adieraziko ditugu, esaterako, emakumeen aurkako indarkeria.

OHARRA: Datu guztiak 2022koak dira, beste urteren bat adierazi ezean.

2024ean, gazteen % 77,4k feministatzat du bere burua eta 20 puntutik gorako aldea dago emakumeen (% 85,9) eta gizonen artean (% 69,1). Halaber, alde handi hori egonkor mantendu da adin-tarte guztietan, eta bereziki esanguratsua da 15 eta 19 urte bitarteko adin-tartean: % 71,8.

2025an, 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 52,8 diskriminatua sentitzen da emakume izateagatik; gizonen kasuan, % 23,4k dio diskriminatua sentitzen dela gizon izateagatik. Zehazki, lan-mundura sartzeko genero- desberdintasuna hautematen dute emakumeen % 48,5k eta gizonen % 23,1ek. Joera hori mantendu egin zen 2022ra arte —2008an % 23,3koa zen— eta urte horretan bikoiztu egin zen.

Soldata-arrakalari dagokionez, hileko batez besteko soldata garbien arteko desberdintasuna -179 eurokoa da 18 eta 34 urte bitarteko emakumeen eta gizonen artean. Soldata hori 50 € eskas murriztu da 2010etik, -248 eurokoa baitzen orduan.

Etxetik kanpoko lanaren baldintzetan dauden desberdintasunei buruzko datuez gain, eta etxeko lanen banaketan dauden desberdintasunen erakusle, 2025an, 16 eta 34 urte bitarteko okupatutako emakumeen % 90,8k hartzen zuen parte etxeko garbiketan. Adin horretako gizon okupatuen kasuan, aldiz, ehuneko hori 19,4 puntu jaisten zen (% 71,4).

Bestalde, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako adierazleen kasuan, emakume gazteen % 69,7ek adierazi du beldurra ematen diola gauez kalean bakarrik ibiltzeak. Alde handia dago gizonen datuarekin alderatuta; % 22,5k soilik du gauez kalean bakarrik ibiltzeko beldurra. 2016tik, asko igo da beldur hori duten emakumeen kopurua, % 34,2tik % 69,7era; baita gizonena ere, % 3,9tik % 22,5ra igo baita. Beldur mota horrekin lotutako kopurua altua den arren adin-tarte guztietan, zenbat eta gazteago, orduan eta beldur gehiago dute: 15 eta 19 urte bitarteko emakumeen % 50,1k du beldurra, eta 25 eta 29 urte bitartekoen kasuan, % 41,1k.

Sare sozialetako sexu-jazarpenari dagokionez, 2025an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 14,6k adierazi du noizbait pairatu duela. Emakumeen artean, gizonenaren bikoitza (% 20,3) da kopuru hori (% 9,1).

Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria-tasa 2024an 1.000 pertsonako 10,3koa izan da gazteen artean. Zehazki, adierazle horrek adierazten du 15 eta 29 urte bitarteko 1.000 emakumetik zenbatek jarri duten salaketa indarkeriagatik.

ONDORIOAK

- Emakume gazteen kopuru altu batek, % 85,9k, uste du feminista dela.
- Emakumeen % 52,8 diskriminatua sentitzen da emakume izate hutsagatik.
- Genero-desberdintasunak daude lan arloan: lanera sartzeko garaian, gizonek baino bi aldiz emakume gehiagok hautematen dute desberdintasun hori eta emakumeen hilabeteko soldata garbia gizonena baino 179 euro baxuagoa da.
- Gazteen arteko etxeko zereginen banaketan, karga emakumeen gain erortzen da hein handi batean.
- Emakumeen ia hiru herenek beldurra sentitzen du gauez kalean bakarrik ibiltzean, batez ere gazteenek.
- Gazteen % 14,6k sexu-jazarpena jasan du noizbait sare sozialetan. Emakumeek gehiago jasaten dute hori, lautik batek ia.

5.10 Dibertsitatea eta Bizikidetza

Atal honek gazteen artean dauden askotariko profilak adierazten dituzten baldintzak jorratzen ditu. Halaber, profilen arteko eguneroko harremanean dauden erraztasunak eta zailtasun espezifikoak ere jaso ditugu: bizikidetzaren erronkak.

OHARRA: Datu guztiak 2022koak dira, beste urteren bat adierazi ezean

2023an, 15 eta 29 urte bitarteko atzerriko pertsonen % 53,3 diskriminatua sentitu da Euskadin bere jaioterriagatik.

Ildo horretatik, 2025an 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 1,8ek arbuiatu egiten du atzerriko langileak sartzea eta % 26,3k uste du EAEn atzerritar gehiegi daudela. Sexuaren edo lurraldearen araberako desberdintasunei erreparatuz gero, bi adierazleen kasuan, gizonen kopuruak emakumeenak baino apur bat altuagoak dira: gizon gazteen % 2,2ek eta emakumeen % 1,3ek arbuiatzen du immigrante langileak sartzea; eta gizonen % 30,7k eta emakumeen % 21,6ek uste du EAEn atzerritar gehiegi daudela. Azken kasu horretan, Bizkaian bizi direnek (% 28,2) Gipuzkoarrek (% 26,0) eta Arabarrek baino (% 24,2) eta Araban hein handiagoan hautematen dute atzerritar gehiegi daudela. Euskadin atzerriko pertsona gehiegi daudela uste dutenen kopurua 2020koaren bikoitza den arren, ehuneko horiek 2014-2016 aldian erregistratutakoak baino nabarmen baxuagoak dira.

Bestalde, 2025ean LGTBIQ+ eskubideekin lotutako adierazleei dagokienez, gazteak ados daude hein oso handi batean sexu bereko pertsonen ezkontzekin (% 92,1) eta legezko sexu-

aldaketarekin (% 81,6). Bi eskubideen aldekoagoak dira emakumeak (% 96,8 eta % 86,1 hurrenez hurren) gizonak baino (% 89,9 eta % 79,8, hurrenez hurren).

ONDORIOAK

- Euskadin bizi diren atzerriko pertsonen erdia baino gehiago diskriminatuta sentitu dira noizbait jaioterriarengatik.
- Immigranteak sartzearekiko arbuioa hutsala den arren EAEko gazteen artean, % 26,3k uste du EAEn atzerriko pertsona gehiegi daudela. Babes- eta tolerantzia-maila orokorrak handiak diren arren, bi kasuetan, emakumeen datuek tolerantzia handiagoa erakusten dute.
- Gazteek hein handiagoan babesten dituzte LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideak, bai sexu bereko pertsonen ezkontza, bai legezko sexu-aldaketa. Laguntza-maila orokorrak handiak diren arren, bi kasuetan emakumeek babes handiagoa erakusten dute.

5.11 Jasangarritasuna

Atal honek erreferentzia egiten dio gazteek ingurunearen, ekologiaren eta ingurumenaren zaintzaren arloan duten sentsibilizazioari eta kezkari. Baita babesteko jarduketekiko adierazitako erantzukizunari ere, esaterako, kontsumo kritikoa, arrazionala eta bidezkoa egitea; eta partekatutako formulen eta ez hain kutsakorren bidez mugitzeari ere; esaterako, garraio publikoa eta bizikleta erabiltzea.

OHARRA: Datu guztiak 2023koak dira, beste urteren bat adierazi ezean.

2024an, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 65,1k uste du oso edo nahiko ekologista dela. Adin-taldeei dagokienez, 15 eta 19 urte bitartekoen % 64,7k uste du ekologista dela, eta 25 eta 29 urte bitartekoen % 69,4k.

Jardunbide ekologista eta jasangarriei erreferentzia egiten dieten adierazleen datuei erreparatuz gero, 2025ean 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 45,1k adierazi du kontsumo jasangarriarekin[21] lotutako jarrerak dituela. Ohikoagoak dira jarrera horiek emakumeen artean (% 45,2) gizonen artean baino (% 45,0).

Mugikortasun jasangarrirako formulen erabilerari dagokionez, 2025ean gazteen % 51,0k adierazi du garraioa publikoa erabiltzen duela, eta 6,8 puntuko aldea dago emakumeen alde (% 54,4) gizonekin alderatuta (% 47,6). Biztanleriaren kontzentrazioak, lurralde bakoitzeko garraio publikoa artikulatzeko formulek edo orografiak arlo honetan eragina dutela kontuan

[21] Kontsumo jasangarriarekin lotutako hurrengo bost portaeratik normalean gutxienez lau egiten dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa: ontzi edo bilgarri gutxi dituzten produktuak erosten ahalegintzea, poltsa edo erosteko orga propioa eramatea, etxeko hondakinak gaika sailkatzea, uraren kontsumoa mugatzea eta garraio publikoa edo ibilgailu partekatua erabiltzea.

izanda, lurraldeen artean dauden desberdintasun esanguratsuak aipatu behar dira. Hala, Bizkaian erabiltzen dute gehien garraio publikoa 15 eta 29 urte bitarteko pertsonek (% 59,0), Gipuzkoan % 45,0ek erabiltzen du eta Araban % 36,6k.

Hala ere, kopuru horiek aldatu egiten dira ikasteko edo lan egiteko lekura joateko egunero edo ia egunero bizikleta erabiltzeari buruz galdetuz gero. 2025an, gazteen % 8,6ek erabiltzen du bizikleta. Araban, % 27,0k, Gipuzkoan % 7,2k eta Bizkaian, % 3,9ek. Gazte gehienak Gasteizen kontzentratuta egoteak, hiriaren orografiak eta bidegorrien sarearen antzinatasunak eragina dute bizikletaren erabilera errotuagoa egon dadin gazteen artean. Sexuari dagokionez, emakumeek gizonek baino nabarmen gutxiago erabiltzen dute bizikleta garraiobide gisa normalean: % 7,5 eta % 9,6 hurrenez hurren. Kopuru horiek erakusten dute beherakada esanguratsua izan dela 2021eko datuekin alderatuta; ziurrenik, garai hartan pandemia oso aktibo zegoenez, gazte askok erabaki zutelako bizikleta erabiltzea garraio publikoa beharrean, kutsatzeko arriskua gutxitzeko.

Mugikortasun-formula ez hain kutsagarri horien goranzko joera esanguratsua da: gazteen garraio publikoaren erabilera ia 18 puntu igo da 15 urtetan, aldiz, bizikletarena, 3,3 puntu aldi horretan bertan. Nabarmentzekoa da adinak gora egin ahala, gutxiago egiten dela formula horien alde. Hala ere, desberdintasuna are esanguratsuagoa da garraio publikoaren kasuan: 15 eta 19 urte bitarteko gazteen kasuan % 52,4k erabiltzen du eta 25 eta 29 urte bitartekoen kasuan, % 41,4ek.

ONDORIOAK

- Hiru gaztetik bik diote ekologistak direla eta bostetik bik kontsumo eta mugikortasun jasangarriaren portaerak dituzte.
- Adin-tarterik gazteenean (15-19 urte) gainerako tarteetan baino gazte gutxiagok uste dute ekologistak direla, eta haien kontsumo-portaeretan ere islatzen da hori.
- Emakumeek kontsumo jasangarriagoa egiten dute eta gizonek baino gehiago erabiltzen dute garraio publikoa.
- Desberdintasun esanguratsuak daude lurraldeen artean gazteen mugikortasun-hautuetan: Bizkaian erabiltzen dute gehien garraio publikoa eta Araban bizikleta.
- Mugikortasun jasangarrirako joera igo egin da azken 15 urteotan.

5.12 Egungo egoeraren eta etorkizuneko aurreikuspenen balorazioa

Azken atal honetan gazteen egungo egoeraren balorazioaren eta etorkizuneko bizi-proiektuetan dituzten aurreikuspenen pertzepzioa ikusarazten duten datuen erradiografia egingo dugu.

OHARRA: Datu guztiak 2023koak dira.

0tik 100era bitarteko eskalan, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen asebetetze pertsonalaren maila 71 puntukoa da. Adierazle horrek joera egonkorra islatzen du. Datuak altuagoak izan dira 2019ra arte eta beheranzko joera izan da 2020tik.

Joera hori hautematen da baita ere egungo egoeraren gaineko balorazioan; 15 eta 29 urte bitarteko pertsonek 67 puntuko balorazioa eman diote 100etik. Kasu honetan, aldea dago adin-tarteen artean: adinak gora egin ahala, balorazioa jaitsi egiten da. 15 eta 19 urte bitartekoen kasuan, 71 puntuko balorazioa eman diote orainari, eta 25 eta 29 urte bitarteko pertsonek 66 puntu. Balorazio horrek goranzko bilakaera izan du 2019ra arte eta jaitsi egin da 2020an eta hurrengo urteetan. 2023ko datua bi puntu hobetu den arren, oraindik ez dira Covid-19aren pandemia aurreko datuak berreskuratu.

Bestalde, haien adinean gurasoak baino egoera hobean daudela uste duten galdetuta, % 49,6 ados dago baieztapen horrekin. Nabarmentzekoa da 2008tik 27,2 puntu jaitsi dela zifra hori eta zehazki, 45,6 puntura arte 25 eta 29 urte bitarteko pertsonen kasuan. Adin-tarteen arteko emaitzetan dauden aldeak esanguratsuak dira: 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 63,9k berretsi du hori, 20 eta 24 urte bitartekoen % 52,3ek eta 25 eta 29 urte bitartekoen % 31,2k.

Alde horretatik, gazteek etorkizunean jartzen duten konfiantza[22] 56 puntukoa da 100etik. Aurreko urtekoa baino 3 puntu altuagoa den arren, 2017an baino 19 puntu txikiagoa da oraindik ere eta nabarmen jaitsi da 2018tik.

ONDORIOAK

- Oraingo egoeraren balorazioarekin eta etorkizuneko aurreikuspenekin lotutako adierazle guztiek beheranzko joera izan dute 2020tik, Covid-19aren pandemia hasi zenetik. Adierazle horiek hobetze aldera egiten hasi diren arren, oraindik ez dira pandemia aurreko balioetara iritsi.
- Egoera propioa eta gurasoek haien adinean zutena alderatuz, 15 eta 19 urte bitarteko pertsonek baloratzen dute ondoen egoera propioa eta 25 eta 29 urte bitartekoek okerren.

[22] Gazteen eta Euskadiren egoera pertsonalarekin lotutako bost urtera begirako aurreikuspenei egiten diete erreferentzia.

6. ERRONKAK ETA DESAFIOAK

Jarraian atal bakoitzeko ondorioetatik ateratako erronka eta desafio nagusiak identifikatu ditugu. Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategiaren ardatzak identifikatzeko eta lantzeko abiapuntua izango dira erronkok.

TESTUINGURU DEMOGRAFIKOA

- Gazteek nahi duten adinetik gertuago dagoen adinean eduki ahal izatea ondorengoak.

HEZKUNTZA

- Gazteek goi-mailako ikasketak egin ditzaten sustatzea.
- Bere garaian prestakuntza arautuko maila altuagoetan ikasi ezin izan zuten gazteek edozein adinetan ikasi ahala izateko aukerak eta alternatibak sustatzea.
- EAEko gazteen artean etengabeko prestakuntza/trebakuntza sustatzea (STEAM hezkuntza, konpetentzia digitalak, prestakuntza duala, praktika-programak...), lan-merkatu aldakorrari aurre egin ahal izateko eta, hala, etorkizuneko enpleguetarako prestatzeko.
- Hirueletasuna sustatzea gazteen artean, bereziki hezkuntza formaleko ibilbidea utzi dutenen artean.

ENPLEGUA ETA GIZARTE KOHESIOA

- Gazteek kalitatezko enpleguetarako sarbidea izan dezaten eta enplegu horiek mantendu ditzaten sustatzea.
- Espiritu ekintzailea sustatzea.
- Norbere kontura lan egitea sustatzea, gazteentzako erakargarriak, motibatzaileak eta seguruagoak diren formulekin.
- Gazteek bizi-proiektu autonomoa izateko eta dirulaguntza publikoaren edo familia-sareen laguntzaren mende egon behar ez izateko formulak aztertzea.
- Pobrezian edo pobrezia-arriskuan dauden familietan pobrezia eta bazterkeria belaunaldi batetik bestera transmititu dadin ekiditea.

EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

- Laneko prekarietatea/soldata baxuak/etxebizitzaren prezio altua triangeluan eragitea, emantzipazio- tasa igotzeko epe laburrera begira, eta, hala, gazteen emantzipatzeko batez besteko adina murrizteko.
- Familiako etxetik kanpo dauden gazteen babes-neurriak ezartzea, emantzipazio-esperientzia ezerezean gera ez dadin.
- Gazteentzako erakargarriak eta egonkorrak izan daitezkeen emantzipazio-formula berriak aztertzea.

OSASUN INTEGRALA ETA PREBENTZIOA

- Gazteen buruko osasuna eta emozionala modu integralean hobetzea, hezkuntzaren eta prebentzio eta esku-hartze neurri egokien bidez.
- Jarduera fisikoa egiteko eta gazteek bizitza osasungarrirako ohiturak hartzeko aukera eta alternatiba gehiago eta hobeak eskaintzea, aukera-berdintasunari bereziki erreparatuz.
- Gazteen osasunerako ohitura kaltegarriekin lotutako indizeak murriztea, bereziki alkoholaren eta kalamuaren kontsumoarekin lotutakoak.
- Sexu-ohitura osasungarriak sustatzea gazteen artean, sexu-harreman arriskutsuak murrizteko.
- Laneko istripu-tasa murriztea langile gazteen artean.
- Suizidioen eta trafiko-istripuen heriotza-tasa murriztea gazteen artean.

EUSKARA

- Euskararen erabilera sustatzea eta hobetzea gune informaletan eta pribatuetan, bai eta aisialdiko eta denbora libreko jardueretan ere.
- Euskararen erabilera indartzea, errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta.

AISIALDIA

- Aisialdirako aukera gehiago eskaintzea, gazte guztiek beren denbora libreaz gozatzeko aukera izan dezaten, aukera-berdintasunean eta irisgarritasun osoan.
- Denbora libre hezitzailearekin lotutako elkarteen ehundura lagundu eta indartzea.
- Aisialdiko alternatibak sustatzea ingurune digitaletik, elektronikotik edo Internetetik kanpo; eta aurrez aurre elkartzea eta pertsonen arteko trukea sustatzea.

PARTE HARTZEA

- Nerabezaroan partaidetzaren kultura sustatzea, etapa horretan ohitura hartzen laguntzeko eta gaztaroan ohitura hori mantendu ahal izateko.
- Gazteen inplikazioa sustatzea asoziazionismoan eta boluntariotza-lanetan, eta adinak gora egin ahala konpromisoari euts diezaioten bermatzea.
- Gazteek politika publiko orokorren diseinuan, prestakuntzan eta balorazioan parte hartu ahal izateko bideak garatzea eta, batez ere, zuzenean eragiten dieten politika horietan.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

- Gizon gazteek benetako berdintasuna eraikitzeko eta indarkeria matxista ezabatzeko duten konpromisoa, inplikazioa eta benetako eragina sustatzea.
- Emakumeen aurkako diskriminazioa eta desberdintasunak murrizteko neurriak ezartzea, lan arloan batez ere.
- Herritarren segurtasun-estrategiak berraztertu, gauean batez ere, segurtasun-sentsazio handiagoa lortzeko gazteen artean.

DIBERTSITATEA ETA BIZIKIDETZA

- EAEn bizi diren atzerriko gazteen integrazioa sustatzea arlo guztietan.
- Gazteek immigranteekiko duten pertzepzioa hobetzea.
- Gazteek LGTBIQ+ pertsonen eskubideekiko adierazten duten babesa eta tolerantzia indartzea.
- Jazarpena ekiditea sare sozialetan eta jazarpena jasaten duten gazteentzako babes-neurriak ezartzea.

JASANGARRITASUNA

- Gazteek ingurumenarentzat jasangarriak diren ohitura eta estiloak aplikatzea eguneroko jardunbideetan.
- Gazteen artean mugikortasun-formula jasangarriak eta ez hain kutsakorrak sustatzea.

7. PRINTZIPIOAK, IKUSPEGIAK ETA IRIZPIDEAK

Atal honetan jasotzen dira Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategia ezartzeko gidari izango diren printzipioak, ikuspegiak eta irizpideak. Horiek guztiak bat datoz Euskadiko *Gazteria Legearekin:*

a) Gazteen eskubideak bermatzea, haien izaera edo baldintzak edozein direla ere, horiek eraginkortasunez egikaritzeko babesa eta erraztasunak emanda.

b) Gazteek euskal gizartearen garapen politiko, sozial, kultural eta ekonomiko jasangarrian aktiboki parte har dezatela sustatzea.

c) Gazteen autonomia eta emantzipazioa posible egingo duten baldintzak sorraraztea, beren bizitza- proiektu indibidual eta kolektiboa eraiki ahal izan dezaten, haurtzaroan hasi behar den autonomia eta partaidetza gero eta handiagoko prozesuaren amaiera moduan.

Zehazki, Estrategia honen funtsezko printzipioak edo oinarriak hauek dira:

Gazteen egoerari arreta integrala ematea, ez diskriminatzeko eskubidea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa, gizarteratzeko eta ekintza positiborako eskubidea, gazteen ahalduntzea, parte- hartzea, politika publikoen zeharkakotasuna, lurraldetasuna, gertutasuna eta deszentralizazioa, gardentasuna, ebaluazioa eta informazioaren demokratizazioa.

Gainera, beste printzipio orokorrago batzuk ezarri dira eta zeharkako ikuspegitzat har daitezke. Gazteentzako politikak sustatzeko garaian kontuan izan beharreko printzipio guztiak dira horiek: *genero-ikuspegia, aukera- berdintasuna, gazteen parte-hartze demokratikoa, balioen sustapena, euskara, kulturartekotasuna, atzerritarren erabateko integrazioa eta gizarteratzea, irisgarritasun unibertsala, gizarteratzea eta bizitza independentea.*

Indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, Estrategiak modu espezifikoan eta artikulatuan heltzen die zeharkako gai horiei, eta haien diseinu estrategikoan integratzen ditu, hainbat neurri zehatzen bidez:

- Lehenik eta behin, genero-berdintasuna printzipio gidari gisa ezartzen da, emakume eta gizon gazteen arteko desberdintasunak murriztera bideratutako ekintzak ezarriz funtsezko eremuetan, hala nola enpleguan, errentan eta partaidetza sozial eta politikoan.

- Estrategiaren ardatz nagusia gazteen emantzipazioa bada ere, erresilientzia ere bost ardatz estrategikoetako bat da. Gizarteratze horrek aukera ematen du gizartearen eta ingurumenaren iraunkortasuna gazteen garapen integralaren funtsezko osagai gisa lantzeko.

- Hizkuntza-arloan, Estrategia bat dator Eusko Jaurlaritzak gazteen bizitzako gune guztietan euskararen erabilera sustatzeko duen konpromiso instituzionalarekin, eta arreta berezia eskaintzen dio aisialdian, prestakuntzan eta parte-hartzean duen presentziari.

- Era berean, estrategia plangintza estrategikoko ekosistema zabalago baten zati gisa ulertzen da, V. Gazte Plana, Erronka Demografikoko Estrategia eta Gazteriaren Legea barne hartzen dituena. Integrazio horrek sail arteko eta erakunde arteko koherentzia bermatzen du gazteentzako politiken diseinuan eta betearazpenean.

- Azkenik, gizarte-kohesioa nabarmentzen da lehentasunezko ardatz gisa, eta bereziki jorratzen dira ongizate emozionala, osasun mentala eta gazteen garapen osasuntsu eta betea erraztuko duten zerbitzuetarako sarbide zuzena.

Azkenik, gazteekin lotutako kudeaketaren eta antolakuntza publikoaren eredua inspiratzeko **irizpide** batzuk ere aurkeztuko dira atal honetan: *gazteen ikuspegia txertatzea, lankidetza eta koordinazioa, erantzukizun publikoa, plangintza eta ebaluazioa, gertutasuna, informazioa, kalitatea, berrikuntza eta ikaskuntza soziala, elkarrizketa zibila eta ikuspegi demografikoa eta familia-ikuspegia arau-diseinuan.*

Estrategian sartuta dauden eragile guztiek izango dute ardura, haien eskumen eta funtzioen baitan, dagozkien arlo eta jarduketetan printzipio, ikuspegi eta irizpide hauek ezagutarazi eta modu sistematikoan ezartzen direla bermatzeko.

7.1 Printzipioak

Estrategiaren oinarrian daude botere publikoen jarduketa gidatzen duten printzipio batzuk. Euskadiko Gazteria Legean eta beste arau eta politika publiko askotan finkatuta dauden printzipio horien helburua da gazteen beharrei eta eskubideei arreta integral eta inklusiboa bermatzea.

1. **Gazteen egoerarentzako arreta integrala**[23]**:** Gazteen gizarteratzea, lan-munduratzea, egoera ekonomikoa, politikoa eta kulturala sustatzeko neurriak artikulatzea, haien bizi esparru, interes eta behar guztiak aintzat hartuta. Gazteen egoera ikuspegi holistikotik jorratu nahi du, gazteen artean dagoen dibertsitatea aitortuz eta aukera-berdintasuna sustatuz lidergo publikotik, gizarte-eragileen eta gizarte osoaren inplikazioarekin.

[23] Gazteriaren Legearen 4. artikuluko a) printzipio gidariari dagokio.

2. **Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea:** Gazte guztiek beren eskubideez eta askatasunez gozatzeko aukera dutela bermatzea, inolako diskriminaziorik pairatu gabe arrazagatik, koloreagatik, jatorri nazionalagatik, gutxiengo nazional, etniko edo kultural batekoak izateagatik, sexuagatik, sexu- orientazioagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik, iritziengatik, egoera sozialarengatik, gaitasun fisikoengatik, desgaitasunagatik, bizilekuagatik, baliabide ekonomikoengatik edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozialengatik.

3. **Gizon eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioa**[24]**:** Sexuagatiko edozein diskriminazio mota desagerraraztea, baita emakumeen aurkako indarkeria matxista ere, eta arlo sozialean adinaren arabera ezartzen diren rol sozialak eta genero-estereotipoak desagerraraztea.

4. **Gizarteratzeko eta ekintza positiborako eskubidea**[25]**:** Gazteak talde homogeneo bat ez direla eta, ondorioz, askotariko beharrak, jatorriak, bizitzako egoerak eta interesak dituztela aitortzea. Jarduera eta politika inklusiboak sustatzen ditu gazte guztientzat, bereziki aukera gutxien dituztenentzat edo haien ahotsa entzuten ez denentzat. Halaber, ekintza positiborako printzipioaren helburua da gazteen emantzipazio erreal eta eraginkorra lor dadin sustatzea eta desberdintasunak murriztea diskriminazio, pobrezia edo gizarte-bazterkeria egoeratan edo baldintzetan.

5. **Gazteen ahalduntzea:** Gazteak ahalduntzeak esan nahi du administrazio publikoak eskubideak eta erantzukizunak dituzten eragile gisa aitortzen dituela gazteak, haien hazkunde pertsonal eta sozial propioaren liderrak direla eta erabaki garrantzitsuak hartzeko gaitasuna eta autonomia dutela.

6. **Parte-hartzea**[26]**:** Gazte guztiak gizartearentzako baliabide bat direla aitortzea eta gaztaroari buruzko politika eta jarduera guztiek gazteei eragiten dieten politiken garapenean, ezarpenean eta jarraipenean parte hartzeko eskubidea bermatzea. Gazteen eta gazte-antolakundeen parte-hartze esanguratsua sustatu nahi du, eta komunikazio digitalak eragindako aldaketak aitortu, eragina baitute parte-hartze zibikoan eta demokratikoan.

7. **Politika publikoen zeharkakotasuna**[27]**:** Gazteei zuzendutako politika publikoak egiteko, exekutatzeko eta ebaluatzeko prozesuak osotasuna ziurtatzen duela bermatzea, hau da, Euskadiko Administrazio publikoetako hainbat sailetatik egindako ekintzak orientatzen eta koordinatzen dituela.

8. **Lurraldetasuna, gertutasuna eta deszentralizazioa**[28]**:** Politikak eta zerbitzuak lurralde bakoitzaren ikuspegira eta errealitatera egokitzea, pertsona, talde eta komunitate hartzaileen parte-hartzearekin, eta arreta berezia jartzea landa-eremuaren berezitasunei.

[24] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko e) printzipio orokorrari dagokio.

[25] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko d) eta p) printzipio orokorrei dagokie.

[26] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko j) printzipio orokorrari dagokio.

[27] Gazteriaren Legearen 4. artikuluko b) printzipio gidaria.

[28] Gazteriaren Legearen 4. artikuluko c) printzipio gidaria.

9. **Informazioaren gardentasuna, ebaluazioa eta demokratizazioan**[29]**:** Gardentasuna bermatzea gazteentzako politiken kudeaketan, politika horien inpaktua ebaluatzea eta informazioa zabaltzea, batez ere, gazte hartzaileei eta parte-hartzaileei dagokienez.

7.2 Ikuspegiak

Hauek dira Estrategian zabalduko diren jarraibideek eta orientazioek izan beharreko zeharkako ikuspegiak:

1. **Genero ikuspegia**[30]**:** Emakume gazteei eragiten dieten egiturazko desberdintasunak jorratzea. Horren barruan sartzen dira, besteak beste, hezkuntza, enplegua, osasuna eta parte-hartze zibikoa.

2. **Aukera-berdintasuna**[31]**:** Gazte guztiek eskubide politikoak, zibilak, lanekoak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta arauetan aitortu daitezkeen bestelako oinarrizko eskubideak gazte guztiek modu eraginkorrean eta baldintza berdinetan gauzatu ditzaketela bermatzeko neurri egokiak aplikatzen direla zaintzea. Halaber, aukera-berdintasuna bermatzeko neurri egokiak aplikatuko dira, bai baliabideetara sartzeko hasierako baldintzei dagokienez (onura soziokulturalekin), bai aukera horiek gauzatzeko eta kontrolatzeko baldintzei dagokienez.

3. **Gazteen parte-hartze demokratikoas**[32]**:** Gazteek gizartearen eraikuntzan parte-hartze osoa eta aktiboa izateko duten eskubidea bermatzeko, elkarrizketarako eta lankidetzarako espazioak sortu eta indartuko dira gazteen eta Euskadiko Administrazio Publikoen artean, asoziazionismoa, boluntariotza (garapen iraunkorrerako politikekin bat etorriz) eta gazteen ekimenak babestuko dira eta parte-hartzearen kultura sustatuko da, baita elkarteetan ez dauden gazteen artean ere. Halaber, gazteek parte hartzea izango dute gazteriaren politikak eta baliabideak diseinatzeko eta martxan jartzeko garaian, gazteen aurreikuspenetara eta eskarietara egokitzen direla bermatzeko.

4. **Balioen sustapena**[33]**:** Gazteen artean balio demokratikoak sustatzea, hau da, bizikidetza, askatasuna, berdintasuna, tolerantzia, elkartasuna, jasangarritasuna eta bakearen eta giza eskubideen defentsa sustatzeko programak eta ekintzak bultzatzea.

5. **Euskara**[34]**:** Euskararen erabileraren normalizazioa sustatzea gazteen artean haien bizitzako arlo guztietan.

[29] Gazteriaren Legearen 4. artikuluko d) printzipio gidaria.

[30] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko e) printzipio orokorra.

[31] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko a) printzipio orokorra.

[32] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko j) printzipio orokorra.

[33] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko k) printzipio orokorra.

[34] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko n) printzipio orokorrari dagokio.

6. **Kulturartekotasuna**[35]**:** Gazteek Euskadin eta Euskaditik kanpo dauden kultura-errealitateak ezagutzeko eta gure kultura ezagutarazteko ekintzak eta programak sustatzea. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialez gain, beste hizkuntza batzuk ikastea sustatuko da, herrialde eta kultura desberdinen artean komunikatzeko oinarrizko tresna gisa.

7. **Gazteek Euskadin eta Euskaditik kanpo dauden kultura-errealitateak ezagutzeko eta gure kultura ezagutarazteko ekintzak eta programak sustatzea. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialez gain, beste hizkuntza batzuk ikastea sustatuko da, herrialde eta kultura desberdinen artean komunikatzeko oinarrizko tresna gisa**[36]: Gazteak euskal gizartean integratu eta gizarteratu daitezen sustatzea, arreta berezia jarriz egoerarik zaurgarrienetan daudenei, bereziki, familiako erreferenterik ez dutenei, indarkeria matxistaren biktima direnei, pobrezia-egoeran edo gizarte-bazterkerian daudenei eta desgaitasuna duten pertsonei. Arreta babesgabetasunaren eta bazterkeriaren arloko erantzukizun publikotik artikulatuko da, eta, ahal den heinean, prozedura administratiboa egokitu egingo da babes-sarera atxikitako pertsonei etengabeko arreta emateko. Halaber, aukera-berdintasuna bermatzeko, bizi-baldintza duinak sustatuko dira, familiako erreferenterik ez duten gazteen gizarteratze- eta emantzipazio-prozesuekin jarraitzeko, atzerritarrak izan ala ez, babes-sarearen barruan egon ala ez.

8. **Irisgarritasun unibertsala, gizarteratzea eta bizitza independentea**[37]**:** Desgaitasuna duten pertsonei dagokienez, Euskadiko Administrazio Publikoen jarduketen helburua izango da irisgarritasun unibertsala, gizarteratzea eta, bereziki, bizitza independentea sustatzea. Hala, horretarako beharrezko baldintzak sustatuko dituzte.

7.3 Irizpideak

Gazteen gaineko kudeaketa- eta antolaketa-eredu publikoa inspiratzeko irizpideak hauek dira:

1. **Gazteen ikuspegia integratzea**[38]**:** Gazteen aspirazioak, beharrak, baldintzak eta egoerak askotarikoak direla aintzat hartuko da sistematikoki, eragiten dieten desberdintasunak murriztea edo horiekin amaitzea sustatzeko helburu eta jarduketa espezifikoen bidez, eta gazteen autonomia eta emantzipazioa bultzatzeko helburu horiekin lotuta dauden Euskadiko Administrazio Publikoen politika eta ekintza guztietan.

2. **Lankidetza eta koordinazioa**[39]**:** Euskadiko Administrazio Publikoak lankidetzan arituko dira jarduketak koordinatuz gazteen politikak garatzeko, haien esku-hartzeak eraginkorragoak izan daitezen eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat etor daitezen.

[35] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko o) printzipio orokorra.

[36] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko p) printzipio orokorra.

[37] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko r) printzipio orokorra.

[38] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko c) printzipio orokorra.

[39] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko f) printzipio orokorra.

3. **Erantzukizun publikoa**[40]**:** Gazteen autonomia eta emantzipazioa sustatzeko beharrezko neurri guztiak bultzatuko dira; eta, zehazki, gazteen arloko politikak garatzea eta gazteei arreta ematea sustatuko da, eta lege honetan eta etorkizuneko garapenetan araututa dauden dirulaguntzetarako, jardueretarako, zerbitzuetarako eta ekipamendutarako sarbidea erraztuko da.

4. **Plangintza eta ebaluazioa**[41]**:** Antolaketa-esparru egokitua eta egonkorra ezarriko da gazteriaren arloan; baliabideen koherentzia, eraginkortasuna, jarraikortasuna eta optimizazioa bermatzeko eta arlo horretan egiten diren ekintza eta planteamendu guztiak etengabe hobetzeko.

5. **Gertutasuna**[42]**:** Gazteen arloko jarduera, zerbitzu eta ekipamendu espezifikoak tokiko arlotik eskaini behar dira funtsean, hau da, deszentralizatu eta herritarrengana gerturatu behar dira.

6. **Informazioa**[43]**:** Gazteek etengabeko sarbidea izango dute eragiten dieten politika eta jarduketa publikoei buruzko informaziora.

7. **Kalitatea, berrikuntza eta ikaskuntza soziala**[44]**:** Kalitatearen gutxieneko estandar batzuk bermatuko dira erkidegoko araudien bidez, baina, betiere, tokiko autonomiaren printzipioa eta tokiko erakundeen finantza- eta kudeaketa-gaitasuna errespetatuz. Berrikuntza, esperimentazioa eta ikaskuntza soziala sustatuko dira, Euskadiko gazteen errealitate eta behar berriei arreta berezia jarriz.

8. **Elkarrizketa zibila**[45]**:** Administrazio Publikoek beharrezko parte-hartze espazioak artikulatuko dituzte, gazteek haiei eragiten dieten politiken fase guztietan parte har dezaten, exekuzio-fasean barne, haien ordezkatzen dituzten elkarteen eta sareen bidez, bereziki, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren bidez. Horretarako, elkarrizketa zibileko mahaian eta beste parte-hartze espazio eta prozesu batzuetan hartuko dute parte.

9. **Ikuspegi demografikoa eta familia-ikuspegia arau-diseinuan:** Euskal herri-administrazioek ikuspegi demografikoa eta, hala badagokio, familia-ikuspegia sistematikoki txertatuko dute legeak, estrategiak, planak edo inbertsio-programak egitean. Horretarako, xedapen orokorrak egiteko prozedura egokituko da (8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena), politika publikoek gazteen ongizatea eta inklusioa faboratzen dutela eta erronka demografikoari erantzuten laguntzen dutela bermatzeko.

[40] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko h) printzipio orokorra.

[41] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko h) printzipio orokorra.

[42] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko i) printzipio orokorra.

[43] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko l) printzipio orokorra.

[44] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko m) printzipio orokorra.

[45] Gazteriaren Legearen 5. artikuluko q) printzipio orokorra.

8. GAZTERIAREN ARLOKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIAREN EGITURA

Atal honetan sakonduko da **Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategia.** Sarreran aipatu den moduan, Euskadiko Administrazio Publikoek eta gazteriaren arloan eskumenak dituzten organismo publikoek datozen urteetarako gazteriaren arloko politikak diseinatzeko eta planifikatzeko tresna eguneratua da. Hortaz, erreferentziazko esparru bat definitzen du sailetatik garatzen diren esku-hartzeen eraginkortasuna handitzeko eta Euskadiko gazteriaren arloko politika integralarekin bat datozen jarduketa-ildo batzuk finkatzeko.

Zuzenean daude lotuta Gazteria Legearen 25 jarduketa-ildoekin, eta Estrategia 3 ardatz eta 10 sailetan dago antolatuta. Hala, V. Gazte Planarekin lotu eta artikulatzen da:

EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA:

1. Hezkuntza eta Enplegurako Prestakuntza
2. Enplegua
3. Etxebizitza

ONGIZATEA ETA IDENTITATE KULTURALA:

4. Bizimoduak eta ingurune osasungarriak
5. Euskara
6. Kultura eta aisialdia

PARTE-HARTZEA ETA KONPROMISOA SOZIALA:

7. Parte-hartzea
8. Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna
9. Dibertsitatea eta Bizikidetza
10. Ingurumeneko jasangarritasuna

Bakoitzean, planteamendu berdina jarraitzen da. Lehenik, helburu estrategikoa identifikatzen da, arloaren helburu nagusia kondentsatzeko. Bigarrenik, deskribapen labur bat gehitzen da, bere esparrua zein den argitzeko. Hirugarrenik, bere egokitasuna justifikatzen da. Laugarrenik,

helburu estrategikoa lortzeko proposatzen diren funtsezko jarduketa-ildoak definitzen dira. Bosgarrenik, jarduketa-ildo bakoitzaren jarraibideak eta orientazioak zabaldu eta zehazten dira, horiek lurreratu eta bete ahal izateko.

Nabarmendu behar da Estrategia honen edukia egitea artisautza-lana izan dela eta Estrategia egiteko prozesua atalean zehaztutako teknika kualitatiboen bidez —fitxa diagnostikoak, elkarrizketa sakonak, eztabaida-taldeak eta kontrastatzeko saioak— jasotako ekarpenei esker egin ahal izan dela. Erakundeen arloarekin (administrazioak eta organismo publikoak), arlo teknikoarekin, profesionalarekin, akademikoarekin, sozialarekin eta, jakina, gazteen ahotsa entzuteko eta baloratzeko espazioekin lotutako pertsonek hartu dute parte.

Hori guztia administrazioek eta organismo publikoek gazteriaren arloan egiten duten jarduera orientatzeko estrategia diseinatzeko, eta, hala, lehentasunak zehazteko eta kolektibo horri zuzendutako zerbitzuen prestazioan maila homogeneoak bermatzeko, etorkizuneko eta herrialdeko ideia partekatuarekin lerrokatuz.

Jarraian, **Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategiaren** laburpena aurkeztuko da:

ARDATZA	SAILA	HELBURU ESTRATEGIKOA	JARDUTEKO ILDOAK
1. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA	**1.1 Hezkuntza eta Enplegurako Prestakuntza**	GAZTE GUZTIEK BEREN AURREIKUSPENETARA EGOKITZEN DIREN HEZKUNTZA IBILBIDEETARAKO SARBIDEA IZAN DEZATEN SUSTATZEA, PRESTAKUNTZA ETA LAN MUNDURATZEA BULTZATUZ ETA GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSARI, BIZIKIDETZARI ETA INDARKERIAREN ETA DISKRIMINAZIOAREN PREBENTZIOARI LOTUTAKO GAITASUN KRITIKOAK GARATUZ.	1.1.1 Hezkuntza-ibilbide formalen sarbidean eta jarraipenean aukera-berdintasuna bermatzeko beharrezko baliabideak, laguntzak eta neurriak sustatzea. 1.1.2 Akademiatik kanpoko espazio eta programa soziohezitzaileak indartzea adin goiztiarretan. 1.1.3 Gazte langileen etengabeko prestakuntza bermatzea. 1.1.4 Hezkuntza formala utzi duten gazteei etengabeko prestakuntzarako sarbidea ematea. 1.1.5 Gazteen sorkuntza, berrikuntza eta ekintzailetza bultzatzea. 1.1.6 Bokazio ikertzailea sustatzea adin goiztiarretatik ezagutza-arlo guztietan. 1.1.7 Lan-esperientzia murgiltzaileen bidez trebakuntza handitzea. 1.1.8 Nazioarteko mugikortasuna sustatzea. 1.1.9 Memoria demokratikoa gizarte-hezkuntzan eta prestakuntza-ibilbide formaletan eta ez-formaletan txertatzea (berria). 1.1.10 Gaitasun kritikoak eta pentsamendu historikokoak garatzea, eskubideen urraketak eta praktika demokratikoak identifikatzeko (berria). 1.1.11 Memoria demokratikoko baliabide, metodologia eta materialetarako sarbide inklusiboak bermatzea aukera gutxiago dituzten gazteentzat (berria).
	1.2 Enplegua	GAZTEEK KALITATEZKO ENPLEGUA, DUINA ETA SEGURUA IZAN DEZATEN SUSTATZEA, ENPLEGU ETA EKINTZAILETZARAKO POLITIKA AKTIBOEN BITARTEZ, ARRETA BEREZIA JARRIZ KOLEKTIBORIK ZAURGARRINETAN.	1.2.1 Prestakuntza-eskaintza praktikoagoa eta lan-merkatura bideratutakoa sustatzea, orientazio-, aholkularitza- eta laguntza-prozesuekin osatuta. 1.2.2 Besteen konturako enplegurako sarbidea sustatzea, egoera zaurgarrian dauden gazteei erreparatuz bereziki. 1.2.3 Talentua identifikatzea eta espiritu ekintzailea sustatzea, norbere kontura lan egitea bultzatuz. 1.2.4 Kalitatezko enplegua, duina eta segurua sustatzea.
	1.3 Etxebizitza	GAZTEEK ETXEBIZITZA DUINERAKO SARBIDEA IZAN DEZATEN SUSTATZEA, EMANTZIPATZEN LAGUNTZEKO.	1.3.1 Gazteei beren autonomia- eta emantzipazio-prozesuaren gaineko laguntza eta orientazioa ematea. 1.3.2 Etxebizitza-politika estrukturala eta eraginkorra garatzea. 1.3.3 Etxebizitza publikoaren eskaintza handitzea hiri-inguruneetan, landa-inguruneetan eta kostaldean. 1.3.4 Alokairuko etxebizitza pribatuen eskaintza sustatzeko lege- eta zerga-neurriak sustatzea. 1.3.5 Dirulaguntza ekonomiko eta finantzario espezifikoak eskaintzea gazteek alokairuko etxebizitzak eskuratu ahal izateko.

ARDATZA	SAILA	HELBURU ESTRATEGIKOA	JARDUTEKO ILDOAK
2. ONGIZATEA ETA IDENTITATE KULTURALA	**2.1 Bizimoduak eta Inguru-ne osasun-garriak**	GAZTEEN AUTOZAINTZA SUSTATZEKO ETA HAIEN ONGIZATE FISIKOA, BURUKOA ETA SOZIALA HOBETZEKO BIZIMODUAK ETA INGURUNE OSASUNGARRIAK BULTZATZEA.	2.1.1 Etengabeko jarduera fisikoak eta elikadura- eta lo-ohitura egokiek dituzten onuretan arreta jartzea. 2.1.2 Buruko osasuna eta ongizate emozionala sustatzea. 2.1.3 Osasun afektibo-sexualari buruzko heziketa, prebentzioa eta aholkularitza indartzea, emakumeen behar espezifikoentzako arreta barne. 2.1.4 Kontsumotik eta mendekotasunak sortzeko joerak dituzten ohituretatik eratorritako kalteak eta arriskuak murriztea. 2.1.5 Gazteen ongizate integrala sustatzeko ingurune osasungarriak sortzea.
	2.2 Euskara	EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA SUSTATZEA EGUNEROKO BIZITZAKO ARLO GUZTIETAN.	2.2.1 Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea hezkuntza formalean. 2.2.2 Euskararen erabilera sustatzea hezkuntza formaletik kanpo. 2.2.3 Euskararen ezagutza sustatzea. 2.2.4 Euskarari garrantzia ematea eta euskal hizkuntzara eta kulturara hurbiltzeko eta interesa sustatzeko ekimenak garatzea.
	2.3 Kultura eta aisialdia	BERDINTASUNA, BALIOETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA ETA OHITURA OSASUNGARRIAK SUSTATZEN DITUEN KULTUR ETA AISIALDI ESKAINTZA GARATZEA, GAZTEEN EKIMENAK BABESTEA ETA SORKUNTZA SUSTATZEA.	2.3.1 Gazte guztientzako kultur eta aisialdi-eskaintza erakargarri eta irisgarria garatzea. 2.3.2 Aurrez aurre elkartzea eta pertsonen arteko trukea lehenesten duten kultur eta aisialdi-aukerak sustatzea. 2.3.3 Gazteak haien kulturaren eta aisialdiaren protagonistak izan daitezen sustatzea, haien ekimenak babestea, sorkuntza sustatzea eta eskaintzaren diseinuan eta garapenean parte har dezaten bultzatzea.

ARDATZA	SAILA	HELBURU ESTRATEGIKOA	JARDUTEKO ILDOAK
3. PARTE-HARTZEA ETA KONPROMISO SOZIALA	**3.1 Parte-hartzea**	GAZTEEN PARTE HARTZEA SUSTATZEA, HERRITAR KRITIKO ETA AKTIBOAK GARATZEKO ETA ERALDAKETA SOZIAL ETA KOMUNITARIOETAN PARTE HAR DEZATEN LORTZEKO.	3.1.1 Gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea titulartasun publikoko gazteen zerbitzuetan, ekipamenduetan eta proiektuetan. 3.1.2 Gazteentzako lankidetza-espazioak sortzea. 3.1.3 Parte-hartze sozialerako modu berriak aztertzea eta bultzatzea, egungo joeretara egokituz. 3.1.4 Gazteen presentzia handitzea erabakiak hartzeko espazioetan. 3.1.5 Aisialdi hezitzailea ezinbesteko eskubide gisa indartzea. 3.1.6 Boluntariotzak egiten duen ekarpenaren ikusgarritasuna eta aitortza hobetzea. 3.1.7 Gazteek elkarteen ehundurarekin duten lotura indartzea. 3.1.8 Gazteek memoria demokratikoan parte hartzeko espazio egonkorrak sortzea (diseinua, gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa). 3.1.9 Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) memoriaren arloko egiturazko solaskide gisa duen zeregina indartzea, gazteen eta administrazioen arteko zubi-lana eginez.
	3.2 Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna	GIZARTE PAREKIDEAGOA ETA EMAKUMEENTZAKO DESBERDINTASUNIK ETA DISKRIMINAZIORIK GABEA LORTZEKO AURRERAPAUSOAK EMATEA.	3.2.1 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea arlo guztietan. 3.2.2 Arrisku-egoerak identifikatzea eta indarkeria matxista desagerraraztea. 3.2.3 Emakume gazteen ahalduntzea sustatzea. 3.2.4 Gizon gazteen artean maskulinitate-eredu berriak sustatzea.
	3.3 Dibertsitatea eta Bizikidetza	PERTSONEN BEREZKO ANIZTASUNA AITORTZEA, BIZIKIDETZAN ETA KOHESIO SOZIALEAN AURRERAPAUSOAK EMATEKO.	3.3.1 Gazteen aniztasunak dituen askotariko dimentsioak aitortzea eta ikusaraztea. 3.3.2 Gazte guztien gizarteratzea sustatzea. 3.3.3 Balioetan oinarritutako hezkuntza eskaintzea ingurune formal eta ez formaletan. 3.3.4 Askotariko pertsonen eta kolektiboen arteko interakzioa sustatzea. 3.3.5 Gatazkak, indarkeria eta tratu txarrak prebenitzea eta jorratzea.
	3.4 Ingurumeneko jasangarritasuna	INGURUMENEKO KONTZIENTZIAZIOA SUSTATZEA GAZTEEN ARTEAN, BIZIMODU ETA OHITURA JASANGARRIAGOAK IZAN DITZATEN.	3.4.1 Bizimodu jasangarriak sustatzea gazteen artean. 3.4.2 Garraio publiko kolektiboaren aukerak egokitzea, gazteen mugikortasuneko beharretara eta baliabide ekonomikoetara egokituz. 3.4.3 Garraio jasangarri eta kutsadurarik gabeko bitartekoen erabilera sustatzea.

8.1 Emantzipazioa eta Autonomia

8.1.1 Hezkuntza eta Enplegurako Prestakuntza

HELBURU ESTRATEGIKOA

GAZTE GUZTIEK BEREN AURREIKUSPENETARA EGOKITZEN DIREN HEZKUNTZA IBILBIDEETARAKO SARBIDEA IZAN DEZATEN SUSTATZEA, PRESTAKUNTZA ETA LAN MUNDURATZEA BULTZATUZ ETA GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSARI, BIZIKIDETZARI ETA INDARKERIAREN ETA DISKRIMINAZIOAREN PREBENTZIOARI LOTUTAKO GAITASUN KRITIKOAK GARATUZ.

DESKRIBAPENA

Arlo honek hezkuntzari egiten dio erreferentzia bere zentzurik zabalenean eta ez da soilik hezkuntza-sistemara mugatzen. Etengabeko prestakuntza beharrezko ezagutzak, konpetentziak eta gaitasunak osatzeko katalizatzailea da; alde batetik, etengabe aldatzen ari den lan-merkatuak eskatzen duen enplegurako sarbidea sustatzeko eta enplegatarritasuna hobetzeko, eta, bestetik, helduaroan bizitzeko proiektu autonomo propioak izateko beharrezko gaitasunak eta baliabideak eskuratzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Prestakuntza akademikoa da gazteek beren bizitzako proiektuak garatzeko dituzten aukera profesional eta sozialak eraikitzen joateko oinarria.

Balizko ibilbideei buruzko orientazio handiagoa eta hobea askok baieztatu duten arren, eta zalantzak, interesak eta jakin-minak kanalizatzera bideratuagoa nahiago luketela, gehienek adierazi dute nahiko asebeteta daudela lortutako ikasketa-mailarekin. Hein handi batean, derrigorrezko hezkuntzaren osteko irakaskuntzarekin dago lotuta maila hori, bai Lanbide Heziketarekin (LH), bai, batez ere, unibertsitateko tituluekin. Izan ere, garapen ekonomikorako eta sozialerako garrantzitsua den arren, LH bigarren mailako aukera da gazteen zati nahiko handi batentzat. Hala ere, enpresa-munduaren eta lanbide-heziketako zentroen arteko lotura estua eta sistemak berak produkzio-sektoreen beharretara egokitzeko duen gaitasuna direla-eta, hezkuntza- maila horretako enplegagarritasun-tasa oso altua da. Faktore horrek eragin zuzena du Lanbide Heziketako matrikulazioak azken urteetan izan duen gorakada nabarmenean.

Nolanahi ere, hezkuntza-sistemaren eta lan-merkatuaren arteko lotura falta da gazteen beste arazo adierazgarrietako bat. Izan ere, gazteek uste dute egungo hezkuntza eduki teorikoak transmititzean oinarritzen dela, edozein lanbidetan ezinbestekoak diren konpetentzia praktikoak garatu beharrean, hala nola, arazoak konpontzeko gaitasuna, taldeko lana, komunikazio eraginkorra edo sormena.

Halaber, gazte batzuek ezin izan zituzten araututako prestakuntza-maila altuagoak egin bere garaian eta helduagoak direnean zailtasunak izaten dituzte enplegagarritasuna hobetu ahal izateko aukera akademikoetara sartzeko. Zailtasun horiek lotuta daude, batik bat, etorkizunean aukera profesional handiagoak izateko ikasketak egin bitartean duten egoera pertsonal eta laborala ekonomikoki sostengatu beharrarekin. Hobekuntza-prozesu akademiko-profesionalak

abian jartzearekin eta amaitzearekin lotuta dagoen errealitate hori are adierazgarriagoa da abiapuntu zaurgarriagoa duten gazteen kasuan.

Halaber, lan-merkatu aldakor honek ezartzen duen etengabe trebatzen-eguneratzen egoteko behar hori ez da eskuragarria gazte guztientzat, eta prestakuntza-arrakala eragiten du horrek, batez ere konpetentzia digitalei eta hizkuntzei dagokienez.

Ildo horretatik, Adituen Batzordeak 2024ko irailean Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna betetzeari buruz esandakoa gogoratu behar da. Txostenean jasotzen den moduan, <euskarazko (D eredua) irakaskuntza tekniko eta profesionalaren eskaintza mugatua da oraindik ere Lehen eta Bigarren Hezkuntzan matrikulatutako ikasleekin alderatuta=. Horregatik, Adituen Batzordeak egindako gomendioen artean dago euskararen irakaskuntza tekniko eta profesionalerako sarbidea handitzeko neurriak ezartzea.

JARDUTEKO ILDOAK

AUKERA BERDINTASUNA

1.1.1 Gazteek aukeratutako hezkuntza-ibilbide formalen sarbidean eta jarraipenean aukera-berdintasuna bermatzeko beharrezko baliabideak, laguntzak eta neurriak sustatzea, nahi duten maila akademikoa lortu arte, eta arreta berezia jartzea egoerarik zaurgarrienean dauden pertsonei.

1.1.2 Akademiatik kanpoko espazio eta programa soziohezitzaileak indartzea adin goiztiarretan, hezkuntza formaleko ibilbideekin duten lotura indartuz eta helduarorako trantsizio autonomoa sustatzen duten garapen-prozesuak finkatuz.

1.1.3 Gazte langileen etengabeko prestakuntza bermatzea, lankidetzarako formulak garatuz inplikatutako eragile guztien artean eta hartzaileen artean dauden askotariko egoerei erantzungo dieten formatuak eskainiz.

1.1.4 Hezkuntza formala utzi duten gazteentzako etengabeko prestakuntzarako sarbidea sustatzea hainbat arlotan; hala nola STEAM hezkuntzan, konpetentzia digitaletan, euskaran, gaztelanian eta atzerriko hizkuntzetan, lan-merkatu aldakorrera egokitu daitezen eta prestakuntza-arrakala prebenitu dadin.

TALENTUA, BOKAZIOA, TREBAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEA

1.1.5 Gazteen sorkuntza, berrikuntza eta ekintzailetza sustatzea, hiri-ingurunean, landa-eremuan zein kostaldean, gazteen talentua identifikatzeko eta lehen proiektu eta ekimen profesionalak bideratzeko eta sustatzeko programen, zerbitzuen eta neurrien bitartez.

1.1.6 Ikerketa-bokazioa sustatzea adin goiztiarretatik ezagutza-arlo guztietan (zientifiko-teknikoa, humanitateak, arteak...), sektore akademikoaren eta enpresa-sektorearen arteko lotura sustatuz, hiri- ingurunean, landa-eremuan zein kostaldean.

1.1.7 Trebakuntza handitzea lan-esperientzia murgiltzaileen bitartez, kontratatzeko aukera errealak sortzeko eta hezkuntza-arlotik arlo profesionalerako trantsizio eraginkorra sustatzeko.

1.1.8 Nazioarteko mugikortasuna sustatzea, curriculum profesionala zein gazteen garapen pertsonala handitzeko eta indartzeko tresna modura.

AHALDUNTZEA ETA GIZARTEAN PARTE HARTZEA, GIZABIDEZKO PRESTAKUNTZAREN, GIZA ESKUBIDEEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN BIDEZ

1.1.9 Memoria demokratikoa gizarte-hezkuntzan eta prestakuntza-ibilbide formaletan eta ez-formaletan txertatzea.

1.1.10 Gaitasun kritikoak eta pentsamendu historikoak garatzea, eskubideen urraketak eta praktika demokratikoak identifikatzeko.

1.1.11 Memoria demokratikoaren baliabide, metodologia eta materialetarako sarbide inklusiboak bermatzea aukera gutxiago dituzten gazteentzat.

JARRAIBIDEAK ETA ORIENTAZIOAK

AUKERA BERDINTASUNA

1.1.1 Hezkuntza-ibilbide formalen sarbidean eta jarraipenean aukera-berdintasuna bermatzeko beharrezko baliabideak, laguntzak eta neurriak sustatzea.

- Orientazio-formula pertsonalizatuak ezartzea ikastetxeetan eta espazio ez formaletan, ikasleei beraien interesak, gaitasunak eta helburuak ezagutzen laguntzeko. Orientazio horiek prestakuntza-aukerarik eta aukera profesionalik egokienekin lotu behar dira, informazio argia eta haien beharretara egokitua eskaintzeko.
- Hain ohikoak ez diren ibilbideak ikusaraztea, hala nola prestakuntza artistikoa, lanbideak, gradu bikoitzak eta ikasketa tekniko berriak, eskuragarri dauden aukerak zabaltzeko eta estereotipoekin apurtzeko.
- Euskarazko irakaskuntza eta euskararen erabilera bermatzeko baliabide eta neurri espezifikoak diseinatzea hezkuntzako prestakuntza-ibilbideetan, atzerriko gazteei edo egoera zaurgarrian daudenei ere sarbide-berdintasuna bermatuz.
- LHko titulazioei buruzko sustapen-kanpainak bultzatzea, alternatiba gisa duten balioa, laneko irteerak eta sustapen-aukerak nabarmenduz. Garrantzitsua da adar desberdinak nabarmentzea eta garapen ekonomiko eta sozialari egiten dioten ekarpena azpimarratzea.
- Derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasketetarako sarbidea eta iraunkortasuna sustatzea, formula pertsonalizatuak eskainiz zailtasun ekonomikoak dituztenei edo prestakuntza enpleguarekin edo familiako ardurekin uztartu behar dutenei.
- Laguntza finantzario gehigarriak aztertzea, bekez gain, gazteek beraien bizitzako edozein etapatan nahi duten prestakuntza jaso ahal izatea bermatzeko.

1.1.2 Akademiatik kanpoko espazio eta programa soziohezitzaileak indartzea adin goiztiarretan..

- Gertuko espazio eta zerbitzu soziohezitzaileak sustatzea eta indartzea, hiri-eremuetara, landa- eremuetara eta kostaldera iritsi ahal izateko. Espazio horiek babesa emateko eta laguntzeko izan behar dute, batez ere, familia-sare mugatua edo hutsala dagoen kasuetan.
- Ikastetxeen eta hirugarren sektore sozialeko erakundeen artean lankidetza-sareak finkatzea, hezkuntza komunitario inklusiboa eta eraginkorra sustatzeko, batez ere egoera zaurgarrian dauden gazteentzat.

- Eskolaz kanpoko jardueretan edo jarduera soziohezitzaileetan euskararen erabilera sustatzeko programak txertatzea, ahozkotasuna eta testuinguru informaletan hizkuntza praktikatzea sustatuz.
- Balioetan eta prebentzioan oinarritutako hezkuntza-programak sustatzea, arrisku-jarrerak ekiditeko, hala nola bandalismoa, erasoak, jazarpena, kontsumoak edo suizidioa. Hala, gazteen osasun psikofisikoa eta prestakuntza-ibilbideen jarraipena babestuko da.

1.1.3 Gazte langileen etengabeko prestakuntza bermatzea.

- Administrazioen, ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetza sustatzea, lanerako prestakuntza etengabea, eguneratua eta merkatu-nitxo berriekin (IA, zibersegurtasuna, energia berriztagarriak, etab.) bat datorrena bermatuz, gazte langileentzat. Halaber, prestakuntza-sistemaren eta lan- merkatuaren arteko lotura arina sustatzea.
- Bizi osoan zehar etengabeko prestakuntza jaso ahal izateko formulak ezartzea, adinarekin, egoera pertsonalarekin edo lanarekin lotutako oztopoak gainditzeko eta enplegagarritasuna hobetzeko prestakuntza-prometara eta dirulaguntzetara sartu ahal izateko.
- Gazte langileei egokitutako euskarazko prestakuntza ezartzea, hizkuntza bereziki garrantzitsua den sektoreetarako prestakuntza espezifikoa barne (hezkuntza, kultura, bezeroen arreta, etab.).

1.1.4 Hezkuntza formala utzi duten gazteei etengabeko prestakuntzarako sarbidea ematea.

- Aukerak aztertzea prestakuntza-zentroekin eta unibertsitateekin, araututako prestakuntza egin izan ezin duten gazteek edozein adinetan egin ahal izateko eta, hala, hezkuntzara sartzea errazteko.
- Profil hirueleduna sustatzeko neurriak ezartzea hezkuntza formala utzi duten gazteentzat, euskarako, gaztelaniako eta atzerriko hizkuntzetako konpetentzia linguistikoak indartzeko.
- Administrazioen, ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetza indartzea enpleguari dagokionez, etengabeko prestakuntza eta prestakuntza ez arautuaren eta lan-merkatuaren arteko trantsizio erraza bermatzeko.
- Etengabeko prestakuntzarako formulak ezartzea bizi osoan zehar, adin-tarteekin, lan-egoerekin edo egoera pertsonalekin lotutako oztopoak ezabatzeko eta enplegagarritasuna hobetzeko laguntza-bekak gehitzeko.
- Prestakuntza-eskaintza publikoa eguneratzea eta hobetzea, lehiakorra, kalitatezkoa eta lan-merkatu aldakorrari egokitua dela bermatzeko. Horretarako, aitortutako titulazioak eta bizitza pertsonala eta profesionala uztartzeko formatuak eskaini behar dira.

TALENTUA, BOKAZIOA, TREBAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEA

1.1.5 Gazteen sorkuntza, berrikuntza eta ekintzailetza bultzatzea.

- Lan-merkatuko joerak aztertzea, prestakuntza-eskaintza arautua zein ez arautua egungo eta etorkizuneko eskarietara moldatzeko, eta planteamenduak eta edukiak behar errealetara egokitzeko.

- Proiektuak sortzeko edo ekintzailetzan aritzeko interesa duten gazteei informazioa, orientazioa eta laguntza espezializatua ematea, gertuko zerbitzuak sortuz hiri-eremuetan, landa-eremuetan eta kostaldean.
- Orientazio integrala gehitzea ekintzailetzarako programetan, abantailak zein arriskuak jorratuz, eta aukerak eta zailtasunak modu informatu eta errealista batean ebaluatu ahal izateko prestakuntza eskainiz.
- Talentua identifikatzeko eta elkarren arteko sorkuntza sustatzeko dinamikak ezartzea, harremanak sustatuz interes profesional komunak dituzten gazteen artean eta proiektu bateratuak garatzeko lankidetzarako bideak sustatuz.

1.1.6 Bokazio ikertzailea sustatzea adin goiztiarretatik ezagutza-arlo guztietan.

- Ikerketarako bokazioa sustatzea ikastetxeetan adin goiztiarretatik, batez ere emakumeen artean, ikerketarekiko interesa sustatzen duten metodologia aktiboen eta jarduera espezifikoen bitartez.
- Ikerketaren arloko erreferenteak ikustaraztea hainbat sektoretan, espazio formal zein ez formaletan, eta haien lorpenak modu dibulgatibo batean sozializatzea eta gazteen eguneroko bizitzan duten inpaktua erakustea.
- Gazte ikerlarientzako programak indartzea eta laguntza handitzea, lan-baldintza duinak, seguruak eta kalitatezkoak bermatuz hiri-eremuetan, landa-eremuetan eta kostaldean, haien ibilbide akademikoen erabateko garapena sustatzeko.
- Gazte ikerlarien kontratazioa sustatzea sektore profesionaletan, enpresa-dinamiketan bilakaerari eta berrikuntzari egiten dioten ekarpena nabarmenduz eta baloratuz.

1.1.7 Lan-esperientzia murgiltzaileen bidez trebakuntza handitzea.

- Prestakuntza praktikoa eta konpetentzia garrantzitsuetara bideratutakoa sustatzea bigarren hezkuntzatik, proiektu errealak, simulazioak, ekintzailetzarako esperientziak eta hainbat sektoretako enpresekiko kontaktu zuzena barne.
- Titulazioen eta irteera profesionalen arteko loturak ikusaraztea, LHkoak zein unibertsitatekoak, enpleguaren bilaketa aktiboa sustatzeko eta gazteei orientazioa emateko haien erabakietan.
- Beharrezko prestakuntza osagarria identifikatzea, arautua zein arautu gabea, gazteek beren helburu profesionalekin bat datozen enpleguak lor ditzaten.
- Hezkuntzako etapa bakoitzera egokitutako jarduketak integratzea, bigarren hezkuntzatik unibertsitatera bitarte, gazteek lanbideak ezagutu ditzaten, haien erabakiak hobeto kanalizatu ditzaten eta laneko dinamikak esperimentatu ditzaten.
- Praktika profesionalen garaian baldintza duinak bermatzea, esperientzia horiek gazteen garapen profesionalari ekarpena egiten diotela ziurtatzeko.

1.1.8 Nazioarteko mugikortasuna sustatzea.

- Nazioarteko mugikortasunaren onurak adin goiztiarretatik ikusaraztea, esperientzia horiek hezkuntza- curriculumeko konpetentzia garrantzitsuen garapenarekin lotuz.
- Nazioarteko mugikortasun-proiektu berriak diseinatzea, baita dagoeneko daudenak sustatu eta babestea ere, enpresek, administrazioek edo hirugarren sektoreko erakundeek bultzatuta, atzerrian egonaldiak edo trukeak eskaintzen dituztenak, euskal gazteentzako

esperientzia formakuntza, boluntariotza eta profesionalak errazteko, bai eta munduko beste leku batzuetako gazteen etorrera sustatzeko ere, talentua erakartzeko eta sareak sortzeko helburuarekin.

- Haien kabuz nazioarteko esperientzia profesional bat sortzen duten gazteentzako bekak eta laguntza ekonomikoa sustatzea, haien curriculuma eta/edo hizkuntzen maila hobetzeko.

AHALDUNTZEA ETA GIZARTEAN PARTE HARTZEA, GIZABIDEZKO PRESTAKUNTZAREN, GIZA ESKUBIDEEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN BIDEZ

1.1.9 Memoria demokratikoa gizarte-hezkuntzan eta prestakuntza-ibilbide formaletan eta ez- formaletan txertatzea.

- Memoria demokratikoko edukiak sartzea (giza eskubideak, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak) ikasgaietan, moduluetan, ikaskuntza- eta zerbitzu-proiektuetan eta hezkuntza ez-formalean (hezkuntza-aisialdia, herritartasun-eskolak).
- Erreferenteak eta testigantzak ikuspegi pedagogikotik ikusaraztea (artxiboak, dokumentazio-zentroak, memoria-eragileak), gazte- eta genero-ikuspegiarekin.
- Irakasleak eta hezkuntza ez-formaleko taldeak prestatzea memoria demokratikoaren, pentsamendu kritikoaren eta eskubideen ikuspegiaren metodologietan.

1.1.10 Gaitasun kritikoak eta pentsamendu historikokoak garatzea, eskubideen urraketak eta praktika demokratikoak identifikatzeko.

- Iturri historikoen eta testigantzen azterketa kritikoan oinarritutako metodologia pedagogikoak txertatzea, gazteek oinarrizko eskubideen urraketak identifikatu, horiek gertatu ziren testuinguruak ulertu eta horiek prebenitzen dituzten printzipio demokratikoak ezagutu ahal izan ditzaten.
- Gogoeta historikoa eta etikoa sustatzen duten hezkuntza- eta prestakuntza-jarduerak sustatzea, iraganaren ezagutza pentsamendu kritikoaren garapenarekin, balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntzarekin eta egungo gizartean giza eskubideen defentsa aktiboarekin lotuz.

1.1.11 Memoria demokratikoko baliabide, metodologia eta materialetarako sarbide inklusiboak bermatzea aukera gutxiago dituzten gazteentzat.

- Memoria demokratikoko material irisgarri eta eleaniztunetarako (euskara/gaztelania/ingelesa) eta dibertsitate funtzionalerako egokitzapenetarako sarbide zuzena bermatzea, kalteberatasun-egoeran dauden gazteentzako laguntza ekonomiko espezifikoarekin.
- Aukera txikiagoak dituzten gazteentzako berariazko laguntza-neurriak lehenestea, memoria demokratikoari lotutako hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuetan benetan parte hartzen dutela ziurtatuz.

8.1.2 Enplegua

HELBURU ESTRATEGIKOA

GAZTEEK KALITATEZKO ENPLEGUA, DUINA ETA SEGURUA IZAN DEZATEN SUSTATZEA, ENPLEGU ETA EKINTZAILETZARAKO POLITIKA AKTIBOEN BITARTEZ, ARRETA BEREZIA JARRIZ KOLEKTIBORIK ZAURGARRIENETAN.

DESKRIBAPENA

Arlo honek erreferentzia egiten die gazteen lan-munduratzeari eta lan-munduratze horren baldintzei, langabezian, (ez)egonkortasunean eta prekarietatean eta horrek haien bizitzako proiektuan duen eraginean erreparatuz.

Bestalde, enplegua diru-iturri nagusia denez, eta, hortaz, gazteek bizi-proiektu autonomoa eta komunitatean integratua garatu ahal izateko dituzten aukerentzako bermea denez, arlo honetan gehitu dira gazteen babes soziala ziurtatzeko beharrezkoak diren baliabideen eta zerbitzuen eskuragarritasuna eta erabilera.

JUSTIFIKAZIOA

Tradizionalki, enplegua izan da pertsonek bizi-proiektu autonomoa lortzeko bitartekoa, hainbat ondasun eta zerbitzu eskuratzeko diru-sarrera nahikoak ematen baititu. Horrez gain, inklusiorako eta kohesio sozialerako elementua ere bada, gizartean posizio bat ematen duelako.

Alabaina, gazteek gero eta eskakizun handiagoak dituzte enplegu bat eskuratzeko eta horrek lan-ibilbideari ekitea zailtzen du (kualifikazio handia behar dute, aurretiazko esperientzia...), eta, aldi berean, azken hamarkadetan lan-merkatuan izandako aldaketen ondorioz, lan-merkatura sartzen ahalegintzen ari diren gazte askok edo dagoeneko lan-merkatuan daudenek lanaldi partzialeko kontratazio-tasa altuak izaten dituzte eta soldatak ez dira bizitzeko kostuen erritmo berean igotzen. Are okerragoa da egoera hori emakume gazteen kasuan, lan-baldintza okerragoak izaten baitituzte (soldata, enplegagarritasuneko tasa, lanaldi partzialeko lana...). Hori guztia dela eta, enpleguak ez du egonkortasun edo ongizate ekonomikoa bermatzen bere horretan, eta, are gutxiago, bizimodu autonomoa izateko proiektu bat hasteko oinarri egonkorra.

Hortaz, egoera hori dela eta, administrazio publikoek gazteak babestu behar dituzte enplegua lortzeko garaian; hiri-eremuan, landa-eremuan zein kostaldean sustatu behar dute enplegua, enpleguaren kalitatea bermatu behar dute eta zailtasun handiagoak dituzten edo desabantaila-egoeran dauden kolektiboei edo sektoreei lagundu behar diete uneoro.

JARDUTEKO ILDOAK

1.2.1. Prestakuntza-eskaintza praktikoagoa eta lan-merkatura bideratutakoa sustatzea adin goiztiarretatik, hezkuntzaren arloko orientazio-, aholkularitza- eta laguntza-prozesuekin osatuta, enplegurako sarbidea errazteko.

1.2.2. Besteen konturako enplegua sustatzea, eta hezkuntza-sistematik lan-merkatura bitarteko trantsizioa hobetzea, lehen esperientzia profesionala sustatzeko programen bitartez. Arreta berezia jarriko zaie egoera zaurgarrian dauden gazteei.

1.2.3. Talentua identifikatzea eta ekintzailetzarako espiritua sustatzea, norbere kontura lan egitea bultzatuz. Horretarako, formula erakargarriak, motibatzaileak eta gazteei segurtasun handiagoa ematen dietenak bultzatuko dira.

1.2.4. Kalitatezko enplegua, duina eta segurua sustatzea, lana gizarteratzeko eta bizi-proiektu autonomoak garatzeko faktore garrantzitsua izan dadin.

JARRAIBIDEAK ETA ORIENTAZIOAK

1.2.1 Prestakuntza-eskaintza praktikoagoa eta lan-merkatura bideratutakoa sustatzea, orientazio, aholkularitza- eta laguntza-prozesuekin osatuta.

- Prestakuntza praktikoagoa eta konpetentzia gakoetara bideratutakoa sustatzea, proiektu errealekin, simulazioekin eta enpresekiko harremanarekin, gazteen laneko prestakuntza hobetzeko.
- Praktikak gehitzea hezkuntzako etapa guztietan, ikasleek hainbat lanbide eta laneko dinamika ezagutu ditzaten. Garrantzitsua da praktika duinak, kalitatezkoak eta ordainduak sustatzea, informatutako aukeraketa akademiko-profesionalak egiteko.
- Aukera-berdintasuna bermatzea prestakuntza-programetan, arreta berezia jarriz egoera zaurgarrian dauden gazteengan (etorkinak, desgaitasuna duten gazteak, landa-eremuetan bizi direnak) eta sarbide parekidea bermatuz lan-merkatura egokitutako prestakuntzan.
- Orientazio- eta laguntza-programa berritzaileak garatzea, gazteei haien interesak eta helburuak deskubritzen laguntzeko. Hain ohikoak ez diren ibilbideak eta ikasketa berriak gehitzea, aukerak handitzeko eta estereotipoei aurre egiteko.
- Prestakuntza- eta orientazio-programak sartzea, berariaz 25 eta 34 urte bitarteko gazteentzat, lan- esperientziarik ez dutenentzat edo enpleguari berriro lotuta daudenentzat, arreta berezia jarriz prestakuntza geroago amaitu dutenei edo aldizkako bizi-ibilbideak izan dituztenei.
- LHri ikusgarritasuna ematea lan-mundura sartzeko aukera gisa, LHren balioa, irteera profesionalak eta garapen ekonomiko eta sozialari egiten dion ekarpena ikusarazteko kanpainen bidez. Familia profesionalei, zentroei eta garapen-aukerei buruzko informazio argia ematea.
- Prestakuntza-eskaintza lan-merkatuko joeren arabera eguneratzea, edukiak eta metodologiak eskari errealetara egokitzeko izandako bilakaera aztertuz.

1.2.2 Besteen konturako enplegurako sarbidea sustatzea, egoera zaurgarrian dauden gazteei erreparatuz bereziki.

- Hezkuntza-arlotik lan-arlorako trantsizioa hobetzea, prestakuntza eta enplegua lortzeko formulak ezarriz, gazteak lan-mundura sartu ahal izateko.
- Lehen lan-esperientzia lortzeko programak garatzea, gazteentzako sarbide espezifikoak eskaintzea eta besteren konturako enpleguan parte-hartzea sustatzea.

- Belaunaldien arteko errelebo-prozesuetan dauden enpresak dituzten gazteak konektatuko dituzten programak sustatzea, belaunaldien arteko ezagutza-trukea eta mentorizazio-ekimenen bidezko laguntza sustatuz.
- Egoera zaurgarrian dauden gazteak lan-munduratzeko programa espezifikoak garatzea, besteak beste emakumeak, etorkinak edo bazterkeria-arriskuan dauden gazteak, eta prestakuntzarako, etxebizitzarako eta orientaziorako laguntza osagarria ematea.
- Gazteen enplegua sustatzeko dauden programak berrikustea eta egokitzea, askotariko ibilbideak dituzten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteengan duten eragina hobetzeko.
- Gazteentzako enplegu-politika aktiboak sustatzea eta haien kualifikazioa handitzea, batez ere konpetentzia digitaletan, laneko informaziorako sarbidea sustatuz eta haien beharretara egokitutako enplegu-planak bultzatuz.
- Kontziliazioa enplegu-programetako oinarria izatea, gazteek bizitza pertsonala eta profesionala orekatu dezaten prestakuntza-ibilbideen hasieratik.
- Haur-eskoletako 0-2 urteko etaparen doakotasuna bermatzea, Haurreskolak Partzuergoa indartuz, lana eta familia uztartzea lehen etapetatik bultzatzen duen eta seme-alabak dituzten gazteak laneratzea errazten duen politika gisa.

1.2.3 Talentua identifikatzea eta espiritu ekintzailea sustatzea, norbere kontura lan egitea bultzatuz.

- Ekintzailetza sustatzeko formula erakargarri eta seguruak garatzea, gazteek proiektu propioak garatu ahal izateko ekimenak sortuz.
- Talentua identifikatzeko eta ekintzailetza sustatzeko mekanismoak ezartzea, aukera-berdintasuna bermatuz eta hainbat hezkuntza-mailatako gazteentzako kalitatezko programetarako sarbidea sustatuz, emakumeen parte-hartze aktiboari bereziki erreparatuz.
- Ekintzailetza sustatzea landa-eremuetan, kostaldeetan eta ekonomia sozialeko proiektuetan, arlo horiek indartzeko eta garapen jasangarriari ekarpena egiteko ekimenak bultzatuz.
- Lehen sektorearen etorkizunari ekarpena egitea, belaunaldien arteko txandaketa bermatuz, eta, horretarako, sentsibilizazio-programak, neurri pizgarriak eta araudi aldaketak berrikustea, gazteak sektore horretara sartzeko.

1.2.4 Kalitatezko enplegua, duina eta segurua sustatzea.

- Laneko eskubideei buruzko informazioa eta orientazioa hobetzea, eduki horiek hainbat ikaskuntza mailatan egiten diren enplegura bideratutako formazioetan integratuz.
- Kalitatezko enplegua sortzea sustatzea, gazteak lan-baldintza eta aukera hobeak dituzten sektoreetara bideratuz.
- Sentsibilizazio-kanpainak eta laguntza-programak sustatzea erakundeetan, euskaraz lan egiteko aukerak bultzatzeko eta horren onurak zabaltzeko.
- Prestakuntza-programak eskaintzea euskaraz, langileei eta enpresei zuzenduta, euskararen erabilera sustatzeko eta lan-arloan euskararen ezagutza handitzeko.
- Laneko praktika duinak, kalitatezkoak eta ordainduak bermatzea, gazteentzako prestakuntza- esperientzia bidezkoa eta parekidea bermatuz.

- Laneko osasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea, gazteentzako lan-ingurune seguruak sustatuz.
- Laneko istripuak prebenitzeko zaintza areagotzea, kontrolak indartuz lan-inguruneetan eta prebentzio- neurri eraginkorrak bultzatuz.
- Lan-baldintzak ikuskatzea gehiegikeriak hautemateko, eta lan-eskubideen gaineko prestakuntza- programak eskaintzea, gazteak babesteko eta informatuta izateko.
- Prestakuntza-eskaintza publikoa eguneratzea, lan-merkatuaren eskarietara eta gazteen behar espezifikoetara egokituz.

8.1.3 Etxebizitza

HELBURU ESTRATEGIKOA

GAZTEEK ETXEBIZITZA DUINERAKO SARBIDEA IZAN DEZATEN SUSTATZEA, EMANTZIPATZEN LAGUNTZEKO

DESKRIBAPENA

Emantzipatuta dagoen pertsona bat da dagoeneko jatorrizko bizikidetza-unitatean bizi ez dena, independentzia ekonomikoa edozein izanik ere eta itzultzeko asmoa izan ala ez.

Hortaz, arlo honek erreferentzia egiten dio gazteek emantzipazioaren arloan duten egoerari eta familiako etxetik ateratzeko eta bizi-proiektu autonomo bat garatzen hasteko dituzten zailtasunei. Besteak beste, etxebizitzarako sarbidearen formulak, gazte batek emantzipatzeko egin behar duen ahalegin ekonomikoa, etxebizitza-merkatuan eskuragarri dagoen eskaintza publiko zein pribatua edo existitzen diren dirulaguntzen eta babesen sistema jasotzen dira.

JUSTIFIKAZIOA

Euskadiko gazteen emantzipazioa berantiarra da inguruko beste gizarte batzuekin alderatuta eta, gainera, zifrek berresten dute hori. Fenomeno hori arazoa da jasaten duten pertsonen ehuneko handi batentzat eta biztanleria osoarentzat. Emantzipatu nahiko luketen gazteen adina atzeratu izanari dagokionez, arrazoi nagusiak dira lan-merkatuak ez duela bermatzen soldata nahikoen egonkortasuna eta etxebizitza-merkatuko prezioak ez direla eskuragarriak, ez erosteko erregimenean, ez alokairukoan.

Emantzipazio berantiar horrek ondorioak ditu gazteentzat; izan ere bizi-proiektuak (eta familiakoak) atzeratzen ditu eta, are, ezinezko bihurtu, eta horrek frustrazio handia eragin dezake batzuetan. Bestalde, belaunaldien arteko desorekak eragiten ditu ikuspegi komunitariotik eta gizartearen zahartzean eragin erabakigarria du. Halaber, ekonomian, lan-merkatuaren ordezkatzean eta babes sozialerako sistemetan eragiten dituen arazoak agerian geratzen hasi dira.

Azaldutako guztia dela eta, lehen mailako lehentasuna da gazteen emantzipazioa sustatzea, bai hori atzeratzeak dakartzan eragin sozial eta ekonomikoak arintzeko, bai desoreka horrek sortzen dituen belaunaldien arteko eta barruko desberdintasunak zuzentzeko betebehar etikoarengatik

JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOAK

1.3.1 Gazteei beren autonomia- eta emantzipazio-prozesuaren gaineko laguntza eta orientazioa ematea eta emantzipazio-formula irisgarriak, erakargarriak eta jasangarriak garatzea epe luzerako.

1.3.2 Etxebizitza-politika estrukturala eta eraginkorra garatzea, etxebizitza bat eskuratzeko arazoak jorratzeko eta gazteen emantzipazio-tasa handitzeko epe labur eta ertainean.

1.3.3 Etxebizitza publikoaren eskaintza handitzea hiri-inguruneetan, landa-inguruneetan eta kostaldean, alokairu-erregimena lehenetsiz eta irisgarritasuna bermatuz gazteei zuzendutako neurri zehatzen bidez.

1.3.4 Alokairuko etxebizitza pribatuen eskaintza sustatzeko lege- eta zerga-neurriak sustatzea, prezio eskuragarriak ezarriz, gazteen behar ekonomikoei erantzuteko.

1.3.5 Dirulaguntza ekonomiko eta finantzario espezifikoak eskaintzea gazteek alokairuko etxebizitzak eskuratu ahal izateko, eta oztopo ekonomikoak murrizteko inpaktua bermatzea.

JARRAIBIDEAK ETA ORIENTAZIOAK

1.3.1 Autonomia- eta emantzipazio-prozesuan laguntzea eta orientatzea, erabakiak hartu ahal izateko eta emantzipatzeko formula berri irisgarriak, erakargarriak eta jasangarriak lantzeko.

- Gazteei emantzipazio-prozesuan laguntzeko informazio-, aholkularitza- eta laguntza-zerbitzu eta - programa pertsonalizatuak abian jartzea, etxebizitzari, laguntzei, mugikortasunari, itzulerari eta beren autonomia sendotzeko funtsezkoak diren beste alderdi batzuei buruzko etengabeko orientazioa eskainiz. Zerbitzu horiek irisgarriak izan beharko dute, arreta online eta aurrez aurre konbinatu beharko dute, eta gazte-ibilbideen aniztasunera egokitu beharko dira, erakundeen arteko lankidetza- espazioak sustatuz eta gazteek diseinuan eta hobekuntzan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatuz.
- Hezkuntza ekonomiko eta finantzarioari eta kontsumitzaileen eskubideei buruzko programak ezartzea, gazteek beren etxea kudeatzeko eta bizimodu autonomoa izateko gaitasuna indartu dezaten.
- Emantzipazio-formula berri irisgarriak eta jasangarriak aztertzea eta sustatzea, gazteen premia eta lehentasunetara egokitutako etxebizitza-ereduak aztertuz — bai hiri-inguruneetan, bai landa- inguruneetan eta itsasertzetan —, bizikidetza-modu berriak barne hartuta, hala nola cohousinga eta colivinga, baita belaunaldien arteko klabean ere, erakunde adituekin, EGKrekin eta interesa duten beste eragile batzuekin lankidetzan.
- Etxebizitza-kooperatiben garapena sustatzea eta interesa duten gazteen eta eragile publiko edo pribatuen arteko bitartekaritza sustatzea, dauden arrakasta-esperientzien azterketatik abiatuta.
- Bizitegi-bizitza eta jarduera profesionalen edo ekintzailetzaren garapena bateragarri egitea ahalbidetzen duten etxebizitza produktiboen ereduak aztertzea eta sustatzea, bereziki ekonomia sortzailearen, digitalaren edo zerbitzu pertsonalen sektoreetan, pandemiaren ondoren sortutako bizimodu eta lan modu berriei erantzuteko.

- Emantzipazio-kultura sustatzea gazteen artean, bizimodu independentea izateko dauden moduak eta eskuragarri dauden baliabideak nabarmentzeko sentsibilizazio-kanpainen bitartez, lurralde bakoitzaren errealitatera egokituta.
- Herritar guztiei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea, etxebizitza ezinbesteko ondasuna dela nabarmenduz eta etxebizitza irisgarriak eta eskuragarriak bermatzeak duen garrantziari buruzko pedagogia soziala eginez, bereziki gazteen kasuan.
- Ahultasun handiko egoeran dauden edo familia-laguntzako sarerik ez duten gazteentzako laguntza integraleko programak garatzea, hala nola Trapezistak programa, bizitoki-baliabideak, mantenua, gizarte-laguntza, prestakuntza eta askotariko bizikidetza-ereduak konbinatuz (belaunaldien artekoa, erreferenteekin edo berdinekin). Era berean, etxeko eredu berritzaileak, tutoretza instituzionala eta mentoretza-prozesuak aztertzea eta bultzatzea, duintasun, segurtasun eta autonomia baldintzetan helduen bizitzarako igarobidea indartzeko.

1.3.2 Etxebizitza eskuratzeko arazoa modu estrukturalean jorratuko duen etxebizitza-politika eraginkor bat garatzea.

- Etxebizitzarako sarbidea ikuspegi integraletik jorratzea, gazteen emantzipazioan eragina duten faktore guztiak aintzat hartuta, hala nola hezkuntza, laneko merkatua, eskuragarri duten errenta eta hiriko- landako errealitateak aintzat hartuta.
- Existitzen diren etxebizitza-politikak eta emantzipatzeko laguntzak berrikustea, epe labur, ertain eta luzeko kausa-efektuak aztertuz eta arreta berezia jarriz baliabide gutxiago dituzten edo egoera zaurgarrian dauden gazteengan.
- Etxebizitza eskuratzeko modalitate alternatiboak aztertzea eta sustatzea, hala nola *hiri-masoveria*, errenta-truke higiezinak birgaituz, bereziki gainbeheran dauden hiri-inguruneetan.
- Formula berritzaileak bultzatzea, hala nola erabilera-lagapena, non gazteek hileko kanon onargarri baten bidez eskuratzen dituzten etxebizitzak, salerosketa- edo alokairu-merkatu tradizionaletik kanpo.
- Egoerarik zaurgarrienean daude gazteen behar espezifikoei erantzutea, hala nola etorkinei edo desgaitasuna duten pertsonei, etxebizitza-politika inklusiboak eta parekideak bermatuz.

1.3.3 Etxebizitza publikoaren eskaintza handitzea, hiri-eremuan, landa-eremuan eta kostaldean, eta irisgarriago bihurtzea.

- Eskaintza babestua handitzea, ahal bada alokairu-erregimenean, baliabide mugatuak dituzten gazteek etxebizitza duin eta irisgarrirako sarbidea izan dezaten.
- Etxebizitza-sustapen publikoen tipologia dibertsifikatzea, etxebizitzen tamaina gizarte-premia eta - errealitate berrietara egokituz, formatu txikiagoak (downsizing) kontuan hartuta, bakarrik dauden gazteei, bikoteei edo tradizionalak ez diren bizikidetza-unitateei egokituak.
- Gazteentzako etxebizitza babestuen lehentasunezko erreserba handitzea, kolektibo horrek etxebizitza bat lortzeko aukera handiagoak izan ditzan bermatzeko.
- Alokairuko etxebizitza babestuetan bizi diren pertsonen egoera ekonomikoaren gaineko jarraipena indartzea eta etxebizitza horiek benetan beharra duten pertsonek erabiltzen dituztela ziurtatzea.

1.3.4 Lege- eta zerga-neurriak sustatzea, merkatuan prezio eskuragarrian dauden alokairuko etxebizitza pribatuen eskaintza handitzeko.

- Hutsik dauden etxebizitza pribatuak merkatura sar daitezen sustatzea, alokairuan jartzea bultzatzeko programen, laguntzen eta neurrien bidez.
- Alokairuko prezioen igoera kontrolatzeko neurriak ezartzea, gazteentzako merkatu irisgarri eta jasangarria sustatuz.
- Atzerriko gazteen aurkako higiezinen diskriminazioari aurre egitea, alokairu-merkaturako sarbide- berdintasuna sustatzea eta guztientzako baldintza bidezkoak bermatzea.

1.3.5 Alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko dirulaguntza ekonomiko edo finantzarioak eskaintzea.

- Gazteentzako alokairurako dirulaguntzak handitzea, eta lurraldeetako errealitateetara egokitzea, onuradun gehiagorengana iristeko eta alokairuak haien bizi-proiektu independentean duen karga ekonomikoa murrizteko.
- Alokairuaren merkatua sustatzea jabeei zuzendutako pizgarri ekonomiko eta fiskalen bidez, hala nola bitartekaritza publikoko programetan kanona handitzea (adibidez, Bizigune), merkatu librearen bilakaerara egokituz, gazteek etxebizitza eskuragarriak eskura ditzaten errazteko.
- Abal publikoaren eta fidantzaren formula alternatiboen programak sortzea, alokairura sartzeko baldintzak murriztuz eta gazteei baldintza hobeak eskainiz.

8.2 Ongizatea eta Identitate Kulturala

8.2.1 Bizimoduak eta ingurune osasungarriak

HELBURU ESTRATEGIKOA

GAZTEEN AUTOZAINTZA SUSTATZEKO ETA HAIEN ONGIZATE FISIKOA, BURUKOA ETA SOZIALA HOBETZEKO BIZIMODUAK ETA INGURUNE OSASUNGARRIAK BULTZATZEA.

DESKRIBAPENA

Atal honek gazteen hautemandako osasun integralari eta benetakoari egiten dio erreferentzia; hortaz, dimentsio fisikoa, emozionala, burukoa, sexuala eta soziala hartzen ditu kontuan. Halaber, ongizatearen sustapenarekin eta bizimodu osasungarriaren ohiturekin lotutako praktikak biltzen ditu, hala nola jarduera fisikoa. Halaber, nahi ez diren egoerekin eta arrisku-egoerekin lotutako errealitateak hartzen ditu kontuan, hala nola, kontsumoak eta mendekotasunak, gaixotasunak, portaera- eta elikadura-desorekak, laneko istripu- tasa, trafiko-istripuak eta suizidioa.

JUSTIFIKAZIOA

Osasun-egoera da hein handi batean ongizatearen oinarria, horri esker egin baitiezaiekete aurre gazteek bizitza pertsonaleko, profesionaleko, komunitarioko eta sozialeko erronkei.

Oro har, gazteek beren osasunarekin duten asebetetzea ona da. Jarduera fisikoa egiteko ohitura arau gisa finkatuta dago kolektibo horren barruan, eta kontzientzia aipagarria dute elikadura osasungarriaren eta lo- ohituren garrantziaren gainean. Obetsitate-tasa biztanleria osoarena baino askoz ere txikiagoa da eta substantzien kontsumoak jaitsiz doaz (hala ere, adin horietan biztanleria osoaren artean baino ohikoagoak dira, batez ere, gizon gazteen artean). Hala ere, joera kezkagarri batzuk hauteman dira, esaterako, alkoholaren kontsumo ohikoa eta normalizatua, Interneten erabilera arazotsua egiten duten gazteen kopurua, nahi ez den bakardadearen hazkundea eta sexu-transmisio bidezko infekzioen hazkunde nabarmen eta geroz eta handiagoa.

Azken urteotan, Covid-19aren pandemiaren ostean batez ere, okerrera egin du gazteek beren buruko osasunaren gainean egiten duten balorazioak, eta arreta-zerbitzuetara sartzeko oztopoak eta esku-hartze plan medikalizatuegia hauteman dituzte. Hala berresten dute halaber kolektibo horri zuzendutako arretarekin lotutako adierazleek, bai zerbitzu publikoetan, bai pribatuetan, gero eta kezka sozial handiagoa helarazi baitute. Ondorioz, gero eta aldarrikapen ohikoagoa da gazteen artean buruko osasuna eta osasun emozionala zaintzeko zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea izatea, eta gaitz horien gaineko sentsibilizazioa eta sozializazioa sustatzea, estigma kentzeko.

Azkenik, osasunaren baldintzatzaile sozialei erreparatuz gero, gazteen ustez osasuna zaintzearen gaineko (batez ere emozionala eta burukoa) hezkuntza eta sentsibilizazio-falta, laneko-prekarietatea, laneko bizitza eta bizitza soziala kontziliatzeko zailtasunak eta denbora librerik eza dira ohitura osasungarri barneratuak izatea eragozten dieten arrazoiak. Ondorioz, osasunerako zaurgarritasun- eta arrisku-ziklo bat sortzen da eta erabateko osasuna eta orekatua lortzea zailtzen die.

JARDUTEKO ILDOAK

2.1.1 Adin goiztiarretatik eragitea etengabeko jarduera fisikoaren eta elikadura- eta lo-ohitura egokien onuretan, bizimodu osasungarria indartzeko eta adinarekin kronifikatu ohi diren eraginak murrizteko.

2.1.2 Gazteen buruko osasuna eta ongizate emozionala sustatzea, autozaintzaren eta buruko osasunean eragina izan dezaketen dinamikak goiz hautemateko mekanismoen garrantzian eraginez.

2.1.3 Osasun afektibo-sexualari buruzko hezkuntza, prebentzioa eta aholkularitza indartzea eta emakumeei arreta espezifikoa ematea arlo horretan, harreman onak izateko eta arrisku-praktikak murrizteko.

2.1.4 Kontsumotik eta mendekotasunak sortzeko joerak dituzten ohituretatik eratorritako kalteak eta arriskuak murriztea.

2.1.5 Gazteen ongizate integrala sustatzeko ingurune osasungarriak sustatzea, gazteen errealitateari erreparatuz eta eragile komunitario guztiekin koordinatuz.

JARRAIBIDEAK ETA ORIENTAZIOAK

2.1.1 Adin goiztiarretatik eragitea etengabeko jarduera fisikoaren eta elikadura- eta lo-ohitura egokien onuretan.

- Ohitura osasungarriak sustatzea hezkuntzako maila guztietan, formaletan zein informaletan, haurtzarotik hasi eta helduaroraino, hainbat gai jorratuz, hala nola elikadura osasungarria, jarduera fisikoaren onurak eta loaren garrantzia.
- Taldeko kirolaren edo kirol kolektiboaren praktika sustatzea, lankidetza, konpromisoa, parte-hartzea eta taldeko kide izatearen balioak bultzatzeko moduan.
- Kirol-instalazio publiko eta pribatuetarako sarbidea sustatzea eta espazio publiko irekiak behar bezala egokitzea, kirola eta ariketa fisikoa egiteko.
- Jarduera fisikorako programak eskaintzea gertuko espazioetan, hiri-eremuan, landa-eremuan zein kostaldean, eta adin eta gaitasun guztietara egokitzea, aukera-berdintasunari bereziki erreparatuz.
- Elikadura osasungarria sustatzea informazio- eta prestakuntza-ekimen irisgarrien bidez eta gazteei egokituta.
- Bizitzeko ohitura osasungarriak sustatzea gazteen erreferenteak erabiliz, gazteek bizimodu aktiboak eta orekatuak izan ditzaten inspiratzeko eta sustatzeko.

2.1.2 Buruko osasuna eta ongizate emozionala sustatzea.

- Osasun psikoemozionaleko hezkuntza-programak ezartzea haurtzarotik eta hainbat arlotan (eskola, familia, hezkuntza ez formala), emozioak identifikatzen eta kudeatzen, autozaintzarako gaitasunak garatzen eta buruko osasuna ongizate integralaren parte dela ulertzen irakasteko.
- Laguntza psikoemozionalerako zerbitzuak sustatzea, buruko osasunarekin eta ongizate emozionalarekin lotutako arazoak prebenitzeko, identifikatzeko eta goiz hautemateko.

- Buruko osasuneko sare publiko baterako sarbidea sustatzea hiri-eremuetan, landa-eremuetan eta kostaldean, gazteei etengabeko arreta eta haien behar espezifikoetara egokitutakoa bermatuz.
- Buruko osasunarekin lotutako estigmari aurre egitea, buruko osasun-arazoak dituzten pertsonak babesteko eta ulertzeko kultura sustatuz.
- Buruko osasunak agenda instituzionalean, politikoan eta mediatikoan leku nagusia izan dezan sustatzea, errealitate hori ikusaraziz eta ondoez horiek dituzten gazteen aurkako diskriminazioa edo epaiketa ekidinez.

2.1.3 Osasun afektibo-sexualari buruzko heziketa, prebentzioa eta aholkularitza indartzea, emakumeen behar espezifikoentzako arreta barne.

- Autoezagutza, autoestimua, autozaintza eta harreman afektibo-sexualetako ohitura osasungarriak integratzea eta arrisku-jarrerak prebenitzea hezkuntza formaleko zein ez-formaleko maila guztietan, haurtzarotik helduarora.
- Aholkularitza afektibo-sexuala eta autozaintza sexuala sustatzea gazteei zuzendutako espazioetan edo zerbitzuetan.
- Sexu-transmisiozko gaixotasunei buruzko sentsibilizazio-, prebentzio- eta tratamendu-kanpainak eta - ekimenak sustatzea gazteek erabiltzen dituzten komunikabideetan eta espazioetan.
- Emakumeen osasunaren zaintzan ikuspegi espezifikoa gehitzea, hainbat gai jorratuz, besteak beste, hilekoa, haurdunaldia, antikontzeptiboak eta emakumeen gorputzaren funtzionamendu ziklikoa, gazteek beraien ongizate fisiko eta emozionala kudeatzeko tresnak eskuratu ahal izateko.
- Gazteekin lan egiten duten profesionalei informazioa eta prestakuntza ematea askotariko errealitate sexu-afektiboei buruz eta kasu bakoitza jorratzeko eta beharrezkoa denean esku-hartze egokia egiteko trebatzea.
- Neska gazteekin zuzenean lan egiten duten eta esku hartzen duten profesionalei informazioa eta prestakuntza ematea emakumeen sexu-osasunari eta osasun erreproduktiboari buruz, hala nola antikontzeptiboei buruz, ziklo menstrualaren kudeaketari buruz eta haurdunaldiko ongizateari buruz, profesionalek arreta integrala eta errealitate horietara egokitutako eskaini dezaten.

2.1.4 Kontsumotik eta mendekotasunak sortzeko joerak dituzten ohituretatik eratorritako kalteak eta arriskuak murriztea.

- Autodeterminazioa, autozaintza eta gaitasun sozialak sustatzea hezkuntza formalean eta ez formalean, haurtzarotik hasi eta helduarora arte, substantzien kontsumoak eta mendekotasunak sor ditzaketen portaera-ohiturak murrizteko.
- Mendekotasunak sor ditzaketen substantzien eta ohituren gaineko kontsumo seguru eta arduratsua egiteko informazioa eta orientazioa ematea.
- Kontsumoei buruzko aholkularitza sustatzea gazteei zuzendutako espazioetan, zerbitzuetan edo programetan.
- Aisialdi osasungarrirako ingurune erakargarriak eta irisgarriak sortzeko ekimenak eta programak sustatzea, aisialdia substantzien kontsumotik bereiziz.

- Lehen pertsonako testigantzak ikusaraztea, substantzien kontsumoak eta portaera-mendekotasunek dituzten ondorioen gainean kontzientziatzeko.

2.1.5 Gazteen ongizate integrala sustatzeko ingurune osasungarriak sortzea.

- Gazteen osasun integralean eragiten duten faktore sozialak, ekonomikoak eta kulturalak aztertzea, erronka horiek modu eraginkorrean jorratzeko programa eta neurri espezifikoak diseinatzeko.
- Gazteei egokitutako sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak sustatzea gertuko baliabideei buruz, hiri-eremuan, landa-eremuan eta kostaldean, bizimodu osasungarriak sustatzeko eta arrisku-jokabideak prebenitzeko.
- Egun osasun publikoaren barruan sartzen ez diren zerbitzuen edo espezializazioen estaldura handitzea, gazte guztiei aukera-berdintasuna bermatzeko osasunaren arloan, haien egoera sozioekonomikoa edozein izanik ere.
- Eragile komunitarioak osasunaren prebentzioan eta sustapenean inplika daitezen, lankidetzan aritu daitezen eta parte har dezaten sustatzea, ingurune komunitario osasungarriak sortuz eta gertuko beste eragile batzuk inbolukratuz zeregin horretan.
- Zerbitzu komunitarioetako profil profesionalei prestakuntza eskaintzea osasunarekin lotutako arazoak identifikatzeko, osasun-zerbitzuek esku hartzeko eta/edo bideratzeko ibilbide konpetenteak ezartzeko.
- Enpresa eta organismo publikoetan eragitea, lantokiak ingurune osasungarriak izan daitezen maila fisikoan, mentalean eta sozialean.

8.2.2 Euskara

HELBURU ESTRATEGIKOA

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA SUSTATZEA EGUNEROKO BIZITZAKO ARLO GUZTIETAN.

DESKRIBAPENA

Arlo honek erreferentzia egiten dio gazteek duten euskararen ezagutzari, ohiturei eta espazio publiko eta pribatuan egiten duten erabilerari, bai eta horri garrantzia emateko, sustatzeko, irakasteko, erabilera handitzeko eta normalizatzeko ezarritako neurriei eta neurri horien irisgarritasunari ere.

JUSTIFIKAZIOA

Euskara Euskadiko bi hizkuntza ofizialetako bat izateaz gain, euskal kulturaren eta identitatearen elementu gakoa da. Horregatik, gazteen artean euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeak kohesio soziala eta bizikidetza indartzen eta euskal gizartean dagoen kultur aniztasunarekiko errespetua sustatzen laguntzen du.

Halaber, euskara jakiteak aukera berriak zabaltzen ditu hezkuntzan, kulturan eta arlo profesionalean, erakunde, enpresa eta entitate publiko askoren jarduera hizkuntza horretan garatzen baita.

Gazteen artean euskararen ezagutzak maila oso altua arren —unibertsitatezko kanpoko ikasleen bi heren baino gehiagoren komunikazio-hizkuntza da— eta erabilerak goranzko joera erakusten duen arren bai arlo ez formalean, bai informalean (aisialdi-jarduerak, denbora librekoak, harreman pertsonalak...), azken urteotan ez da joera bera izan hezkuntzaren arloan. Halaber, desberdintasun nabarmenak daude euskararen ezagutzan eta erabileran lurralde historikoen artean, zein emakumeen eta gizonen artean.

JARDUTEKO ILDOAK

2.2.1 Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea hezkuntza formalean, eta hizkuntza hori eskaintza eta jarduera guztiaren ardatz nagusia bihurtzea.

2.2.2 Euskararen erabilera sustatzea hezkuntza formaletik kanpo, hizkuntza horrek espazio handiagoa izan dezan sorkuntza-uneetan, kultura kontsumitzean, aisialdian, kirolean, familian, lanean, arlo digitalean eta abar.

2.2.3 Euskararen ezagutza sustatzea, hizkuntza ikasteko programen eta dirulaguntzen bidez eta errealitate eta behar desberdinetara egokitutako prestakuntza-eskaintzaren bidez.

2.2.4 Euskarari garrantzia ematea eta euskal hizkuntzara eta kulturara hurbiltzeko eta interesa sustatzeko ekimenak garatzea.

JARRAIBIDEAK ETA ORIENTAZIOAK

2.2.1 Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea hezkuntza formalean.

- Euskara komunikazio-hizkuntzatzat hartzea hezkuntza formalean.
- Euskara eskolaz kanpoko jardueretarako ohiko hizkuntza izan dadin neurriak hartzea; lankidetzarako bideak ezarriz administrazio publikoen, kirol-federazioen eta kultur jardueren eta aisialdiko jardueren erakunde arduradunen artean.
- Laneko praktikak euskaraz egiteko aukerak areagotzeko programak eta neurriak sustatzea.

2.2.2 Euskararen erabilera sustatzea hezkuntza formaletik kanpo.

- Euskararen erabilera sustatzea familia-arloan, eta, horretarako, baliabideak, laguntza eta jarduerak ematea familiei hizkuntza eguneroko bizitzan txertatzeko, belaunaldien arteko transmisioa sustatzeko helburuarekin.
- Euskararen eskaintza eta erabilera bermatzea eta orokortzea aisialdi hezitzailean, gazteen eta nerabeen aisialdi antolatuan, kirolean eta festetan, sentsibilizazio-kanpainen, pizgarrien eta hizkuntzaren erabilera sustatzen duten ekimenen eta ekintzen aitortzaren bitartez.
- Euskarazko jarduerak sustatzea erreferentziazko kultur eta aisialdi-espazioetan, hiri-eremuan, landa- eremuan zein kostaldean, eta euskarazko baliabideak eskaintzea adin eta maila guztientzat, hizkuntza ikasteko, erabiltzeko eta gozatzeko ingurune egokia sortuz.

- Publiko gaztearentzako erakargarriak eta garrantzitsuak diren euskarazko eduki kulturalen eta ikus- entzunezkoen ekoizpena eta zabalpena handitzea.
- Gazteek euskarazko edukiak sor ditzaten sustatzea, hizkuntza horretan sortzeko eta zabaltzeko beharrezko baliabideak eskainiz.
- Euskararen erabilera sustatzea sare sozialetan eta plataforma digitaletan, gazteek interakzioa izan dezaten eta euskarazko edukiak parteka ditzaten, arlo digitaleko erabilera sustatzeko eta publiko zabalagoarengana iristeko.
- Kirolari eta artista euskaldunak sartzea erreferente linguistiko eta kulturaltzat, eta gazteen euskararen erabileran eta normalizazioan duten inpaktu positiboa ikusaraztea.

2.2.3 Euskararen ezagutza sustatzea.

- Euskara ikasteko prestakuntza-eskaintza dibertsifikatzea, hainbat maila eta beharretara egokitutako ikaskuntza-ikastaroak eta -programak eskainiz, eta hizkuntzarekiko interesa eta motibazioa sustatzen duten metodologia berritzaileak eta erakargarriak erabiliz.
- Euskara irakasteko metodoak ikasle-taldeen behar eta ezaugarrietara egokitzea, hizkuntzaren interakzioa eta egoera errealetako erabilera sustatzen duten ikuspegi komunikatibo eta praktikoak erabiliz.
- Etorkinek eta behar bereziak dituzten gazteek hizkuntza ikas dezaten sustatzea, prestakuntza espezifikoa eskainiz haien integrazio linguistiko eta kulturalerako. Horretarako, funtsezkoa da prestakuntza-ibilbideak bermatzea, migratzaileen integrazio linguistiko eta kulturala errazteko, eta irakaskuntza-metodologia eskuragarri eta inklusiboak garatzea, aniztasun funtzionala duten pertsonentzako material egokituak eskuragarri daudela bermatuz.
- Euskararen erabilera sustatzea ikasten ari diren pertsonen artean, haien konfiantza indartzeko eta euskara praktikan jarri ahal izateko jardueren eta inguruneen bitartez.

2.2.4 Euskarari garrantzia ematea eta euskal hizkuntzara eta kulturara hurbiltzeko eta interesa sustatzeko ekimenak garatzea.

- Euskarak ondare kultural partekatu gisa duen balioa eta hizkuntza-dibertsitateak dakarren aberastasuna transmititzeko sentsibilizazio-kanpainak garatzea.
- Euskarazko sorkuntzak sustatzea eta garrantzia ematea, euskal hiztunen komunitatearentzat erakargarriago eginez eta euskal hiztunak ez direnentzat interesa piztuz.
- Elkartzeko eta elkarrizketarako espazioak sustatzea euskal hiztunen eta euskal hiztunak ez direnen artean, hizkuntzaren gaineko esperientziak, ezagutzak eta ikuspegiak partekatzeko eta elkar ulertzea eta aitortzea sustatzeko.
- Atzerriko herritarren harrera linguistikoa eta kulturala indartzea, atzerritarren kulturaren eta hizkuntzaren, eta euskal kulturaren eta euskararen arteko zubi-lana egiteko hezkuntza-estrategiak diseinatuz.

8.2.3 Kultura eta Aisialdia

HELBURU ESTRATEGIKOA

BERDINTASUNA, BALIOETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA ETA OHITURA OSASUNGARRIAK SUSTATZEN DITUEN KULTUR ETA AISIALDI ESKAINTZA GARATZEA, GAZTEEN EKIMENAK BABESTEA ETA SORKUNTZA SUSTATZEA.

DESKRIBAPENA

Arlo honetan gazteek aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko egiten dituzten praktika eta jarduera ohikoenak jaso ditugu. Hortaz, aukeratutako aisialdi-ereduaren ezaugarriekin lotutako alderdiak, zein kultur produktuak, zerbitzuak eta esperientziak kontsumitzearekin eta espazio horietara sartzearekin lotutako alderdiak jaso dira. Gainera, arlo horretako gazteen ekimenen sustapenari buruzko informazioa ere gehitu da.

JUSTIFIKAZIOA

Aisialdia eta denbora librea gazteen bizitzaren funtsezko zati bat dira. Haien erantzukizun akademikoetatik, lanetik edo beste erantzukizun batzuetatik deskonektatzeaz gain, gaitasun sozialak garatzeko, berdinekin interakzioa izateko eta pertsonen arteko harremanak indartzeko aukera ematen die. Aisialdia funtsezkoa da gazteen garapen integralerako; izan ere, beren interesak aztertzeko, pasio berriak ezagutzeko eta helburuak handitzeko aukera ematen die. Aisialdiko, kulturako edo kiroletako jardueretan parte hartzeak beren talentuak garatzeko, gaitasun fisiko eta mentalak hobetzeko eta sorkuntza sustatzeko aukera ematen die. Hala, denbora librea hazkunde pertsonalerako eta norbere burua ezagutzeko espazioa bihurtzen da.

Hortaz, garrantzitsua da gazteei zuzendutako aisialdi-eskaintzak dibertsiorako, entretenimendurako eta asebetetzerako uneak emateaz gain, haien sozializazioan laguntzea eta pertsona- eta gizarte-eredu libreak, kritikoak, parte-hartzaileak, kooperatiboak, bidezkoak, solidarioak, parekideak, dibertsitatearen aldekoak, munduari irekiak eta haien identitate eta kulturaren adierazleak sortzen laguntzea.

Horretarako, administrazio publikoak eta inplikatutako gainerako eragile pribatu eta komunitarioak ahalegindu behar dira gazte guztientzako aisialdi-eredu irisgarria garatzen, kultura, aisialdi osasungarria, pertsonen arteko topaketak eta balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzeko. Hori lortzeko, programak, baliabideak eta lankidetzak garatu behar dira.

JARDUTEKO ILDOAK

2.3.1 Kultur eta aisialdi-eskaintza erakargarria eta gazte guztientzako irisgarria garatzea, hiri-eremuan, landa-eremuan zein kostaldean, berdintasuna, balioetan oinarritutako hezkuntza, ohitura osasungarriak eta euskararen erabilera sustatuz.

2.3.2 Ingurune birtualaren ordez, aurrez aurre elkartzea eta pertsonen arteko trukea lehenesten duten kultur eta aisialdi-aukerak sustatzea.

2.3.3 Gazteak haien kulturaren eta aisialdiaren protagonistak izan daitezen sustatzea, haien ekimenak babestea, sorkuntza sustatzea eta eskaintzaren diseinuan eta garapenean parte har dezaten bultzatzea.

JARRAIBIDEAK ETA ORIENTAZIOAK

2.3.1 Gazte guztientzako kultur eta aisialdi-eskaintza erakargarri eta irisgarria garatzea.

- Balio positiboak, bizitzarako gaitasunak eta ohitura osasungarriak sustatzen dituen kalitatezko aisialdi- eredua garatzea, gazteen garapen indibidual eta komunitarioa lortzeko.
- Kultur eta aisialdi-eskaintzarako sarbidean dauden zailtasunak murrizteko neurriak ezartzea, gazte guztientzako irisgarritasun handiagoa bermatzeko, batez ere, baliabide ekonomiko mugatuak dituztenentzat eta zailtasunik handienak dituzten gazteentzat.
- Ekonomikoki irisgarriak diren aisialdirako espazio publikoak eskaintzea, gazteek haien denbora libreaz gozatzeko, baldintza-berdintasunean erlazionatzeko eta ekimen kulturalak eta aisialdikoak garatzeko.
- Gazteak elkartu ohi diren espazio publiko irekiak egokitzea eta aisialdi aktiboa eta harremanak sustatzeko elementuak ezartzea.
- Euskararen eskaintza eta erabilera bermatzea eta orokortzea aisialdi hezitzailean eta gazteen eta nerabeen antolatutako aisialdiaren, kirolaren eta jaien arloetan.
- Teknologia berrietan eta plataforma digitaletan oinarritutako estrategia berritzaileak erabiltzea eskuragarri dauden aisialdi-eskaintzen berri emateko, gazteen interesa eta parte-hartzea pizteko eduki erakargarri eta esanguratsuak sortuz.

2.3.2 Aurrez aurre elkartzea eta pertsonen arteko trukea lehenesten duten kultur eta aisialdi- aukerak sustatzea.

- Hezkuntza formalean eta ez formalean teknologiaren erabilera arduratsua eta osasungarria egiteko programak ezartzea, interakzio soziala sustatuz errealitate birtualetik kanpo.
- Kultur jarduerak, artistikoak edo aire libreko aisialdikoak sustatzea ingurune naturalarekin harremanetan egoteko, elkartzeko, digitalki deskonektatzeko eta euskara erabiltzea sustatzeko.
- Aisialdi publiko eta pribatuaren eskaintza handitzea eta dibertsifikatzea hiri-eremuan, landa-eremuan zein kostaldean, gazteen interes eta beharretara egokitzen diren kultur jarduera, kirol-jarduera, aisialdi-jarduera eta entretenimendu-jarduera erakargarriak sustatzeko, aisialdiaren, batez ere gauekoaren, eta kontsumoaren arteko lotura eteteko.
- Nahi ez den bakardadea jorratzeko prebentzio-neurriak eta babes komunitariorako neurriak sustatzea, elkartzeko espazioak eta gazteen arteko laguntzarako eta bizikidetzarako sareak sustatuz.
- Espazio publiko irekietarako eta jardueretarako sarbidea sustatzea, gazteek talde-dinamiketan parte hartu ahal izateko, kohesio soziala hobetzeko eta kide izatearen zentzua indartzeko.

2.3.3 Gazteak haien kulturaren eta aisialdiaren protagonistak izan daitezen sustatzea.

- Gazteek kulturako, kiroleko eta aisialdiko programazioaren diseinuan eta garapenean parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea, ekimen horien parte izateko formula espezifikoen bitartez.
- Gazteen boluntariotza sustatzea, kulturako eta aisialdiko proiektuetan parte-hartze aktiboa izan dezaten eta haien aisialdia esperientzia parte-hartzaileekin aberastu dadin.
- Gazteen sorkuntza sustatzea, gazteak kontsumitzaileak izateaz harago kultur eta aisialdi-sortzaileak ere izan daitezen sustatzeko, eta, horretarako, proiektu kultural eta artistiko propioak sortu eta garatu ditzaten laguntzea, batez ere, euskararen erabilera sustatzen dutenak.
- Gazteen artean elkartzeko eta bizikidetza izateko espazioak edo programak sustatzea, sozializatzeko, interesak partekatzeko eta proiektu bateratuak garatzeko.
- Gazteei beren sorkuntza garatzeko aukera ematen dieten programak edo ekimenak abian jartzea edo indartzea eta arlo kulturalean eta artistikoan izan ditzaketen proiektuak eta ideiak martxan jartzen laguntzea.
- Gazteen taldeei eta elkarteei laguntzea, kultur eta aisialdi-jarduera autogestionatuak kudea ditzaten, eta antolakuntzarako autonomia indartu dezaten.
- Gazteen kolektibo berriak sustatzea, autogestionatutako kultur eta aisialdi-jarduerak antolatzeko, eta horretarako baliabideak eta orientazioa eskaintzea.

8.3 Parte-hartzea eta Konpromiso Soziala

8.3.1 Parte-hartzea

HELBURU ESTRATEGIKOA

GAZTEEN PARTE HARTZEA SUSTATZEA, HERRITAR KRITIKO ETA AKTIBOAK GARATZEKO ETA ERALDAKETA SOZIAL ETA KOMUNITARIOETAN PARTE HAR DEZATEN LORTZEKO.

DESKRIBAPENA

Ardatz honek erreferentzia egiten die gazteek bizitza komunitarioan eta sozialean parte hartzeko mekanismoetarako dituzten sarbide-aukerei. Gazte batzuk aisialdi hezitzaileko dinamiken bidez hartzen dute parte mekanismo horietan, beste batzuk lotura zuzena izaten dute boluntariotzarako espazioekin eta/edo elkarteekin; eta, are, beste batzuk modu indibidualagoan, independentean eta proaktiboan hartzen dute parte, bai aurrez-aurre, bai birtualki. Izatez, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek areagotu egin dituzte gazteek iritzi publikoarentzako eta nahi duten gizarte-eredua eratzeko eragile aktibo gisa dituzten aukerak, eta, ondorioz, baita eragiteko eta eraldatzeko dituzten gaitasun errealak ere.

JUSTIFIKAZIOA

Parte-hartze aktiboa da ahaldundutako eta eraldaketa komunitario eta sozialarekin konprometitutako gazteriaren ondorio argienetako bat. Hala ere, parte-hartzeko formulek erakusten dute antolatzeko eta parte hartzeko modurik klasikoenak alde batera uzten ari direla gazteak, hein batean teknologia berrien eta sare sozialen ondorioz, eta dinamika gorabeheratsuagoak, malguagoak eta puntualagoak izaten dituztela, parte- hartze militantea eta denboran egonkorra izan beharrean. Nahiago dituzte formatu ez hain zurrunak eta epe luzeko konpromisorik gabeak.

Hala berresten dute boluntariotzako zereginetan gazteek duten parte-hartzeari buruzko adierazleek eta elkarteen ehunduran duten inplikazioarekin lotutako adierazleek. Zifrak egonkor mantendu diren arren duela hainbat bosturtekotatik, ez dirudi gorakada esanguratsurik izan dutenik, batez ere 20 urtetik aurrera, konpromiso akademikoek, familiarrek eta sozialek hartzen baitute haien denboraren zatirik handiena pixkanaka. Hala ere, gazteen zati nahiko adierazgarri batek aurrez aurreko bitartekoak eta birtualak bilatzen jarraitzen du arlo komunitarioan, sozialean eta instituzionalean eragiteko.

Gazteen parte-hartzea ahultzen duen beste faktoreetako bat da, batez ere arlo instituzionalean, arlo horretan esperientzia ez oso asebetegarriak eduki izana. Erakundeekiko interes-faltaren eta/edo mesfidantzaren arrazoia izaten da aurreko prozesuetan entzunak eta baloratuak ez sentitu izana, izan parte hartu duten prozesuen gaineko atzeraelikadurarik jaso ez dutelako, edo haien ekarpenek eragin errealik izan ez dutelako eragiten dieten politika publikoen gaineko erabakiak hartzeko garaian. Horrek guztiak mugatu eta murriztu egiten du haien parte-hartze aktiboa.

Hala ere, administrazio publikoentzat ere ez da erraza oztopo hori gainditzea, funtzionatzeko modua aldatzea, eta gertutasuna eta horretarako prestutasuna adieraztea, gazteen iritzia jasotzeko formula egokiagoak eta eraginkorragoak bilatzeko. Hein batean, hainbat profiletako gazteengana iristea kostatzen zaielako, batez ere elkarteen edo plataformen bidez antolatuta ez daudenengana, zailagoa baita harremanetarako bide zuzenak eta bi norabidetakoak ezartzea. Politika publikoak diseinatzeko garaian eragin erreala izango duten parte hartzeko sareak eta bideak sortzea eta gazteek eurei eragiten dieten kontuetan erabakiak hartu ahal izateko parte-hartze espazio irekiak sortzea jorratzeke dauden alderdiak dira oraindik ere.

JARDUTEKO ILDOAK

PARTE HARTZEA, INTZIDENTZIA ETA ERALDAKETA SOZIALA

3.1.1 Gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea titulartasun publikoko gazteen zerbitzuetan, ekipamenduetan eta proiektuetan eta, horretarako, diseinu-, kudeaketa- eta ebaluazio-prozesuetan inplikatzea.

3.1.2 Gazteentzako lankidetza-espazioak sortzea, gazteek beren interesei eta beharrei erantzungo dieten eraldaketa sozialerako proposamenak eta ekimenak zuzentzeko aholkularitza, laguntza eta baliabideak jaso ditzaten.

3.1.3 Egungo joeretara egokitutako parte-hartze sozialerako modu berriak aztertzea eta sustatzea, gazte guztientzako irisgarriak eta malguak izan daitezen eta eredu tradizionalak eta egitura formalak gainditu ditzaten.

3.1.4 Gazteen presentzia areagotzea erabakiak hartzeko espazioetan, politika publikoak diseinatzeko eta exekutatzeko garaian gazteek rol adierazgarria izan dezaten bermatzeko, batez ere kolektibo horrengan inpaktu zuzena duten arloen kasuan.

AISIALDI HEZITZAILEA, BOLUNTARIOTZA ETA ASOZIAZIONISMOA

3.1.5 Aisialdi hezitzailea ezinbesteko eskubide gisa indartzea, eta balioetan oinarritutako hezkuntzarako, parte-hartze komunitariorako eta herritar aktiboak eraikitzeko espazioa dela nabarmentzea.

3.1.6 Boluntariotzaren ekarpenaren ikusgarritasuna eta aitortza hobetzea, ongizate komunitarioari egiten dion ekarpenari eta gizarte-eraldaketan duen inpaktuari garrantzia emanez.

3.1.7 Gazteek elkarteen ehundurarekin duten lotura indartzea, haien parte-hartzea sustatzea eta belaunaldi berri bat sustatzeko lidergo berriak sortzea.

MEMORIA DEMOKRATIKOA, HERRITARTASUN KRITIKO, AKTIBO ETA ERANTZUKIDETASUNERAKO OINARRI GISA

3.1.8 Gazteek memoria demokratikoan parte hartzeko espazio egonkorrak sortzea (diseinua, gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa).

3.1.9 Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) memoriaren arloko egiturazko solaskide gisa duen zeregina indartzea, gazteen eta administrazioen arteko zubi-lana eginez.

JARRAIBIDEAK ETA ORIENTAZIOAK

PARTE HARTZEA, INTZIDENTZIA ETA ERALDAKETA SOZIALA

3.1.1 Gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea titulartasun publikoko gazteen zerbitzuetan, ekipamenduetan eta proiektuetan.

- Erabiltzaile gazteek ideiak eta proposamenak adierazteko mekanismo parte-hartzaileak ezartzea, zerbitzuen eta ekipamenduen antolakuntzan eta programazioan integratzeko, eta haiei zuzenean eragiten dieten gaiei buruzko gogoeta bateratua egiteko espazioak sustatzea.
- Zerbitzuak eta ekipamenduak diseinatzea eta hobetzea prozesu parte-hartzaileen bidez, gazteen kide izatearen zentzua indartuz eta ingurunearekiko lotura sustatuz, tokiko eragileekin lankidetza-proiektuak sustatuz.
- Lankidetza publiko-sozialak sustatzea, gazteen elkarteak zein elkartetan ez dauden gazteak beraiei eragiten dieten zerbitzuen eta proiektuen diseinuan, ezarpenean, jarraipenean eta ebaluazioan inplikatuz.
- Dibertsitateari buruzko jarraibideak txertatzea programa eta zerbitzu publikoetan, sarbide- berdintasuna bermatzea eta profesionalak arlo horretan trebatzea.

3.1.2 Gazteentzako lankidetza-espazioak sortzea.

- Gazte talentudunen eta ekintzaileen arteko lankidetzarako eta trukerako espazio espezifikoak sortzea, ingurune komunitarioarekin duten lotura sustatuz, aholkularitza eta laguntza eskainiz eta haien autonomia errespetatuz.
- Antzeko interesak eta aspirazioak dituzten gazteen topaketak antolatzea, elkarren arteko sorkuntza eta eragin komunitarioa duten zein ez duten ekimen kolaboratiboak garatzea sustatzeko.
- Aholkularitza, finantzaketa eta babes instituzionala eskaintzea gazteek beren ideiak eta proiektuak garatzeko, beren autonomia errespetatuz eta ingurune bakoitzaren berezitasunetara egokituz.
- Gazteen proiektu arrakastatsuak ikusaraztea eta publikoki aitortzea, eta berrikuntza sozial eta komunitarioa sustatzen duten lankidetza-sorkuntzarako ideia zein dinamika berritzaileak eta eraldatzaileak nabarmentzea.
- Espazio autogestionatuak ezartzea gazteek ikuspegi parte-hartzailea eta komunitarioa duten proiektuak zuzendu eta garatu ditzaten, beren independentzia sustatuz.

3.1.3 Parte-hartze sozialerako modu berriak aztertzea eta bultzatzea, egungo joeretara egokituz.

- Parte hartzeko dinamika eta prozesu seguruak eta gertukoak sortzea erreferentziazko gazteentzako espazioetan eta zerbitzuetan, gazteen inplikazio aktiboa eta egonkorra bultzatzeko.
- Parte hartzeko formula dibertsifikatu eta malgu berriak sustatzea, gazteen profil desberdinen dinamiketara, errutinetara eta lehentasunetara egokituta, eta ohiko sareetatik urrutien daudenak ere barne hartzea, bizitza komunitarioan, sozialean eta politikoan inplika daitezen sustatzeko.

- Teknologia berrien eta sare sozialen aukerak aprobetxatzea parte-hartze prozesu interaktiboagoak eta irisgarriagoak sustatzeko, gazteen erritmoetara eta kanalik gogokoenetara egokituta.
- Komunikazio-kanalak indartzea eta dibertsifikatzea, parte hartzeko aukerei buruzko informazioa irisgarri bihurtzeko, eta antolatu gabeko gazteak, mugimendu sozialak eta elkarteetan ez dauden kolektiboak barne hartzea.
- Gazteek parte hartzeko espazioak elkarteekin, plataformekin eta sare komunitarioekin lotzea, dinamika komunitarioetatik urrun dauden gazteek proiektu eraldatzaileetan parte hartzeko.
- Gazteen parte-hartzea inpaktu erreala duten proiektuekin lotzea eta ez soilik kontsulta-prozesuekin, eta tokiko inguruneetan eta politika instituzionalean izandako emaitzak ikusaraztea, inplikazio esanguratsuagoa sustatzeko.
- Etengabeko parte-hartzearen kultura sustatzea, gazteen eta administrazioen arteko elkarrizketarako eta gogoetarako espazioak garatuz, eraldaketa sozial eta politikoan duten rola indartzeko.

3.1.4 Gazteen presentzia handitzea erabakiak hartzeko espazioetan.

- Gazteen eta Administrazio Publikoen artean etengabeko elkarrizketak izateko espazioak sustatzea, aurrez aurrekoak zein telematikoak, entzute aktiboa eta gogoeta sustatzeko eta beren beharrak eta interesak jorratuko dituzten konponbideak bilatzeko elkarrekin.
- Kanal, metodo eta tresna irisgarriak ezartzea gazte guztiek politiketan, programetan eta ekimenetan parte har dezaten, haien baldintzak edozein izanik ere, eta, hala, prozesu eraginkorrak, inklusiboak eta etengabeak berma daitezen.
- Parte-hartze estrukturala eta aktiboa sustatzea gazteen erabakietan, prozesu parte-hartzaileetan etengabeko atzeraelikadura bermatuz, erakundeen gaineko konfiantza eta diseinatutako politika publikoen garrantzia indartzeko.
- Erantzuteko eta kontuak emateko konpromiso instituzionala bermatzea eta prozesu parte-hartzaileen emaitzak ikusaraztea, gardentasunaren eta lorpen ukigarrien zabalpenaren bidez.
- Parte hartzeko aukerei buruzko komunikazioa indartzea, elkarteetan dauden gazteek, elkarteetan ez daudenek eta kolektibo informaletakoek politika publikoen diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan eragiteko dauden moduak ezagutu ditzaten.
- Hirugarren sektoreko erakundeek zubi gisa duten rola indartzea, ohiko sareetatik urrun dauden gazteek administrazioekin harremana izatea sustatuz atzemateko eta laguntzeko ekintza espezifikoen bidez.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) papera indartzea, gazteen parte-hartze eta elkarrizketarako gune nagusi gisa, erabakiak hartzeko prozesuetan duen presentzia bermatuz eta Administrazio Publikoen eta gazteen arteko zubi-lana errazteko.
- Parte hartzeko kanalak dibertsifikatzea, aukera irisgarriak ezarriz modu indibidualean zein kolektiboan parte hartzeko eta antolatuta ez dauden mugimenduak ere sartzeko.
- Sailen arteko foroak ezartzea gazteen gaiak zeharka lantzeko eta administrazioko sailen arteko koordinazioa sustatzeko, gazteen beharrei modu integratu batean erantzuteko.
- Erakundeen sentsibilizazioa sustatzea eta izapideak sinplifikatzea, administrazioek gazteen erronkak uler ditzaten sustatzeko eta prozedura parte-hartzaileetarako sarbidea hobetzeko.

- Antolatu gabeko gazte-taldeekin elkarrizketa erraztea eta mekanismo administratiboak egokitzea, gazte-elkarteek parte hartu ahal izateko, burokrazia oztopo izan ez dadin.
- Gazteen prozesu parte-hartzaileetan aisialdiko, denbora libreko eta eskola kiroleko jarduerak integratzea, komunitatearekiko lotuta indartzeko.

AISIALDI HEZITZAILEA, BOLUNTARIOTZA ETA ASOZIAZIONISMOA

3.1.5 Aisialdi hezitzailea ezinbesteko eskubide gisa indartzea.

- Ikastetxeen eta aisialdiko elkarteen arteko loturak indartzea, gazteen garapen integrala sustatuko duten gertuko hezkuntza komunitateak sortzeko.
- Adin-tarte bakoitzera egokitutako (haurtzaroa, nerabezaroa eta gazteria) hezkuntza formaleko zein ez formaleko programak sustatzea, prozesu parte-hartzaileekin esperimentatzeko eta arlo komunitarioan, sozialean eta politikoan inplikazio aktiboak duen garrantzia nabarmentzeko.
- Familiei eta ikastetxeei sentsibilizazioa eskaintzea aisialdi hezitzaileak gazteen garapen integralerako duen balioari buruz, ekimen horiek babestu ditzaten sustatzeko.
- Aisialdi hezitzaileko profesionalen eta boluntarioen lana aitortzea eta duintzea, etengabeko prestakuntza eskainiz, garapen profesionalerako aukerak emanez eta haien lan-baldintzak hobetuz.
- Hezkuntza-aisialdiko agente-sistemari laguntza indartzea, hurbileko gizarte-hezkuntzako zerbitzuak zein aisialdiko gazte-elkarteak barne hartuz, baliabideak eta laguntza bermatuz taldeak, sareak eta aisialdiko eskolak indartzeko, sozializaziorako, gizarteratzeko eta gazteen identitatea eraikitzeko funtsezko espazio gisa.
- Hezkuntza-aisialdiaren eta Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren arteko koordinazioa sustatzea, bien arteko sinergiak bermatuz, gizarteratzea, gazteen ongizatea eta errealitate eta behar ezberdinetara egokitutako hezkuntza- eta aisialdi-aukerak eskuratzeko bidea hobetzeko.
- Prozesu parte-hartzaileetan eta komunitarioetan rol aktiboak dituzten gazteak ikusaraztea, eta figura inspiratzaile gisa eta hezkuntza ez formalean jarraituko beharreko eredu gisa nabarmentzea.
- Hirugarren sektoreko erakundeen eta hezkuntza-aisialdiko elkarteen arteko sareko lana sustatzea, balioetan oinarritutako hezkuntzarako eta parte-hartze komunitariorako proiektu kolaboratiboak diseinatuz, inpaktu positiboa izateko gazteen artean.

3.1.6 Boluntariotzak egiten duen ekarpenaren ikusgarritasuna eta aitortza hobetzea.

- Ikastetxeei eta elkarteei laguntza ematea lankidetza-proiektuak sustatzeko, gazteek boluntariotzako lehen esperientziak izan ditzaten ingurune seguru eta aberasgarri batean.
- Boluntariotzarako formula malgu eta irisgarriak sustatzea, gazteek aisialdirako aukera esanguratsutzat hartzeko dauden aukerak ikusarazteko.
- Gazteen boluntariotzarako programa espezifikoak sustatzea, gazteek garapen komunitarioan inpaktu erreala duten proiektuetan parte har dezaten bultzatzeko.
- Boluntariotzak gizarte-eraldaketan duen inpaktuari buruz kontzientziatzea, eta proiektu horiek gazteen gertuko inguruneetan zein lantzen diren kolektiboetan dituzten onurak nabarmentzea.

- Boluntario gazte aktiboekin loturak indartzea, haien harrera, laguntza eta prestakuntza optimizatuz, esperientzia positiboa eta etengabea bermatzeko.
- Emakumeen lidergoa sustatzea boluntariotzan, emakumeek zuzendaritzako roletan parte-hartze aktiboa izan dezaten bultzatzeko eta haien ahalduntzea eta ikusgarritasuna indartzeko erakundeen barruan.
- Gazteek boluntariotzari egiten dizkioten ekarpenak aitortzea eta baloratzea, batez ere, eraldaketa sozialerako proiektuetan eta komunitateak indartzen dituzten proiektuetan.
- Gazteen boluntariotza egiaztatzeko sistema bat bultzatzea, egindako jarduerak eta ekarpen soziala ofizialki aitortzeko.

3.1.7 Gazteek elkarteen ehundurarekin duten lotura indartzea.

- Gazteak elkarteen ehunduran inplika daitezen sustatzea, beren konpromisoari eusteko eta bizitzako etapa guztietan bilakaera izateko erraztasunak eskainiz.
- Gazteen asoziazionismoa parte-hartze eraginkorrerako modu bat dela ikusaraztea, eta arlo komunitarioan, sozialean, instituzionalean eta politikoan duen inpaktua eta antolakuntza kolektiboaren bidez helburu eraldatzaileak sustatzeko duen gaitasuna nabarmentzea.
- Gazteen elkarteak eta plataformak sortzeko neurriak eta laguntzak ezartzea, askotariko helburuak dituzten eta gazteen beharrekin bat datozen ekimenak ugaritzea sustatzeko.
- Existitzen diren gazteen elkarteak indartzea, eta haien egonkortasuna eta iraupena bermatuko duten ekimenak eta proiektuak garatzeko gaitasuna dutela bermatzea.
- Gazteen elkarteen arteko sareak sustatzea, bai izaera berekoak diren elkarteen artekoak, bai izaera desberdina dutenen artekoak, esku hartzen duten alde guztien onurarako lankidetza-ekimenak sustatzeko.
- Hainbat belaunaldi elkartzeko eta trukatzeko espazioak sustatzea, gazteen elkarteak beste adin-tarte batzuetako elkarteekin lotuz, ezagutza eta esperientzia baliotsuak trukatzeko.

MEMORIA DEMOKRATIKOA, HERRITARTASUN KRITIKO, AKTIBO ETA ERANTZUKIDETASUNERAKO OINARRI GISA

3.1.8 Gazteek memoria demokratikoan parte hartzeko espazio egonkorrak sortzea {diseinua, gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa).

- Gazte-zerbitzuetan eta -ekipamenduetan partaidetza-mekanismoak ezartzea, gazteek memoria- jarduerak batera diseina ditzaten (ibilbideak, foroak, laborategi zibikoak, kultura-bitartekaritzak).

3.1.9 Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) memoriaren arloko egiturazko solaskide gisa duen zeregina indartzea, gazteen eta administrazioen arteko zubi-lana eginez.

- EGK-k prozesu horien gobernantzan parte-hartze eraginkorra izango duela bermatzea (erakundeen arteko koordinazio-organoetan ahotsa izango du), elkartekide diren eta ez diren gazteekin elkarrizketa erraztuz.

8.3.2 Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna

HELBURU ESTRATEGIKOA

GIZARTE PAREKIDEAGOA ETA EMAKUMEENTZAKO DESBERDINTASUNIK ETA DISKRIMINAZIORIK GABEA LORTZEKO AURRERAPAUSOAK EMATEA.

DESKRIBAPENA

Atal honetan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun- eta diskriminazio-egoerak sortzen diren errealitatearen dimentsioak aztertuko ditugu, ikuspegi intersekzional batetik aztertuz desberdintasun horiek emakumeengan izan dezaketen eragina, adina, jatorria edo egoera sozioekonomikoa bezalako faktoreen arabera. Halaber, emakumeak desabantailan dauden esfera pertsonal, material, sozial, kultural eta ekonomikoak ere ikusarazten ditu, benetako aukera-berdintasuna baldintzatzen baitute eta zaintzen erantzukidetasunean garrantzia azpimarratzen du berdintasun errealerantz aurrera egiteko funtsezko elementu gisa, gizonen eta emakumeen artean banaketa ekitatiboa sustatuz eta bateragarritasuna ikuspegi intersekzional eta feminista batetik erraztuz.

JUSTIFIKAZIOA

Ezinbestekoa da administrazio publikoek gazteei zuzendutako politikak bultzatzea, berdintasunean eta emakumeen eta gizonen erantzukidetasunean aurrerapausoak emateko; izan ere, diskriminazioak errealitatea izaten jarraitzen du oraindik. Azken urteetan arlo horretan aurrerapen handiak egin diren arren, oraindik desberdintasun handiak daude emakumeen eta gizonen artean lan-arloan edo zaintza-lanen banaketan, zeinak gehienbat emakumeen gain jarraitzen duten,, adibide batzuk aipatzearren.

Emakumeak ahalduntzea gakoa da berdintasunaren aldeko borrokan. Administrazio publikoei dagokie emakumeek gizarteko arlo guztietan parte hartzeko politikak sustatzea; politikan, ekonomian eta kulturan barne. Beharrezkoa da emakumeak edozein arlotara sartzea edo sustapena izatea eragozten duten oztopoak ezabatzea, eta emakumeen autonomia eta ahalduntzea sustatzea. Ildo horretan, ezinbestekoa da zaintza-lanak aitortzea eta berrantolatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako erantzukidetasuna sustatuz, arlo horretan dagoen desberdintasuna murrizteko.

Bestalde, indarkeria matxistarekin desagerraraztea premiazko zeregina da eta administrazio publikoek beren rol aktiboa indartu behar dute. Emakume gazteena talde bereziki zaurgarria da indarkeria horrekiko; beraz, beharrezkoa da arrisku-egoerak prebenitzeko, indarkeria matxistaren seinaleak goiz hautemateko eta biktimei beharrezko laguntza eta babesa eskaintzeko hezkuntza sustatzea. Horretarako, ikuspegi intersekzional bat aplikatu behar da, emakume gazteen errealitate eta zaurgarritasun ezberdinei erantzuteko.

Hala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko politikak sustatzea ezinbestekoa da gizarte bidezkoagoa eta inklusiboagoa sortzeko, eta pertsona guztiek erabateko garapena izateko eta ongizate komunari ekarpen parekidea egitea lortzeko. Autoritateen erantzukizuna da errespetuan, berdintasunean eta diskriminaziorik ezan oinarritutako balioak sustatzea, orainaldi eta etorkizun parekideagoa eta indarkeria matxistarik gabea eraikitzeko.

JARDUTEKO ILDOAK

3.2.1 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea arlo guztietan, sentsibilizazio-programen eta desberdintasuna eta genero-diskriminazioa desagerrarazteko prestakuntzaren bitartez.

3.2.2 Arrisku-egoerak identifikatzea eta indarkeria matxista desagerraraztea, emakume nerabe eta gazte biktimentzako sentsibilizazio-, prebentzio- eta arreta neurriak ezarriz.

3.2.3 Emakume gazteen ahalduntzea sustatzea, indibidualki zein maila kolektiboan, eta haien autonomia ekonomikoa, parte-hartze soziala eta giza eskubideak, eskubide zibilak eta politikak erabat gauzatzea sustatzea, betiere, indarkeria matxista desagerrarazteko.

3.2.4 Maskulinitate-eredu berriak sustatzea gizon gazteen artean, balio parekideak bultzatuz eta desberdintasunak betikotzen dituzten genero-estereotipoekin amaituz.

JARRAIBIDEAK ETA ORIENTAZIOAK

3.2.1 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea arlo guztietan.

- Gazteentzako sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak garatzea, intersekzionalitateari, hezkidetzari, feminismoari eta zaintzen erantzukidetasuna buruzko edukiak integratuz, emakume gazteei eragiten dieten desberdintasunak ikusaraziz, eta bizitzako dimentsio guztietatik (lanekoa, politikoa, soziala, kulturala...) jarduketa horiek ezabatzeko beharra nabarmenduz.
- Hezkuntza formala zein ez-formala tresna eraldatzaile gisa erabiltzea, berdintasuna eta zaintzen erantzukidetasuna eguneroko eredu eta praktika gisa sustatzea haurren eta nerabeen artean eta egiturazko aldaketak sustatzeko kontzientziazio-ekimenetan hezkuntza-komunitate osoa inplikatzea.
- Berdintasunaren arloko prestakuntza sustatzea hezkuntza ez formaleko profesionalentzat, hezkuntzako praktiketan berdintasuna bultzatzeko duten gaitasuna indartuz.
- Berdintasun-programen irismena hezkuntza ez formaleko espazio berrietara zabaltzea, hiri- eremuetan, landa-eremuetan zein kostaldean, nerabe eta gazte gehiagorengana iristeko.
- Gazteen artean erantzukidetasunean oinarritutako bateragarritasuna sustatzea, zaintza-lanen eta etxeko zereginaren banaketa ekitatiboa bultzatuz. Horretarako, hezkuntza-programak, sentsibilizazio- kanpainak eta hezkidetza sustatzeko eta gizonen inplikazioa areagotzeko ekintzak garatzea.
- Berdintasuna sustatzea sektore sozial guztietan, kulturaren, zientziaren, kirolaren, politikaren eta enpresaren arloko erreferenteak inplikatuz desberdintasunen aurkako ekintza zehatzetan.
- Gazteek gidatutako ekimenak bultzatzea sentsibilizaziorako eta gizarte-eraldaketarako, berdintasunaren, zaintzen erantzukidetasuna eta bizitzako arlo guztietan diskriminazioak ezabatzearen garrantzia ikusarazten lagunduko duten eztabaidak eta ekintzak sustatuz.
- Gizonek parte-hartze aktiboa izatea berdintasunaren eta erantzukidetasunaren sustapenean, eta berdintasunak beraientzat zein gizarte osoarentzat dituen onurak nabarmentzea, ikuspegi aldekoagoa sortzeko.

3.2.2 Arrisku-egoerak identifikatzea eta indarkeria matxista desagerraraztea.

- Hezkuntza afektibo-sexuala sustatzea, errespetuan oinarritutako harreman-ereduak bultzatzea eta pornografian erreproduzitzen diren emakumeen aurkako indarkeria-patroiei aurre egitea.
- Nerabe eta gazteentzako sentsibilizazio-programak garatzea, indarkeria matxista, diskriminazio intersekzionala eta testuinguru digital eta fisikoetako arriskuak jorratuz, arreta berezia jarriz sare sozialen inpaktuan.
- Sare sozialetan sexu-jazarpena prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko neurri espezifikoak ezartzea, emakume gazteak babesteko eta beren ongizate digitala bermatzeko.
- Emakumeek espazio publikoan duten segurtasuna eta pertzepzioa indartzea, batez ere gauean, arazo horri aurre egiteko neurri zehatzen bidez.
- Portaera sexistak edo indarkeria matxistako aurrekariak dituzten haur, nerabe eta gazteentzako prebentzio-jarduketak ezartzea, berriro egitea prebenitzeko esku-hartzeak bermatzeko.
- Indarkeria matxistaren biktima izan diren haur, nerabe eta gazteentzako arreta integral eta pertsonalizatua bermatzea, eta zerbitzu publikoek erantzun irisgarriak, espezializatuak eta kalitatezkoak ematen dituztela bermatzea, biktimen egoera pertsonala, soziala edo administratiboa edozein dela ere.
- Indarkeria matxistaren aurrean erantzuteko mekanismoak indartzea, eta arlo guztietako baliabideak eta neurriak sendotzea, arazo horri modu eraginkorrean erantzuteko.

3.2.3 Emakume gazteen ahalduntzea sustatzea.

- Emakumeek arlo eta espazio guztietan parte har dezaten sustatzea, presentzia parekidea bultzatuz, ingurune seguruak sustatuz eta diskriminazio positiborako neurriak ezarriz; politikan, erakundeetan, enpresetan, arlo sozialean, kulturalean eta mediatikoan erabakiak hartzeko postuetara eta lidergo postuetara iristea errazteko.
- Emakume gazteak emantzipatzeko ibilbideak sustatzea, eta beren autonomia ekonomiko eta pertsonala ahalbidetzeko baliabideak eta neurriak eskaintzea.
- Laneko diskriminazioa eta desberdintasunak desagerrarazteko neurriak ezartzea, sektore maskulinizatuetan berdintasuna bermatzeko eta sektore feminizatuen balioa handitzeko ekintzak eginez, emakumeen lan-baldintzak hobetuz eta gizon eta emakumeentzako erakargarri bihurtuz.
- Emakume gazteak ahalduntzeko programa espezifikoak garatzea maila indibidualean, zein kolektiboan, betiere, aisialdiaren, kulturaren eta sexualitatearen arloan, eta beren garapen integrala eta lidergo soziala sustatzea.

3.2.4 Gizon gazteen artean maskulinitate-eredu berriak sustatzea.

- Maskulinitate-eredu berrietan sentsibilizatzea eta heztea adin goiztiarretatik, eta genero-rol tradizionalak zalantzan jartzeko eta emakumeen eta beste gizon batzuenganako errespetua eta berdintasuna sustatzeko hezkuntza-programak eta tailerrak garatzea.
- Maskulinitatearen eredu positiboak ikusaraztea eta kanpainak egitea agresibitatetik eta matxismotik urruntzen diren gizonen adibideekin, errespetua, enpatia eta lankidetza nabarmentzeko.

- Berdintasunaren aurkako jarrerei aurre egitea, arbuio-diskurtsoak neutralizatzea eta jarrera negatiboak birbideratzea gizon gazteen sektore jakin batzuen artean.
- Gizon gazteei laguntza psikosoziala eta baliabideak eskaintzea beraien identitate maskulinoa arakatu eta birdefinitu ahal izateko, modu osasungarrian eta estereotiporik gabe, eta maskulinitatearen gaineko ikuspegi inklusiboa eta errespetuzkoa sustatzea.

8.3.3 Dibertsitatea eta Bizikidetza

HELBURU ESTRATEGIKOA

PERTSONEN BEREZKO ANIZTASUNA AITORTZEA, BIZIKIDETZAN ETA KOHESIO SOZIALEAN AURRERAPAUSOAK EMATEKO.

DESKRIBAPENA

Atal honek gazteen artean dauden askotariko profilak adierazten dituzten baldintzak jorratzen ditu. Halaber, profilen arteko eguneroko harremanean dauden erraztasunak eta zailtasun espezifikoak ere jaso ditugu: bizikidetzaren erronkak. Hortaz, atal honetan daude jasota profil horiek bizitza pribatuarekin eta publikoarekin lotutako dimentsioen aitortzarekin, sarbidearekin eta gozamenarekin lotutako alderdiak, horiek baldintzatzen baitute ez diskriminatzeko eskubidea eta aukera-berdintasuna betetzea. Profilen aniztasuna eta dinamika komunitarioaren parte izatea (edo kanpo geratzea) definitzen duten baldintzatzaileak lotuta daude identitatearen edo egoeraren alderdiekin. Horregatik, errealitate oso desberdinak jasotzen dira, hala nola dibertsitate funtzionala, dibertsitate afektibo-sexuala, jatorriaren dibertsitatea, gurtzaren dibertsitatea, egoera administratiboaren gaineko dibertsitatea eta migrazio-estatusaren gainekoa...

JUSTIFIKAZIOA

Gazteen profila zein Euskadiko gizarte osoarena nabarmen aldatu da azken urteotan. Dinamika pribatuen eta publikoen errealitatea gero eta anitzagoa da, eta, ondorioz, politika publikoak birpentsatu egin behar dira aukera-berdintasuna bermatzeko; era berean, bizikidetza-eredu berri bat kudeatu behar da. Hala ere, horrek argi erakusten du gero eta konplexuagoa dela gazteriaren arloan politika bakarra diseinatzea eta zabaltzea, gazte guztientzat irisgarria eta inklusiboa izango dena, beren identitatea eta egoera edozein izanik ere.

Lehenik eta behin, ikastetxeak aukera-berdintasuna sustatzeko espazioak diren arrean, egun eskola- segregazioak errealitatea izaten jarraitzen du eta horrek argi islatzen du dagoen desoreka soziala eta espazioaren bereizketa. Kasu askotan, profil sozioekonomiko zaurgarria duten adingabeak kontzentratzeak beren garapen- eta bilakaera-aukerak murrizten ditu, eta desberdintasun-dinamikak sustatzen dira. Desberdintasun horiek gaztaroan ere irauten dute beste dimentsio batzuetan, hala nola kalitate handiagoko enplegurako edo jabetzako etxebizitza baterako sarbidean; batez ere, baldintza horietan dauden gazteek babes-sarerik ez badute.

Euskadin bizi diren atzerriko pertsonen kasuan, erdia baino gehiago diskriminatuta sentitu da noizbait jaioterriarengatik. Immigranteen etorrerarekiko arbuioa hutsala den arren EAEko gazteen artean, zati adierazgarri batek uste du EAEn atzerriko pertsona gehiegi daudela.

Gazteen artean hauteman den desberdinen aurkako beste bizikidetza-arazoetako bat jazarpena da. Arazo hori gero eta ugariagoa da eta errealitate digitalera ere pasatu dira dinamika horiek (ziberjazarpena). Horregatik, ezinbestekoa da errespetua eta gizarteratzea sustatzea gazteen artean eta desberdintasuna aktibo bat dela aitortzea. Horretarako, arlo guztietarako sarbidean eta sustapenean aukera-berdintasuna bermatzeko politikak, neurriak eta programak sentsibilizatu, ikusarazi eta ezarri behar dira, eta gazte guztien ongizatea bermatu behar du, beren jatorria, sexu-orientazioa, (des)gaitasuna eta/edo egoera administratiboa edozein izanik ere. <Dibertsitate= batzuk onartuago daude gazteen artean beste batzuk baino; izan ere, LGTBI kolektiboaren eskubideen aldeko babesa gehiengoa da.

JARDUTEKO ILDOAK

DIBERTSITATEA AITORTZEA

3.3.1 Gazteen dibertsitateak dituen askotariko dimentsioak aitortzea eta ikusaraztea, alderdi kulturalak, erlijiosoak, afektibo-sexualak, funtzionalak eta abar barne, estereotipoak, aurreiritziak eta gazteei eragiten dieten diskriminazio mota guztiak murrizteko.

3.3.2 Gazte guztien gizarteratzea sustatzea, irisgarritasun unibertsala eta erabateko aukera-berdintasuna bermatzea eta identitatearen edo egoeraren araberako diskriminazioari aktiboki aurre egitea.

BIZIKIDETZA INKLUSIBOA

3.3.3 Balioetan oinarritutako hezkuntza eskaintzea ingurune formal eta ez formaletan, giza eskubideen aldeko errespetua, bizikidetza inklusiboa eta memoria historikoa indartuz, gizarte bidezkoagoa eta kohesionatuagoa lortzeko.

3.3.4 Askotariko pertsonen eta kolektiboen arteko interakzioa sustatzea, elkarrenganako errespetua, berdintasuna eta jarrera disikriminatzaileekin amaitzea sustatzeko, eta, hala, kohesio soziala eta ongizate kolektiboa indartzeko.

3.3.5 Gatazka, indarkeria eta tratu txarren egoerak prebenitzea eta jorratzea arlo guztietan (familia, eskola, komunitatea, lana, arlo soziala...), kasu bakoitzera egokitutako prebenitzeko, hautemateko eta erantzuteko neurrien bitartez.

JARRAIBIDEAK ETA ORIENTAZIOAK

DIBERTSITATEA AITORTZEA

3.3.1 Gazteen aniztasunak dituen askotariko dimentsioak aitortzea eta ikusaraztea.

- Dibertsitatea integratzea politika, programa eta neurri publiko guztietan, gazteen identitate eta egoera guztiak aitortzeko eta ikusarazteko ikuspegi intersekzionala aplikatuz, sexu- eta genero-aniztasuna barne, eta irudiak, jarduketak eta mezuak zabaltzea sustatuz.
- Estereotipoak eta aurreiritziak elikatzen dituen desinformazioari aurre egitea eta diskurtso diskriminatzaileak desmuntatzen laguntzeko datu eta informazio garrantzitsuak argitaratzea, batez ere kolektibo zaurgarriei zuzenduta daudenak, bereziki kolektibo

zaurgarrien aurkakoak, hala nola LGTBI pertsonak, migratzaileak eta beste egoera ahulean dauden taldeak.

- Askotariko kolektiboen arteko topaketak sustatzea, eta elkarrizketa eta esperientzia-trukea bultzatzea, aurreiritziak eta jarrera baztertzaileak murrizteko, elkar ulertzeko eta kohesio soziala indartzeko.
- Gazteen dibertsitatea aitortzeko eta ikusarazteko proiektuak eta ekimenak garatzen dituzten hirugarren sektore sozialeko erakundeekin lankidetzan aritzea.
- Plano instituzionalean, mediatikoan eta sozialean askotariko erreferenteak ikusaraztea, eta identitate eta egoera desberdinak dituzten pertsonak eta diskriminazioaren aurka eta haien eskubideen alde borroka aktiboa egiten dutenak nabarmentzea.

3.3.2 Gazte guztien gizarteratzea sustatzea.

- Gazteen kolektibo bakoitzak (atzerritarrak, LGTBI pertsonak, dibertsitate funtzionala dutenak, etab.) prestakuntzan, enpleguan, etxebizitzan, aisialdian eta parte-hartzean dituen zailtasun espezifikoak identifikatzea, sarbide unibertsala eta aukera-berdintasuna bermatzen duten neurriak ezartzeko haien beharretara egokituta.
- Laguntza integralerako prozesu pertsonalizatuak ezartzea, diskriminazioa jasateko arrisku handiagoa duten gazteei edo laguntza-sarerik ez dutenei laguntza espezifikoa eskainiz, gizarteratzea bermatzeko.
- Diskriminazio- eta indarkeria-egoeren aurrean babes- eta salaketa-mekanismoak indartzea, LGTBI gazteek, migratzaileek eta beste kolektibo zaurgarri batzuek laguntza- eta babes-esparru espezializatuak izan ditzaten bermatuz.
- Oinarrizko izapide administratiboak erraztea, hala nola homologazioak, ziurtagiriak eta baliozkotzeak, integratzeko beharrezkoak diren prozesuak sinplifikatuz.
- Kasu bakoitzera egokitutako diskriminazio positiborako neurriak ezartzea, sarbide eta sustapen akademikoa eta laborala sustatzeko eta aukera-berdintasuna bermatzeko.
- Aisialdi inklusiboa diseinatzea eta sustatzea, jarduera irisgarriak gehituz eta gazteen askotariko errealitateak ikusaraziz.
- Gazteen profil guztien parte-hartze aktiboa sustatzea, parte hartzeko formulak kolektibo bakoitzarengana egokituz espazio komunitarioetan, sozialetan eta instituzionaletan. Halaber, LGTBI gazteen, gazte migratzaileen eta beste kolektibo zaurgarri batzuen inklusioa bermatzea erabakiak hartzeko prozesuetan.

BIZIKIDETZA INKLUSIBOA

3.3.3 Balioetan oinarritutako hezkuntza eskaintzea ingurune formal eta ez formaletan.

- Dibertsitatea pertsonen berezko ezaugarri gisa ikusaraztea eta dibertsitatearekiko errespetua eta aitortza sustatzea hezkuntza formalaren eta ez formalaren arloan, afektibo-sexuala, genero-, kultura- eta funtzio-aniztasuna barne.
- Balioetan oinarritutako hezkuntzaren zeharkako ikuspegia sustatzea, etika, justizia soziala, dibertsitatearen gaineko errespetua, Giza Eskubideen sustapena eta memoria historikoa eta demokratikoa barne, eta ikastetxeetako dinamiketan, diziplina akademikoetan eta hezkuntza ez formaleko zerbitzuetan integratzea.

- Irisgarritasun integraleko prestakuntza sustatzea askotariko kolektiboen beharrekin kontaktuan dauden profesionalentzat, eta ikuspegi inklusiboa duen arreta bermatzea.
- Sexu-, genero-, kultura- eta funtzio-aniztasunari buruzko prestakuntza sustatzea hezkuntza formaleko eta ez-formaleko profesionalentzat, diskriminazioa prebenitzeko eta ingurune inklusiboak sustatzeko tresnak bermatuz.
- Gertuko espazio eta zerbitzu soziohezitzaileak sustatzea eta indartzea, balioetan oinarritutako hezkuntzarako eta gizalegearen kontrako portaerak prebenitzeko tresna gisa, batez ere egoera zaurgarrian dauden pertsonen kasuan.
- Tokiko erakundeen, ikastetxeen eta hirugarren sektore sozialeko erakundeen arteko lankidetza finkatzea, inpaktu handiagoa duen hezkuntza komunitarioa garatzeko.
- LGTBI gazteek, migratzaileek, aniztasun funtzionala duten pertsonek eta beste identitate anitzek gidatutako ekimenak babestea, elkarbizitza eta gizarteratzea sustatzeko, eta haien parte-hartze aktiboa bermatzea komunitate-esparruetan.
- Dibertsitatearen aldeko borroka eta Giza Eskubideenganako errespetua definitzen eta sustatzen duten erreferenteak ikusaraztea.

3.3.4 Askotariko pertsonen eta kolektiboen arteko interakzioa sustatzea..

- Espazio partekatuetan elkartzeko dinamikak sustatzea, eta kirolarekin, kulturarekin eta entretenimenduarekin lotutako aisialdi inklusiborako espazioak diseinatzea eta sustatzea. Espazio horiek irisgarriak izan behar dute profil guztientzat eta desberdinen arteko interakzioa sustatu behar dute memoria partekatuko proiektuen bidez.
- Gertuko elkarteekin lankidetzan aritzea hainbat kolektibotako pertsonak elkartzea, erlazionatzea eta esperientziak trukatzea sustatzeko jarduerak antolatzeko, eta errealitate komunitarioak identifikatzeko eta jorratzeko babes-sareak handitzea.
- Parte-hartze inklusiboa sustatzeko proiektuak eta ekimenak babestea, eraldaketa komunitario eta sozialen katalizatzaile gisa duten rola nabarmentzea eta zerbitzu partekatuetan dinamika inklusiboak bultzatzeko neurriak sustatzea.
- Gizarte-berrikuntzarako programak diseinatzea, dibertsitatearen erronkei erantzuteko eta ikuspegi intersekzionaletik interakzio positiboa eta bizikidetza inklusiboa sustatzeko. Hala, egoera zaurgarrian dauden pertsonen bazterkeria- edo kontzentrazio-prozesuak ekidingo dira.

3.3.5 Gatazkak, indarkeria eta tratu txarrak prebenitzea eta jorratzea.

- Kide izatearen zentzu komunitarioa indartzea, batez ere gazterik zaurgarrienen artean, espazio eta zerbitzu partekatuen gaineko lotura positiboa sustatzeko programen bitartez, eta inguruan dituzten dinamika sozialen eta kulturalen gaineko ezagutza bultzatuz.
- Prebentzio, babes eta erreparazio sinbolikoko mekanismoak ezartzea urraketen aurrean, bai eta gizalegearen aurkako eta arriskuko jokabideen aurrean ere (bandalismoa, erasoak, jazarpena, sexismoa, LGTBIfobia, transfobia, xenofobia eta kapazitismoa...), gazteek erabiltzen dituzten hurbileko zerbitzuetan.
- Osasun-ohitura digital osasungarrien gainean sentsibilizatzea eta esku-hartzeko estrategiak garatzea sare sozialetako jazarpena neutralizatzeko. Horretarako, egoera horiek jasaten dituzten gazteak babesteko neurri espezifikoak ezarri behar dira.

- Ibiltzeko eta aisialdirako eremu jakin batzuen erabilera esklusiboa ekiditea, eta bizikidetza inklusiboa sustatzeko eta tentsio- eta gatazka-dinamikak prebenitzeko neurriak ezartzea.
- Gatazkak konpontzeko eta bitartekaritzarako programak sustatzea, batez ere talka kulturalak eta/edo erlijiosoak dauden kasuetan, bizikidetza eta elkar ulertzea bultzatzeko.
- Haien identitateagatik edo egoeragatik espazio publiko zein pribatuetan erasoak, tratu txarrak edo indarkeria jasaten dituzten gazteentzako hautemate-zerbitzuak, babes-zerbitzuak eta berehalako arreta-zerbitzuak bermatzea.
- Indarkeriaren aurrean tolerantzia zero politikak ezartzea eta indarkeria modu guztiak desagerraraztea, aurrez aurrekoak zein birtualak, gazteentzako ingurune seguruak eta errespetuzkoak sortzeko.

8.3.4 Ingurumeneko jasangarritasuna

HELBURU ESTRATEGIKOA

INGURUMENEKO KONTZIENTZIAZIOA SUSTATZEA GAZTEEN ARTEAN, BIZIMODU ETA OHITURA JASANGARRIAGOAK IZAN DITZATEN.

DESKRIBAPENA

Atal honek erreferentzia egiten dio gazteek ingurunearen, ekologiaren eta ingurumenaren gaineko zaintzaren arloan duten sentsibilizazioari eta kezkari, eta horiek babesteko jarduketekiko erakutsi duten erantzukizunari, hala nola baliabide naturalen erabilera jasangarriari, kontsumo-ariketa kritiko, arrazional eta bidezkoari, eta formula partekatuetan eta ez hain kutsakorretan oinarritutako mugikortasunari (garraio publikoa eta bizikleta).

JUSTIFIKAZIOA

Gazteen ekologismoaren inguruko kontzientziak eta ingurumen-kontzientziazioak nabarmen egin du gora azken urteotan. Hala ere, familiako hezkuntza formalean zein ez formalean oraindik ere lantzeke dago. Ingurumenaren gaineko errespetuzko ohiturak eta jarduketak errotuta daude kolektibo horren egunerokoan eta ugaritzen ari dira, hala nola garraio publikoa eta bizikleta erabiltzea edo produktuak berrerabiltzea, produktu berriak kontsumitzea murrizteko. Hala ere, beste batzuk oraindik ez daude errotuta gazteen egunerokoan, besteak beste, gertukoa kontsumitzea, birziklatzea edo aisialdi eta turismo jasangarria egitea.

Askotan, gazteek ematen duten arrazoia da jarduketa eta ohitura jasangarriek ikusgarritasun eta sustapen txikiagoa dutela, eta, halaber, ez dira hain irisgarriak izaten ekonomikoki, produktu eta jarduera horien prezioa altuagoa izaten delako. Beste batzuetan, informazio falta izaten dutela eta portaera-eredu egokiak falta zaizkiela diote; izan ere, uste dute ingurumenarekiko errespetua eragile guztiek bermatu beharreko zerbait dela, eredu izateko. Sektore jakin batzuetako enpresen praktiketan ordea ez da hori igartzen, batez ere, aisialdiarekin, industriarekin eta turismoarekin lotutako sektoreetan eta administrazio publikoaren espazio eta dinamika propio batzuetan.

Garraio publikoa hobetzea ezinbestekoa da mugikortasuna eta sustatzeko eta beste arlo batzuetan ematen diren aukeretara iristeko, esaterako, prestakuntzan, enpleguan, parte-hartze sozialean edo aukera berdintasunean oinarritutako aisialdian. Eta, hortaz, erabakigarria da bizi-kalitatean eta gazteen gizarteratze- prozesuetan. Hala ere, askok ibilgailu pribatua erabiltzen dute ahal duten aldiro. Alde batetik, garraio publikoaren eskaintza mugatua eta garestia iruditzen zaielako eta, bestetik, lurralde honetako zein beste lurraldeetako udalerrien arteko konexioak ez direlako haien ohiko lekualdatze-dinamiketara egokitzen. Halaber, bizikletaren erabileran geroz eta goranzko joera handiagoa dagoen arren, garraiobide horren erabileraren gaineko segurtasunak eta azpiegituren kalitateak asko baldintzatzen dute erabilera.

JARDUTEKO ILDOAK

3.4.1 Bizimodu jasangarriak sustatzea gazteen artean, eta haien inguruneetan ingurumena babesteko eta inpaktua murrizteko eguneroko jarduketak sustatzea.

3.4.2 Garraio publiko kolektiboaren aukerak egokitzea, gazteen mugikortasuneko beharretara eta baliabide ekonomikoetara egokituz, erabilera handitzeko eta enplegurako, prestakuntzarako, aisialdirako eta parte-hartze sozialerako sarbide parekidea bermatzeko.

3.4.3 Garraio jasangarri eta kutsadurarik gabeko bitartekoen erabilera sustatzea eta, horretarako, azpiegituren eta baliabideen segurtasuna eta kalitatea hobetzea, gazteek erabilera publiko zein pribatua egin dezaten.

JARRAIBIDEAK ETA ORIENTAZIOAK

3.4.1 Bizimodu jasangarriak sustatzea gazteen artean.

- Jasangarritasunerako hezkuntza sustatzea haurtzarotik helduarora, ingurune formal zein informaletan, gazteen lidergoa klima-ekintzan nabarmenduz, haien inplikazioa sustatuz Nazioarteko eta tokiko foroetan eta ingurumena errespetatzeko balioak integratzea, sentsibilizatzeko eta komunitate jasangarriak sortzeko ohiturak sustatzeko.
- Ekintza indibidual jasangarriei buruzko informazio argia eta irisgarria zabaltzea eta hainbat jarduketa sustatzea azpiegitura eta zerbitzu egokien bitartez, hala nola kontsumoa murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea
- Gazteen artean ohitura jasangarriak sustatzea, ekintza indibidualak aldaketa estrukturalen sustapenarekin uztartuz, eta haien parte-hartzea bultzatzea ingurumen- eta klima-politikei buruzko erabakiak hartzeko espazioetan.
- Kontsumo kontzientea, kritikoa eta arduratsua sustatzea, tokiko kontsumoa eta gertuko ekoizpena (0 km) ikusaraziz irisgarritasuna hobetzeko neurrien bidez.
- Plastikoen eta erregaien erabilera murriztea eta material alternatibo eta biodegradagarriak erabiltzea.
- Berrerabiltzeko beharraren gainean kontzientziatzea eta jarduketa horretarako azpiegitura, zerbitzu eta baliabide egokiak eskaintzea.
- Hondakinak murrizteko, birziklatzeko eta material biodegradagarriak erabiltzeko pizgarriak ezartzea, gazteek ohitura osasungarriagoak izan ditzaten.
- Garraiobide jasangarriak eta osasungarriak sustatzea, besteak beste, oinez ibiltzea, bizikleta, patinetea edo skatea, ibilgailu pribatuaren ordez.

- Aisialdi eta turismo jasangarria sustatzea eta horretarako neurri jasangarriak ezartzea administrazioek, ostalaritzak, kulturaren arloak eta kirolak antolatutako jardueretan, tokiko komunitateak errespetatzen dituen gertuko turismoa sustatuz.

3.4.2 Garraio publiko kolektiboaren aukerak egokitzea, gazteen mugikortasuneko beharretara eta baliabide ekonomikoetara egokituz.

- Garraio publikoaren zerbitzuak eta gazte guztientzako irisgarritasuna hobetzea, hiri arteko eta hiri barruko konexio hobeen bidez, eta errutina akademikoetara, laboraletara eta aisialdira, batez ere gauekora, betiere, egokituta egotea, bizi-kalitatea eta gizarteratzea bermatzeko.
- Garraio publikorako dirulaguntzak eta hobariak ezartzea, ikasleentzat eta baliabide mugatuak dituzten gazteentzat irisgarriagoak izan daitezen, eta udalerrien eta lurraldeen arteko desberdintasunak murriztea.
- Disuasio-aparkalekuak egitea hirietako sarrera eta irteeretan eta garraio publikoaren bidez konektatuta egotea maiz leku garrantzitsuekin, hala nola unibertsitateekin, ospitaleekin, garraio- geltokiekin eta hiriguneekin.
- Garraio publikoko zerbitzuei buruzko informazioa hobetzea eta gazteentzako garraio publikoaren erabilera eta irisgarritasuna sustatzen duten baliabideetarako sarbidea erraztea.

3.4.3 Garraio jasangarri eta kutsadurarik gabeko bitartekoen erabilera sustatzea.

- Garraio jasangarri eta kutsadurarik gabeko bitartekoen erabilera sustatzea, hala nola bizikletak, patineteak, skateak eta ibilgailu elektriko arinak eta osasun indibidualerako onuragarriak direla, karbono dioxidoaren isurpenak murrizten dituztela eta jasangarritasunari ekarpena egiten diotela nabarmentzea.
- Bideko babeserako eta segurtasunerako neurriak areagotzea bizikleta eta kutsatzen ez duten beste garraiobide batzuk erabiltzen dituzten pertsonentzat, bideko kontzientziazioaren gaineko kanpainak eginez eta bide publikoetako segurtasun-arauak hobetuz.
- Bizikletarekin eta beste garraiobide jasangarri batzuekin lotutako azpiegitura eta zerbitzu publikoen kantitatea eta kalitatea hobetzea, hala nola bide espezifikoak, kargatzeko estazioak eta maileguan hartzeko puntuak.
- Segurtasun-neurri publiko espezifikoak ezartzea, hala nola aparkaleku seguruak eta lapurretak prebenitzeko programak, bizikletentzat zein kutsatzen ez duten beste garraiobide batzuentzat.
- Kutsatzen ez duten garraiobideen eta garraio publikoaren arteko intermodalitatea sustatzea, eta, horretarako, aparkaleku seguruak gaitzea geltokietan eta bizikletak, patineteak eta antzekoak eramateko espazioak uztea trenetan eta autobusetan..

9. GOBERNANTZA

Atal honetan azalduko dugu Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategiaren atxikimendurako, lidergorako, sustapenerako, koordinaziorako, jarraipenerako eta ebaluaziorako antolaketaren arkitektura.

9.1 Lidergoa, sustapena eta koordinazioa

Estrategia behar bezala ezartzeko egin behar diren lidergo-, sustapen- eta koordinazio-lanak Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saileko Gazteen Zuzendaritzaren ardura izango dira.

Bere funtzioak betetzeko, Gazteria Zuzendaritzak ardura hauek izango ditu:

- Erakundeek aurreikusitako ardatzen, sailen eta/edo ildoen inguruan egindako ekintzarik esanguratsuenen berri emateko informazio-bilketa sistematizatzea.
- Estrategia osoak EAEko gazteen errealitatean izan duen inpaktua baloratzeko diagnostikoan erabilitako adierazle nagusien jarraipena egitea. (Ikusi C eranskina).
- Estrategia indarrean dagoen bitartean urteko jarraipen-txostenak egin eta zabaldu ditzaten sustatzea, eta, horrez gain, garatutako jarduketei buruzko informazioa jasotzea, gazteen egoeraren bilakaera ikusteko.
- Informazio-trukea eta koordinazioa sustatzea Estrategiaren ezarpenarekin zuzenean lotuta dauden jarduerak egiten dituzten erakundeen artean.
- Gehienezko gardentasuna eta kontu-ematea sustatzea, herritarrek eta gizarte-eragile desberdinek Estrategia indarrean egon den aldi horretan zehar izan diren lorpen nagusien berri izateko.

Artean ere, Estrategia honetan aurreikusitako jarduerak gauzatzea, estrategia, plan edo programa bakoitzeko erakunde-arduradunei dagokie, eta haiek ezarriko duten egutegiaren arabera garatuko dituzte. Estrategia honek gazte-politikak planifikatzeko orientazio-esparru gisa jarduten du, bai erakundeen artean, bai erakunde bereko sailen artean, helburuak eta edukiak definitzeko koordinazioa sustatuz, baina tresna bakoitza betetzeko baldintzetan eta denboretan esku hartu

gabe. Hala eta guztiz ere, Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzak Estrategia honetan jasotako jarraibideak eta orientabideak gazte-politikei lotutako plangintzako tresna instituzionaletan pixkanaka txertatzen direla zainduko du.

9.2 Plangintza ekonomikoa

Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategia plangintza estrategikorako tresna autonomikoa da, Euskadiko Gazteriaren 2/2022 Legearen 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Esparru horrek helburu orokorrak, lehentasunezko erronkak eta gazteentzako funtsezkoak diren esparruetan esku hartzeko ildoak zehazten ditu, hala nola hezkuntza, enplegua, etxebizitza, parte-hartzea, berdintasuna eta gizarte-kohesioa, eta zeharka txertatzen ditu genero-ikuspegia eta intersekzionalitate-ikuspegia.

Garrantzitsua da azpimarratzea Estrategiak, aipatutako Legearen 21. artikuluaren arabera, ez duela ekintza operatibo zehatzik edo aurrekontu-esleipen espezifikorik aurreikusten, baizik eta gazteriaren arloko ekintza publikorako orientabide orokorrak ezartzen dituela. Jarduera zehatzak, 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hiru erakunde-mailetan garatu beharko dira (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta toki-erakundeak), helburu estrategikoak gauzatuko dituzten plan eta programa sektorialen bidez. Horiek beren finantza-baliabideak eta gauzatze-egutegiak dituzte. Gazte-politikei lotutako tresna bakoitzak dagokion plangintza ekonomikoa du, eragile arduradunen autonomia instituzionala eta funtzionala errespetatuz.

IZAERA EKONOMIKOA ETA KUDEAKETA-PRINTZIPIOAK

Estrategiak ez du gauzatze-egutegi zehatzik, ez eta aurrekontu-plangintza orokorrik ere, politika publikoak koordinatzeko eta lerrokatzeko erakunde arteko tresna baita, administrazioen eskumen-esparrua errespetatzen duena.

Ondorioz:

- Ez du gastu zuzenik sortzen, ezta betebehar ekonomikorik ere.
- Aurrekontu-zuzkidurak administrazio bakoitzak helburu estrategikoak lortzeko ezartzen dituen jarduketen ondorio dira soil-soilik.
- Aurrekontu-plangintza zentralizaturik ez egoteak malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna errazten ditu, eta erakunde bakoitzak bere lehentasunen, gaitasun operatiboen eta testuinguru espezifikoaren araberako ildo estrategikoak txertatzea ahalbidetzen du.

Egoera horretan, Gazteria eta Emantzipazio zuzendaritzak sustapen-, koordinazio- eta jarraipen-eginkizuna hartzen du bere gain, eta dauden plangintza-tresnetan orientazio estrategikoak pixkanaka integratzen direla bermatzen du, baliabideen esleipena baldintzatu gabe eta inplikatutako sailen aurrekontu-kudeaketa oztopatu gabe.

FINANTZA INPLEMENTAZIOA ETA KOORDINAZIOA

Estrategiatik eratorritako jarduerak plan, programa eta estrategia sektorialen bidez bideratzen dira, eta horiek beren finantza-baliabideak eta gauzatze-egutegiak dituzte. Maila anitzeko gobernantza-eredu horrek honako hauek bermatzen ditu:

- Administrazio-mailen arteko koherentzia estrategikoa.
- Baliabideak optimizatzea, politika sektorialak integratuz.
- Eragin ekonomikoaren ebaluazioa, Estrategian aurreikusitako jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoen bidez, Estrategia indarrean dagoen bitartean gazte-politiketara bideratutako baliabideen bolumenaren ikuspegi orokorra emateko.

BALIABIDEEN ZENBATESPEN OROKORRA

Estrategiak ez du aurrekonturik zentralizatzen, baina Eusko Jaurlaritzak 2026-2030 aldian bere helburuekin bat datozen jardueretan mobilizatzea aurreikusten duen baliabide-bolumenaren zenbatespen adierazgarria egin da:

Aurrekontu-aurreikuspena	2026-2030 aldia
Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria Demografikoaren saila	550 M€
Eusko Jaurlaritzako beste sail eta erakunde batzuk	1.800 M€
Guztira	**2.350 M€**

Inbertsio horri gehitu behar zaizkio Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek bideratzen dituztenak, bai eta gazteriaren arloko jarduerak garatzen dituzten EAEko udalek eta bestelako erakundeek bideratzen dituztenak ere.

9.3 Jarraipena eta ebaluazioa

Estrategiaren jarraipena Euskadiko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoak egiten du. Organo hori erakundeen artekoa da eta gazteek ere badute ordezkaritza Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentearen bitartez. Hala ere, ahotsa badu, baina botorik ez.

Gazteriari buruzko 2022ko martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 48. artikuluan ezarritakoaren arabera, organo horrek arlo horretan konpetentziak dituzten Euskadiko Administrazio Publikoen gazteria-politikak diseinatzeko eta planifikatzeko orientazioarekin eta erreferentziazko esparru bat eta jarduketa-ildo partekatu batzuk definitzearekin lotutako zeregin hauek ditu, besteak beste:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko gazteriaren politika integralaren garapena eta ebaluazioa sustatzea.
b) Gazteriaren Arloko Euskal Estrategiaren prestakuntzari eta edukiari buruzko informazioa ematea.
c) Gazteriaren arloko zeharkako politikak koordinatzea.
d) Euskadiko administrazio publikoek gazteriaren arloan egindako plangintzaren, programazioaren eta betetze-mailaren berri ematea.
e) Gazteriaren Euskal Sistema osatzen duten gazteentzako jarduera, zerbitzu eta ekipamendu espezifikoak koordinatzea, sistema horren artikulazio eraginkorra eta kohesioa bermatzeko, eta, erantzukizun publikoari dagokionez, batasuna bermatzeko.

Hala, organo hori izango da estrategiaren urteko jarraipen-txostena aurkezteko espazioa, erakundeek egindako jarduerari buruzko informazioa trukatzekoa eta haien arteko koordinazioa sustatzekoa.

Honela laburtu daiteke:

	Euskadiko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoa
Zer helburu ditu?	Euskadiko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoari dagokio Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategiaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
Nork osatzen du?	Euskadiko Gazteria Legearen 48. Artikuluan xedatutakoa jarraituz: a) Lehendakaria, edo hark delegatutako pertsona, presidentea izango da. b) Sei pertsona Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkaritzan. Gazteriaren arloko politika integralarekin lotutako erantzukizun gorena izan beharko dute eta gazteriaren arloko sail eskuduneko sailburuak izendatu beharko ditu, edo, bestela, haiek delegatutako pertsona izango da eta zuzendaria edo asimilatua izan beharko da gutxienez. c) Hiru foru aldundietako gazteriaren arloko sail eskuduneko foru ahalduna, edo hark delegatutako pertsona, edo, hala badagokio, gutxienez, zuzendaritza kargua duen pertsona edo asimilatua, eta arlo horretan bertan eskumena duen foru aldundi bakoitzeko organo administratiboaren titularra edo hark delegatutakoa. d) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien ordezkaritzan gazteriaren arloan erantzukizun gorena duten hiru pertsona, Euskadiko Udalen Elkarteak (Eudel) esleituta. e) Eusko Jaurlaritzako gazteriaren saileko zuzendaritza eskuduneko titularra edo hark delegatzen duena. Organoaren idazkaria izango da. f) Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea edo hark delegatzen duen pertsona. Ahotsarekin baina botorik gabe hartuko du parte.
Noiz biltzen dira?	Batzorde hori urtean behin bilduko da gutxienez, Gazteria Zuzendaritzak deituta.
Zer funtzio ditu?	- Erakundeek garatutako ekintzen jarraipena egitea (exekuzioaren ebaluazioa) - Gazteen egoeraren bilakaeraren gaineko jarraipena egitea (inpaktuaren ebaluazioa) - Elkarrekin aztertzea jasotako informazioa, egindako jarduerari buruzko informazioa trukatzea, arlo horretan hobekuntzak proposatzea (jarduketak, koordinazioa, etab.). - Estrategiaren urteko jarraipen-txostena onartzea eta zabaltzea.

Aurreikusitako estrategiaren urteko jarraipen-txostenak eta amaierako ebaluazio-txostena egiteko informazioa biltzea eta sistematizatzea Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzari dagokio, eta, besteak beste, honako jarduera hauek biltzen ditu:

1. Urteko jarraipen-txostenekin lotutako zereginak


Estrategiaren urteko jarraipena egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-politiken bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua bildu, aztertu eta aurkezteko lan sistematikoak egiten dira. Prozesu hori aldaketan oinarritutako ikuspegi analitikoan oinarritzen da, eta lehentasuna ematen

zaie izaera esperimentala, berritzailea edo ohiko jarduerarekiko eraldaketa esanguratsua duten jarduera instituzionalei. Helburua ez da memoria zehatza egitea, horretarako tresna espezifikoak baitaude, hala nola erakunde bakoitzaren urteko memoriak edo, adibidez, V Gazte Plana.

Prozesu honek berariazko zeregin hauek dakartza, eta Gazteriaren Legearen 19. artikuluan xedatutakoa betetzen dute:

- Estatistika- eta administrazio-iturrietatik datozen bigarren mailako datuak biltzea, Estrategian jasotako ekitaldiei dagozkien diagnostikoak eguneratzeko. Prozesu horrek Gazteen Euskal Behatokiarekiko kontraste teknikoa barne hartzen du, urtean behin edo bi urtean behin eguneratzen diren adierazleak edo jarraipen estrategikorako garrantzi berezia dutenak identifikatzeko (ikus C eranskina).
- Estrategian inplikatuta dauden eta Erakundearteko Koordinazio Organoan ordezkatuta dauden erakundeek garatutako ekintza garrantzitsuenei — ekintza bultzatzaile izenekoei — buruzko jarduera esanguratsuei buruzko informazioa biltzea, ikuspegi kualitatibotik eta kuantitatibotik. Horretarako, fitxa estandarizatu bat erabiltzen da, monitorizatu beharreko datuak sistematizatzeko. Bilketa urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa amaitu ondoren egiten da, eta erakundeek beren jarduera-memoriak itxi dituztela bermatzen da.
- Txostenak aztertzea eta egitea, aldi bakoitzari dagozkion jarraipen-txostenak idazteko. Txosten horietan adierazleen azterketa eta identifikatutako ekintza esanguratsuen deskribapena jasotzen dira.
- Urteko jarraipenaren aurkikuntza nagusien laburpen exekutiboa, erabaki- eta koordinazio-organoen aurrean errazago aurkezteko eta ulertzeko.
- Erakundearteko Koordinazio Organoaren informazioa, urteko jarraipen-txostenak Erakunde horretan aurkeztu ondoren. Bertan, hausnarketak trukatzea, jardunbide egokiak identifikatzea eta hobekuntza- proposamenak egitea sustatzen da. Organoak txosten bat egingo du Gobernu Kontseiluari aurkezteko.
- Gobernu Kontseiluari jarraipen-txostenaren berri ematea.
- Urteko txostenak Eusko Legebiltzarrera bidaltzea, Gazteriaren Legean jasotako gardentasunerako eta kontuak emateko konpromiso instituzionalak betetze aldera.

2024, 202S, 2026, 2027, 2028, 2029 eta 2030eko ekitaldien urteko jarraipen-txostenak gauzatzeko egutegia



2. Jarraipen- txostena Eusko Legebiltzarrera bidaltzea (iraila- azaroa)


Azken ebaluazioa prozesu integral bat da, Estrategiaren indarraldian gazteriaren arloan garatutako politika publikoen ikuspegi globala eta ebolutiboa lortzera bideratua. Azterketa horri esker, politika horiek helburu estrategikoekin duten konbergentzia-maila, lortutako aurrerapen-maila eta sortutako inpaktua baloratu ahal izango dira, baita — datuen eskuragarritasunaren arabera — eragin ekonomikoaren balizko estimazioa ere.

Ebaluazioa egiteko, aldez aurretik definitutako adierazleak erabiliko dira, tipologia guztiak kontuan hartuta: prozesuen adierazleak, ekintzen inplementazioa aztertzeko aukera ematen dutenak; emaitza- adierazleak, berehalako ondorioak islatzen dituztenak; eta eragin-adierazleak, egitura-aldaketak epe ertain eta luzera neurtzen dituztenak.

Ebaluazio-prozesuaren barruan, honako zeregin hauek garatuko dira, eta Gazteriaren Legearen 19. artikuluan xedatutakoa betetzen dute:

- Azken ebaluazioaren txostena egitea, bildutako datuen azterketa sistematikoa eta emaitzen interpretazioa barne hartuko dituena, ezarritako helburu estrategikoei dagokienez.
- Txosten exekutibo bat idaztea, ebaluazioaren aurkikuntza nagusiak laburbilduko dituena, organo erabakitzaileen aurrean errazago aurkezteko eta ulertzeko.
- Erakundearteko Koordinazio Organoaren informazioa, hausnarketak trukatzea eta etorkizuneko esparru estrategikoetarako hobekuntza-proposamenak egitea sustatuz. Organoak txosten bat egingo du Gobernu Kontseiluari aurkezteko.
- Gobernu Kontseiluari azken ebaluazioaren txostenaren berri ematea.
- Azken ebaluazio-txostena Eusko Legebiltzarrera bidaltzea, gardentasunari, kontuak emateari eta politika publikoak etengabe hobetzeari buruzko konpromiso instituzionalak betez.

Azken ebaluazioa gauzatzeko egutegia: 2031



ERANSKINAK

A. Estrategian eragina duten legeen zerrenda

Arau bakoitzaren analisiari buruzko atal labur bat gehitu da, eta bertan, arauaren artikulazioa eta Estrategiaren helburu estrategikoekiko lerrokadura zehazten dira.

Haurtzaroa eta nerabezaroa

2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haurtzaroari eta Nerabeena

Lege honek Euskadiko haur eta nerabeentzako eskubide, betebehar eta politika publikoak arautzen dituen esparru juridiko integrala eskaintzen du. Estrategiarekin bat dator eskubideetan oinarritutako ikuspegiarekin: bai legeak eta bai estrategiak bat egiten dute haurrak eta nerabeak eskubideen titularrak direla, ez soilik babes-subjektuak. Horrek esan nahi du politika publikoek gizartean aktiboki parte hartzea sustatu behar dutela eta haien ongizate integrala bermatu behar dutela. Gazteen Estrategian, gainera, funtsezko gaiak jorratzen dira, hala nola haurren pobrezia, zerbitzuak eskuratzea, familia bateragarri egitea, osasuna, etxebizitza, aisialdia, parte-hartze soziala eta aukera-berdintasuna. Gai horiek guztiak Haur eta Nerabeen Legeak jasotzen eta indartzen ditu.a.

Aniztasuna eta bizikidetza

147/2015 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena

Bat egiten dute pertsonarengan oinarritutako osasunaren garapenean, arreta berezia jarriz kolektibo kalteberetan, hala nola haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan. Biek bultzatzen dute kalitatezko osasun-arreta eskuragarri eta errespetuzkoa izateko eskubidea, bai eta osasun-hezkuntza eta herritar gazteen parte-hartze aktiboa ere osasun- sisteman. Gainera, ekitatea, erantzukidetasuna eta babes integrala bezalako balioak partekatzen dituzte, funtsezkoak baitira gazteen ongizaterako.

Hezkuntza

2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (LOE), eta 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena (LOMLOE)

LOE/LOMLOEren eta Estrategiaren arteko elkarguneak hezkuntzaren ikuspegi partekatuan oinarritzen dira, gizartea eraldatzeko eragile gisa. Biek sustatzen dute hezkuntza inklusibo eta ekitatiboa, gazteen autonomia eta bizitzarako funtsezko gaitasunen garapena bultzatuko dituena. Bat datoz hezkuntza- eta lanbide-orientazioa, ikasleen parte-hartze aktiboa eta teknologien erabilera arduratsua bultzatzean. Horrez gain, balioetan oinarritutako hezkuntza, iraunkortasuna eta herritartasun demokratikoa beren ingurunearekin konprometitutako gazteak prestatzeko zutabeak dira.

2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemarena (LUO)

Goi-mailako hezkuntzaren ikuspegi eraldatzailea dute, gazteen garapenerako funtsezko tresna baita. Biek prestakuntza integrala eta iraunkorra sustatzen dute, gaitasunetan, enplegagarritasunean eta pentsamendu kritikoan oinarritua. LUOk ikasleen parte-hartzea, genero-berdintasuna eta ikasleen inplikazio sozialaren onarpena indartzen ditu, euskal gazteak ahalduntzeko helburuarekin bat etorriz. Gainera, unibertsitatearen eta gizartearen arteko lotura, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzen ditu, eta horiek ere Gazteriaren Estrategian ageri dira.

3/2022 Lege Organikoa, martxoaren 31koa, Lanbide Heziketaren antolatzea eta integratzea ezartzen duena (LOFP)

Prestakuntza malgua, inklusiboa eta ingurune sozioekonomikoarekin konektatua garatzen dute. Biek bizialdi osoko ikaskuntza, hezkuntza-digitalizazioa eta bide ez-formalen bidez eskuratutako gaitasunen aintzatespena sustatzen dituzte. LOFPk gazteen enplegagarritasuna indartzen du ibilbide pertsonalizatuen eta prestakuntza dualaren bidez, enplegurako trantsizioa errazteko estrategiaren helburuarekin bat etorriz. Gainera, ekitatearen, iraunkortasunaren eta parte-hartzearen ikuspegia partekatzen dute, gazteen garapen integralerako zutabe gisa.

30/2015 Legea, irailaren 9koa, Lan-arloko Enplegurako Lanbide-heziketaren Sistema arautzen duena

Enplegagarritasunean oinarritutako prestakuntzaren alde egiten dute, lan-merkatuaren benetako beharretara egokituta. Biek bultzatzen dute etengabeko ikaskuntza, kolektibo kalteberen inklusioa eta prestakuntza-eskaintzaren plangintza estrategikoa. Legeak lankidetza publiko-pribatua eta gizarte-eragileen parte-hartzea indartzen ditu, Estrategiaren gobernantza partekatuaren ikuspegiarekin bat etorriz. Gainera, bi ekimenen helburua da eten digitala murriztea eta prestakuntza-prozesuen kalitatea eta gardentasuna hobetzea.

694/2017 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, Laneko Enplegurako Lanbide Heziketari buruzko irailaren 9ko 30/2015 Legea garatzen duena

Bat egiten dute gazteen enplegagarritasuna hobetzera bideratutako funtsezko helburuekin. Biek sustatzen dute etengabeko prestakuntzarako eskubidea, bereziki kalteberatasun-egoeran dauden gazteentzat, eta prestakuntza- eskaintza produkzio-sistemaren beharretara egokitzea bultzatzen dute. Era berean, bat datoz kudeaketa publikoan gardentasuna eta eraginkortasuna sustatzea,

eta administrazioen, gizarte-eragileen eta enpresen arteko lankidetza indartzea. Neurri horiek zuzenean laguntzen dute Gazteria Estrategian definitutako enpleguaren, errentaren eta gizarte-kohesioaren ardatzetan.

Enplegua

3/2023 Legea, otsailaren 28koa, Enpleguarena

Enplegu duin, inklusibo eta XXI. mendeko erronketara egokitutakora bideratuta daude. Biek aitortzen dute enplegu- politika aktiboak eskuratzeko eskubide subjektiboa, bereziki gazteentzat, eta etengabeko prestakuntza eta birkualifikazioa sustatzen dituzte, enplegagarritasuna hobetzeko funtsezko tresna gisa. Legeak erakunde arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua indartzen ditu, Gazteriaren Estrategiaren partaidetzazko gobernantzaren ereduarekin bat etorriz. Gainera, aukera-berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko eta digitalizaziora eta trantsizio ekologikora egokitzearekiko konpromisoa partekatzen dute.

15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena

Enplegu duin, inklusibo eta iraunkor baten alde egiten dute, bereziki gazteei zuzenduta. Biek aitortzen dute enplegu - politika aktiboak baliatzeko eskubide subjektiboa, diagnostiko pertsonalizatua, lanerako prestakuntza eta enplegagarritasun-ibilbideetan laguntzea barne. Legeak tokiko dimentsioa eta erakundeen arteko lankidetza indartzen ditu, eta horiek funtsezkoak dira Estrategian, Euskal Enplegu Sarearen bitartez. Gainera, genero-ikuspegia, kolektibo kalteberen arreta eta digitalizazioaren eta trantsizio ekologikoaren erronketara egokitzea sartzen dituzte.

Berdintasuna

1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa

Bat egiten dute berdintasunezko gizarte inklusibo eta diskriminaziorik gabeko batekin duten konpromisoarekin. Biek sustatzen dute emakume gazteen ahalduntzea, aukera-berdintasuna esparru guztietan (hezkuntza, lana, politika eta gizartea), eta indarkeria matxistaren prebentzioa. Legeak indartu egiten du genero-ikuspegiak politika publikoetan duen zeharkakotasuna, eta bat egiten du gazteen autonomia, parte-hartzea eta ongizatea jorratzen duten Estrategiaren ardatzekin. Gainera, biek berdintasunean oinarritutako prestakuntzaren alde egiten dute, pentsamoldeak eta egiturak eraldatzeko funtsezko tresna gisa.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena

Bat egiten dute bizitzaren eremu guztietan benetako berdintasun eraginkorrarekiko konpromisoan. Biek babesten dute emakume gazteen ahalduntzea, indarkeria matxistaren prebentzioa eta politika publikoetan genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna. Dekretuak parte-hartze orekatua, erantzukidetasuna eta berdintasunari buruzko prestakuntza indartzen ditu, eta bat egiten du gazteen autonomia, ongizatea eta parte-hartzea jorratzen dituzten Estrategiaren ardatzekin. Gainera, erakundeak ebaluatzeko eta koordinatzeko mekanismoak ezartzen ditu, gobernantza partekatua indartzeko.

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa

Ikuspegi integrala garatzen dute indarkeria matxista desagerrarazteko eta gazteen arteko berdintasunezko harremanak sustatzeko. Biek berdintasuneko hezkuntza, txiki-txikitatik prebentzioa eta irakasleen prestakuntza dituzte ardatz, funtsezko tresna gisa. Legeak neurriak ezartzen ditu hezkuntzaren, osasunaren, lanaren eta justiziaren arloetan, eta neurri horiek bat datoz Estrategiaren ardatzekin, hau da, gazteen ongizatearekin, autonomiarekin eta parte-hartzearekin. Gainera, babes instituzionala eta indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea indartzen dituzte, gazteen garapen pertsonal eta sozialerako oinarri gisa.

Ingurumena eta iraunkortasuna

7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima-aldaketarena eta Trantsizio Energetikoarena

Garapen-eredu iraunkorra, bidezkoa eta inklusiboa bultzatzen dute, bereziki garrantzitsua belaunaldi gazteentzat. Biek sustatzen dute ingurumen-hezkuntza, gazteek ekintza klimatikoan parte hartzea eta bidezko trantsizio energetikoa bultzatzea. Legeak deskarbonizazio eta efizientzia energetikoko helburuak ezartzen ditu, eta ongizatearekin, osasunarekin eta enplegu berdearekin lotutako Estrategiaren ardatzekin lerrokatzen dira. Gainera, bi ekimenek aitortzen dute gazteek zeregin eraldatzailea dutela gizarte erresilienteagoa eta planetarekin konprometituagoa eraikitzeko.

1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa

Bat datoz ingurumen-jasangarritasunarekin eta natura-baliabideen belaunaldien arteko babesarekin duen konpromisoan. Biek aitortzen dute lurzorua baliabide mugatua eta bizitzarako funtsezkoa dela, eta lurzorua arduraz erabiltzea sustatzen dute, etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatzeko. Legeak lurzoru kutsatuak prebenitzeko, kontrolatzeko eta berreskuratzeko neurriak ezartzen ditu, Estrategiaren helburuekin bat datozenak ingurumen-hezkuntzari, osasun publikoari eta justizia ekologikoari dagokienez. Gainera, gazteen kontzientzia ekologikoa indartzen dute, lurralde-eredu erresilienteago eta iraunkorrago baterantz aldatzeko eragile gisa.

11/2023 Legea, azaroaren 9koa, Euskadiko mugikortasun jasangarriarena

Iraunkortasunarekiko, lurralde-ekitatearekiko eta gizarteratzearekiko konpromisoa partekatzen dute. Biek ala biek bizimodu osasungarriagoak eta ingurumena errespetatzen dutenak sustatzen dituzte, hala nola garraio publikoaren erabilera, bizikleta eta mugikortasun aktiboa. Halaber, lurralde osoan zerbitzu irisgarriak bermatzea dute helburu, batez ere landa-eremuetan, eta herritarren parte-hartzea eta balio jasangarrietan heztea sustatzen dute. Gainera, administrazioen eta gizarte-eragileen arteko lankidetzarako gobernantzaren alde egiten dute, egungo eta etorkizuneko belaunaldiei mesede egingo dien egiturazko eraldaketa lortzeko.

Etxebizitza

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena

Bat egiten dute etxebizitza duina eta egokia izateko eskubide subjektiboa bermatzeko konpromisoan, bereziki gazteentzat. Biek babesten dituzte gazteen emantzipazioa errazten duten politikak, etxebizitza babestua eta laguntza publikoak eskuratuz. Legeak erakundeen arteko plangintza-, programazio- eta lankidetza-mekanismoak ezartzen ditu, Estrategiaren partaidetzazko

gobernantza-ereduarekin bat datozenak. Gainera, helburu komunak dituzte, hala nola gizarte-kohesioa, aukera-berdintasuna eta hiri-iraunkortasuna, funtsezkoak baitira gazteen bizi-proiektuak garatzeko.

Estrategia ere aplikatzen duen zeharkako araudia:

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa

Pribatutasunerako eskubidearen defentsa, teknologiaren erabilera etikoa eta alfabetizazio digitala babesten dituzte. Biek sustatzen dute ingurune digitaletan adingabeen babesa, deskonexiorako eskubidea eta eremu digitalean informatutako eta ahaldundutako herritar gazteen garapena.

12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa

Gizarte-arretako sistema unibertsal, inklusibo eta bermatzaile baten alde egiten dute. Biek ala biek gizarte- zerbitzuetarako eskubide subjektiboa, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta ikuspegi komunitarioa sustatzen dute, bereziki garrantzitsua baita kalteberatasun-egoeran dauden gazteentzat. Legeak autonomia pertsonalean, ekitatean eta parte-hartzean oinarritutako arreta-eredu bat ezartzen du, eta printzipio horiek Estrategiaren ardatzak ere artikulatzen dituzte. Gainera, erakundeen arteko koordinazioa eta sektorearen profesionalizazioa indartzen dituzte, horiek funtsezkoak baitira gazteen ongizatean aurrera egiteko.

45/2015 Legea, urriaren 14koa, Boluntariotzarena

Gazteek gizartean parte-hartze aktiboa, solidarioa eta belaunaldien artekoa izatea bultzatzen dute. Biek sustatzen dute boluntariotza gizarte-eraldaketarako tresna gisa aitortzea, balioetan heztea sustatzen dute eta gazteek aldaketarako eragile gisa duten zeregina indartzen dute. Legeak boluntariotzako modu berriak onartzen ditu (digitala, puntuala, korporatiboa), egungo gazte-inguruneekin lerrokatuta, eta Estrategiak gazteen autonomia, konpromisoa eta inklusioa indartzeko bide gisa integratzen du.

3/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Lankidetzarakoa eta Elkartasunerakoa

Funtsezko hainbat alderdi partekatzen dituzte, hala nola justizia soziala, ekitatea, inklusioa eta iraunkortasuna, giza garapen integralera bideratuak. Herritarren parte-hartze aktiboa sustatzen dute, bereziki gazteena, politika publikoen definizioan eta betearazpenean. Erakundeen arteko koherentzia sustatzen dute, eta ekintzak antolatzen dituzte sailen eta gobernu-mailen artean. Balioetan heztea, sentsibilizazioa eta gizarte-mobilizazioa sustatzen dituzte, konpromiso kolektiboa indartzeko tresna gisa. Nahiz eta ikuspegi desberdinak izan, biek onartzen dute baliabide publikoen garrantzia, beren helburuak eraginkortasunez ezarriko direla bermatzeko.

Programa, zerbitzu eta jarduerarik nabarmenenak

Gaztelagun programa

Gaztelagun programak eta gazte-estrategiak bat egiten dute gazteen emantzipazioa errazteko helburuarekin, etxebizitza duina eta eskuragarria eskuratuz. Gaztelagun-ek gazteentzako alokairu-laguntzak eskaintzen ditu, eta horrek zuzenean erantzuten dio Gazteriaren Estrategiaren lehentasunezko ardatzetako bati: etxebizitza eskuratzeko baldintzak hobetzea, gazteek bizi-proiektu autonomo bat hasteko funtsezko urrats gisa.

BIZIGUNE programa

Bizigune programak eta Gazteria Estrategiak bat egiten dute gazteek etxebizitza duin eta eskuragarria eskura dezaten errazteko helburuarekin. Bizigunek hutsik dauden etxebizitzak alokairu sozialean jartzen ditu, eta horrek emantzipazioa zailtzen duten oztopo ekonomikoak murrizten laguntzen du. Neurri hori bat dator Gazteriaren Estrategiarekin, etxebizitza funtsezko zutabeetako bat baita gazteek bizi-proiektu autonomo bati ekin ahal izateko.

Arabako Foru Aldundia

Arabako Gazteriaren Foru Erakundea

Programa, zerbitzu eta jarduerarik nabarmenenak

Hitz Kolpez

Genero-indarkeriaren, eskola-jazarpenaren eta ziberbullyingaren aurkako sentsibilizazio-programa, antzerkiaren eta eztabaidaren bidez lantzen da. Gazteen eta familien artean pentsamendu kritikoa eta berdintasuna sustatzen ditu. Gazteriaren Estrategiaren kohesio- eta erresilientzia-ardatzarekin lerrokatzen da. Balioetan oinarritutako hezkuntza eta gizarte-eraldaketa sustatzen ditu. Gazteen garapenerako ingurune seguruak sortzen laguntzen du.

Arabaz Blai

Aisialdian hezteko programa da Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasle arabarrentzat, euskaraz bizi eta jokoen eta astialdiko jardueren bidez Arabako ondare historikoa eta kulturala ezagutzeko helburua duena. 3 eguneko egonaldiak ikasturtean zehar. Astialdiko jarduerak (jolasak, tailerrak, txangoak) eta multiabentura Barrian.

Eco School

Ingelesean murgiltzeko eta ekologia lantzeko programa da jatorrizko irakasleekin, Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasle arabarrentzat. 5 eguneko egonaldiak urrian, azaroan edo urtarriletik ekainera bitartean Barriako aterpetxean.4 orduko jolas eskola eta lantegiak ingelesez, adinaren mailara egokituta. Ingelesez bizi. Erabateko murgilketa eta ahozko gaitasuna garatzea. Baratzezaintza ekologikoko hastapenak. Biodibertsitatea, ekosistema, konpostajea, birziklatzea.

Gazte Bidaiak

Hezkuntza eta aisialdiko esperientziak eskaintzen dizkie 14 eta 17 urte bitarteko gazteei. Bizikidetza, talde-lana eta elkartasuna eta kulturarteko errespetua bezalako balioak sustatzen ditu. Gazteriaren Estrategiaren gizarte- kohesioko eta erresilientziako ardatzekin lotzen da. Gazteen garapen emozionalean eta sozialean laguntzen du. Aisialditik abiatuta, bizi-proiektu autonomoak eraikitzen laguntzen du.

Arabako Gazteentzako Informazio eta Dokumentazio Zentroa – Info Gaztea

Enpleguari, prestakuntzari, bekei, aisialdiari eta parte-hartzeari buruzko gazte-informazioko zerbitzua. Gazteen emantzipaziorako funtsezko baliabideak eskuratzea errazten du. Gazteriaren Estrategiaren enplegu-, prestakuntza- eta errenta-ardatzekin lerrokatzen da. Aukera-berdintasuna eta autonomia informatua sustatzen ditu. Gazteak eta erakundeak lotzeko bide gisa jarduten du.

Hezkuntza-kanpainak

Aisialdi hezitzailea bultzatzen dute, gizarteratzeko eskubide eta tresna gisa. Komunitate-sareak eta hezkuntza- aisialdiko taldeak indartzen dituzte. Gazteriaren Estrategiaren erresilientziaren eta kohesioaren ardatzean sartzen dira. Bizipen-ikaskuntza eta gaitasun sozialen garapena sustatzen dute. Ikasgelaz haraindiko hezkuntza integrala lortzen laguntzen dute.

Bizkaiko Foru Aldundia

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Kulturako Zuzendaritza Nagusia

Gizarte eta Hezkuntza Arloko Programen Atala

Programa, zerbitzu eta jarduerarik nabarmenenak

Udako udalekuak

Bizkaiko Foru Aldundiak Udalekuak programa bultzatzen du, 7 eta 13 urte bitarteko haurrentzako udalekuak eskainiz, elkarbizitza, euskararen erabilera, autonomia pertsonala eta premia bereziak dituzten adingabeen inklusioa sustatuz. Ekimen honek Gazteriaren Estrategiaren helburuari erantzuten dio: aisialdi hezitzailerako eskubidea bermatzea, garapen pertsonal, sozial eta komunitarioko gune gisa. Gainera, aukera-berdintasuna sustatzen da, ahultasun-egoeran dauden familientzako hobari ekonomikoen bidez, estrategiak defendatzen duen ekitate-printzipioaren ildotik.

Aisialdi hezitzailearen arloko prestakuntza

Aldundiak aisialdi hezitzaileko begiraleen ikastaroak eskaintzen ditu 18 urtetik gorako gazteentzat, parte-hartzea, berdintasuna eta iraunkortasuna bezalako balioak sustatzen dituzten jarduerak dinamizatzeko. Egiaztatutako erakundeek emandako prestakuntza hori bat dator Gazteria Estrategiarekin, gazteek gizarte-eraldaketan eta komunitate kohesionatuen eraikuntzan eragile aktibo gisa duten funtsezko eginkizuna aitortzen baitu.

Aisialdiko eta denbora libreko koordinazio-egituren mantentze-lanak

Aldundiak aisialdia eta denbora librea koordinatzeko egiturak mantentzen ditu, esparru horretan lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emanez. Laguntza horiei esker, gazteen elkarte-sarea indartzen duten laguntza-, aholkularitza- eta prestakuntza-sareak gara daitezke. Jarduera-ildo hori bat dator Gazteria Estrategiak gazte ekosistema sendo, kolaboratibo eta iraunkorrak bultzatzeko hartu duen konpromisoarekin, aisialdian kalitatezko hezkuntza-eskaintza unibertsalerako sarbidea bermatuko dutenak.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila
Kohesio Sozialeko Zuzendaritza Nagusia

Dokumentu programatikoak

Bizkaia Gazteak 2030 Estrategia

2030era arteko gazteriari buruzko foru-politika definitzen du, emantzipazioan eta gizarte-eraikuntzan oinarritua. Prestakuntza-ildoak, enplegua, etxebizitza, osasuna, aniztasuna eta parte-hartzea barne hartzen ditu. Zuzenean bat dator Gazteriaren Estrategiaren bost ardatzekin: enplegua, errenta, etxebizitza, kohesioa eta erresilientzia. Gazteen autonomia eta gizarte-eraldaketarako eragile gisa duen eginkizuna sustatzen ditu. Bizkaiko gazte-politika guztietarako erreferentzia-esparru gisa jarduten du.

I. Dibertsitate eta Inklusio Plana 2021 -2023

Politika publiko inklusiboak eraiki nahi ditu, jatorriagatik, generoagatik, orientazioagatik edo adinagatik oztopoak kentzeko. Ikuspegi intersekzionala eta komunitarioa txertatzen ditu egiturazko desberdintasunei aurre egiteko. Gazteriaren Estrategiarekin lotzen da gizarte-kohesioaren eta erresilientziaren ardatzetan. Aniztasuna gizarte-balio gisa onartzea eta parte hartzea sustatzen du. Ikuspegi inklusiboa indartzen du foru-politika guztietan.

2024– 2029 Enplegua Plana

Lan-aukerak hobetzeko eta gazteen langabezia murrizteko 50 ekimen baino gehiago biltzen ditu. Kalitatezko enpleguak, autoenplegua, digitalizazioa eta zainketen ekonomia sustatzen ditu. Gazteriaren Estrategiaren enplegu-ardatzarekin lerrokatzen da, emantzipaziorako bide gisa. Genero-ikuspegia, inklusioa eta lurralde- egokitzapena txertatzen ditu. Gazteen lan-merkatuaren erronkei aurrea hartzen laguntzen du.

Bizkaiko 2021-2024rako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana

Incluye 14 programas y 150 medidas para avanzar en la igualdad real y efectiva. Aborda el empoderamiento, la corresponsabilidad y la erradicación de la violencia machista. Se relaciona

con la Estrategia de Juventud en los ejes de cohesión social y resiliencia. Reconoce la desigualdad como estructural y promueve políticas transformadoras. Impulsa la participación de mujeres jóvenes en todos los ámbitos.

Bizkaiko Lankidetzako IV Plan Zuzentzailea

Nazioarteko lankidetza sustatzen du Bizkaitik ikuspegi feministarekin, ekologikoarekin eta giza eskubideen ikuspegiarekin. Gizarte-eraldaketarako eta justizia globalerako hezkuntzaren aldeko apustua. Gazteriaren Estrategiarekin lotzen da erresilientzia eta gizarte-kohesioaren ardatzetan. Gazteak funtsezko eragiletzat hartzen ditu eraldaketa globalean. Elkartasun- eta lankidetza-prozesuetan gazteen parte-hartzea bultzatzen du.

Programa, zerbitzu eta jarduerarik nabarmenenak

Hasierako programa 2023

Programazioak 84 jarduera jasotzen ditu, 89 milioi eurotik gorako aurrekontuarekin. Gazteen Estrategiarekin bat datozen emantzipazioko eta gizarte-eraikuntzako ardatzen inguruan egituratzen da. Enpleguari, etxebizitzari, prestakuntzari, osasunari, aniztasunari, parte-hartzeari eta kulturari buruzko neurriak biltzen ditu. Gazte- politiketan sailen arteko zeharkakotasuna eta koordinazioa indartzen ditu. Gazteen emantzipazio-helburuetan aurrera egiteko tresna operatiboa da.

Saregileak

Partaidetza-diagnostikoko programa bat da, Bizkaiko gazteen lehentasunak jasotzeko. Tresna digitalak eta lankidetza-dinamikak erabiltzen ditu gazteen inplikazioa sustatzeko. Gazteriaren Estrategiaren partaidetza- ardatzarekin lerrokatzen da, gobernantza inklusiboa sustatuz. Politika publikoak gazteen ahotsetik hobetzeko proposamen zehatzak biltzen ditu. Erabakiak hartzerakoan, erakundeen eta gazteen arteko lotura indartzen du.

Gazteentzako arreta-programa

Kalteberatasun-egoeran dauden gazteentzat, bereziki familia-sarerik eta baliabiderik ez dutenentzat. Etxebizitza, prestakuntza, laguntza psikologikoa eta enplegua uztartzen ditu logika komunitario batetik. Gazteriaren Estrategiaren gizarte-kohesioaren eta erresilientziaren ardatzekin lerrokatzen da. Autonomiarako eta inklusiorako ibilbide pertsonalizatuak eskaintzen ditu. Erreferentzia bat da gazteen emantzipazioari laguntza integrala emateko politiketan.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirola Departamentua

Haur, nerabe eta gazteen Sustapenerako Zerbitzuak

Programa, zerbitzu eta jarduerarik nabarmenenak

Gazteen Sektorearen Estrategia 2030

2020 eta 2030 arteko gazte-politiketarako Europako gida. Gazte biderkatzaileen ahalduntzea eta gazteen gizarte zibilaren garapena sustatzen ditu. Eskubideak eskuratzea, parte-hartze demokratikoa eta bizikidetza inklusiboa sustatzen ditu. Gobernuen arteko lankidetza eta

estatu kideei laguntza teknikoa ematea. Europako Kontseiluaren balioetan oinarritzen da: giza eskubideak, demokrazia eta zuzenbide-estatua.

Gaztematika Plana 2023-2027

Haurrak, nerabeak eta gazteak sustatzeko erakunde arteko sarea. Gazteen garapen integrala eta autonomia bilatzen ditu, aisialdi hezitzailearen bidez. Aukera-berdintasuna, herritartasun aktiboa eta ongizate emozionala sustatzen ditu. Lanbide-prestakuntza, aholkularitza teknikoa eta udal-partaidetza barne. Gipuzkoako gazte- politika publikoetarako erreferentzia-esparru malgua da.

Gaztematika Sarea

Diputazioaren eta udalerrien arteko lankidetza-egitura, gazte-politikak koordinatzeko. Jardunbide egokien trukea eta baterako plangintza errazten ditu. Programa berritzaileak eta profesionalentzako etengabeko prestakuntza bultzatzen ditu. Gazteentzako ingurune seguruak, babesleak eta parte-hartzaileak sustatzen ditu. Kalitatea bermatzen du haurtxoko eta gaztelekuetan.

TREBA Gazteak

17 eta 30 urte bitarteko gazteentzako jabekuntza eskola. Osasun mentalari, sexualitateari, bizitzarako trebetasunei eta begirada kritikoari buruzko prestakuntza eskaintzen du. Hezkuntza formalak jorratu gabeko hezkuntza-hutsuneak bete nahi ditu. Garapen pertsonala, autonomia eta parte-hartze soziala sustatzen ditu. Lurralde osoko tailerrak, hitzaldiak eta bizipen-esperientziak biltzen ditu.

TREBA Gurasoak

Gurasoentzako prestakuntza-programa, gurasotasun positiboan oinarritua. 134 hitzaldi eta tailer eskaintzen ditu osasun mentalari, familia-komunikazioari eta sexu-hezkuntzari buruz. Haurren eta nerabeen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, familiaren laguntzaren bidez. Tokiko eskaeretara egokitzen da eta 65 udalerritan garatzen da. Haurren garapenerako ingurune afektibo, egituratu eta seguruak sustatzen ditu.

TREBA Profesionalak

Gazte-arloko teknikari eta hezitzaileentzako prestakuntza espezializatua. Osasun mentala, berdintasuna, hezkidetza eta suizidioaren prebentzioa bezalako gaiak jorratzen ditu. Gaztematikako profesionalei zuzendutako aurrez aurreko eta online ikastaroak eskaintzen ditu. Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea eta zerbitzuen kalitatea indartzen ditu. Gazteen behar pertsonal, sozial eta kulturalei ematen zaien erantzuna hobetzea du helburu.

Gazteak auzolanean

18 eta 30 urte bitarteko gazteen proiektu kolektiboetarako laguntza-programa. Eragin komunitarioa duten gizarte-eraldaketako ekimenak finantzatzen ditu. Gaztegune+ bidezko laguntza teknikoa eta tutoretzak barne. Jorratutako gaiak: osasun mentala, inklusioa, arte garaikidea eta deskonexio digitala. 2017az geroztik, 32 proiektu lagundu ditu, eta 171.000 € baino gehiagoko laguntza eman du.

Gipuzkoa Gazte Tour

16 eta 25 urte bitarteko gazteentzako kultur zirkuitu parte-hartzailea. Kontzertuak, masterclasseak eta hainbat udalerritako jarduera eszenikoak biltzen ditu. Tokiko talentua sustatzen du, Estatuko artista ezagunekin batera. Adierazpen artistikoa, bizikidetza eta aisia osasungarria sustatzen ditu. Kultura deszentralizatzearen eta gazteei hurbiltzearen aldeko apustua da.

Gipuzkoako Gazteria Europan

Gazteen mugikortasun eta elkartrukerako programa, Erasmus+ programaren esparruan. Osasun mentalari, iraunkortasunari eta sormenari buruzko nazioarteko proiektuak errazten ditu. Udalerriei eta gazteei laguntza teknikoa, azpiegiturak eta finantzaketa eskaintzen die. Kultura arteko ikaskuntza eta garapen pertsonala sustatzen ditu. Adibidea: Youth & Mental Health proiektua Gipuzkoako eta Esloveniako gazteekin.

Aisialdi Hezitzailea

Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretarako esparrua. Aisialdiko talde eta eskolentzako araudia, prestakuntza eta dirulaguntzak jasotzen ditu. Balioak, garapen integrala eta herritartasun kritikoa sustatzen ditu. Profesionalei eta boluntarioei jarduera seguruak antolatzen laguntzen die. Aisialdi hezitzailea eskubide gisa aitortzen da Gazteriaren Estrategian.

Hezkuntzako baliabideak (Sexkuntza, jasangarritasunean oinarritutako heziketa, ongizatea)

Aldundiak hezkuntza-materialak eskaintzen ditu haurren, nerabeen eta gazteen garapen integrala sustatzeko. Honako programa hauek biltzen ditu: Sexkuntza (hezkuntza afektibo-sexuala), Jasangarritasunean heztea (GJH eta ingurumena) eta Ongizatea (osasun emozionala). Baliabide horiek bat datoz Gazteriaren Estrategiaren balioekin: eskubideak, parte-hartzea, ekitatea eta autonomia. Familiei, profesionalei eta gazteei zuzentzen zaizkie, hezkuntza-etapa bakoitzari egokitutako materialekin. Ingurune seguruak, babesleak eta tratu ona sustatzen dituzte, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen oinarri gisa.

Bilboko Udala

Gazteria eta Kirolen Saila

Gazteria Zuzendaritza

Dokumentu programatikoak

Bilbao Hiri Gaztea 2022–2025

Bilboko Tokiko Gazteria Plana da, gazteen entzute aktiboaren eta parte-hartzearen bidez diseinatua. Hiru ardatzetan egituratzen da: Gazte Emantzipatua, Aktiboa eta Konprometitua, GJHekin lerrokatuta. Politikak sustatzen ditu enpleguan, etxebizitzan, kulturan, osasunean, boluntariotzan eta gizarte-ekintzailetzan. Gazteria- sistema indartzea eta Udalarekin harreman zuzena sustatzea du helburu. Gazteen Euskal Legeari eta Gazteriaren Estrategiari lotuta dago.

Programa, zerbitzu eta jarduerarik nabarmenenak

GAZ Bilbo

Gazteak artatzeko Euskadiko lehen zentroa da, Bilboko La Perreran. 16 eta 34 urte bitarteko gazteei orientazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzen die emantzipazio-prozesuetan. Etxebizitza, enplegua, osasuna, nazioarteko mugikortasuna, prestakuntza eta ekintzailetza bezalako gaiak jorratzen ditu. Doako zerbitzu unibertsal eta pertsonalizatua da, eta aurrez aurreko arreta eta arreta birtuala eskaintzen ditu. Gazteen emantzipazioa bultzatzeko Euskal Estrategiarekin lerrokatuta dago, autonomia eta bizi-proiektu iraunkorrak sustatuz.

Bilboko Gazte Panela

Gazteek parte hartzeko gunea, Gazteriaren Tokiko Agenda diseinatzeko. 28 gazte iraunkortasunari, komunikazioari eta gazte-programazioari buruzko proiektuetan ari dira lanean. Taldeka antolatzen dira, eta beren ekimenetarako prestakuntza, laguntza teknikoa eta finantzaketa jasotzen dute. Gazteen eta administrazioaren arteko elkarrizketa sustatzen du, aniztasuna eta inklusioa sustatuz. Bilbao Hiri Gaztearekin eta 2030 Agendarekin lerrokatuta dago, gizarte-berrikuntzarako laborategi gisa.

Donostiako Udala

Sustapen eta Gizarte Hezkuntza Zerbitzua

Gazteria Bulegoa

Dokumentu programatikoak

Donostiako udaleko Gobernu Programa 2023-2027

Funtsezko bost konpromiso ezartzen ditu: gazteen enplegua, hiri gaztetua, herritarren parte-hartzea, jasangarritasuna eta zaindutako auzoak. Gazteentzako politika aktiboak bultzatzen ditu etxebizitzan, enpleguan, kulturan eta osasunean. Gizarte-kohesioa, berdintasuna eta bizi-kalitatea sustatzen ditu auzo guztietan. Tokian tokiko erronka globalei aurre egiteko proiektu estrategikoak biltzen ditu. GJHekin eta Gazteriaren Estrategiarekin lerrokatuta dago.

Gazteriaren Plan Estrategikoa 2025-2027

0-30 urte bitarteko gazteei garapen pertsonal eta sozialean laguntzeko misioa definitzen du. Lau ardatz ditu: lantaldea, sustapena, zeharkakotasuna eta posizionamendua. Urteko kudeaketa-planak eta gazteekin eta profesionalekin parte hartzeko prozesuak biltzen ditu. Ongizatea, autonomia eta gazteen eskubideen defentsa hobetzea du helburu. Gazteriaren Estrategiarekin eta Gaztematika sistemarekin lerrokatuta dago.

Berdintasun-plana

2020 – 2024 aldirako IV. Berdintasun Planak emakumeen eta gizonen arteko ekitatea sustatzen du. Ardatz estrategikoak biltzen ditu, hala nola zaintza erantzunkideak, kultura ez-sexista eta parte-hartzea. Urtero jarraipena egiten da eta errealitate sozial berrietara egokitzen da. Udal-esparru guztietan aurrerapenak sendotzea eta berdintasuna sustatzea du helburu. Berdintasunaren eta Gazteriaren Euskal Estrategiari lotuta dago.

Programa, zerbitzu eta jarduerarik nabarmenenak

Gaztematika sistema

Gipuzkoan haur eta gazteen sustapenerako erakunde arteko sarea. Donostiak aktiboki parte hartzen du foro teknikoetan eta batzordeetan. Aisialdi hezitzailea, autonomia eta tratu ona sustatzen ditu ingurune seguruetan. Udal-zerbitzuak eta profesionalen prestakuntza koordinatzen ditu. Gazte-estrategiarekin bat datozen gazte- politiketarako erreferentzia-esparrua da.

Kontadores Gazte Zentroa

18 eta 30 urte bitarteko gazteentzako kultur zentroa, Donostia Gazteriak kudeatua. Sorkuntza artistikorako espazioak, laborategi kulturalak eta tailerrak eskaintzen ditu. Parte-hartzea, adierazpen eszenikoa eta sormen-garapena sustatzen ditu. Gazte-ekimenetarako deialdi irekiak antolatzen ditu. Gazte kulturan eta aisialdi hezitzailean erreferentea da Donostian.

Martx Up

18 eta 30 urte bitarteko gazteentzako ekintzailetza-programa. Prestakuntza eta tutoretza duten gizarte-, kultura- eta ekonomia-proiektuak sustatzen ditu. Garapen, prototipatze eta gauzatze faseak barne hartzen ditu, laguntza teknikoarekin. Gazteen parte-hartzea aktibatzea eta tokiko ehuna indartzea du helburu. Berrikuntza, inklusio eta iraunkortasun balioekin lerrokatuta dago.

Gazteparte

Gaztematika sarearen parte da Gazteparte, eta Gipuzkoako 3.000 gaztek emantzipazio-politika publikoei buruz duten iritzia jasotzen duen proiektu parte-hartzailea da. Gazteak ahalduntzea, erakundeekin duten harremana sustatzea eta proposamen eraginkorrak sortzea du helburu. Etxebizitzaren eta enpleguaren esparruetan jartzen du arreta, gazteen kezka nagusiak baitira. Inkestak, eztabaida-dinamikak eta udalei helarazitako gomendioak biltzen ditu. Gazteriaren Estrategiarekin bat dator, eta entzute aktiboa eta konpromiso instituzionala sustatzen ditu.

Gatzeen Antzerki Topaketa

Urteko erakusketa honek 14 eta 30 urte bitarteko gazteak biltzen ditu hiriko kultur agertokietan. Sorkuntza eszenikoa, parte-hartze kulturala eta garapen artistikoa sustatzen ditu. Sariak, prestakuntza eta lan propio eta klasikoen zabalkundea biltzen ditu. Gazteen artean kultura-ohitura eta profesionalak ez diren taldeen ikusgarritasuna sustatzen ditu. Antolatzailea: Donostia Gazteria eta Donostia Kultura.

Adikzioen eta arriskuen prebentzioa teknologia berrien erabileran

Donostiako 2023 – 2027 Planak adikzioen eta arrisku teknologikoen prebentzioa sustatzen du gazteen, familien eta hezitzaileen artean. Teknologia berrien erabilera arduratsuan oinarritzen da, teknoadikzioei eta online apustuei helduz. Hezkuntza-gidak eta ikastetxeetan sentsibilizatzeko ekintzak biltzen ditu. Parte-hartze komunitarioa eta gizarte-eragileekiko sare-lana sustatzen ditu. Bat dator Euskadiko Adikzioen VIII. Planarekin eta esku-hartze integralaren printzipioekin. Gazteriaren Estrategiaren helburuak lortzen laguntzen du, bereziki gazteen osasunari, ongizateari eta erresilientziari dagokienez. Gazteen autonomia indartzen du, ingurune seguru eta osasungarrien bidez. Tokiko erakundeen eta erakunde autonomikoen arteko elkarlaneko gobernantza sustatzen du.

Gasteizko Udala

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saila

Gazteria Saila

Dokumentu programatikoak

V. Gazte Plana (2023-2025)

Gazte-ikuspegia politika publiko guztietan txertatzeko udal-tresna da. 70 ekintza biltzen ditu sei eremutan: emantzipazioa, ekitatea, osasuna, herritartasuna, sormena eta lokal-globala. Gazteei beren bizi-prozesuan laguntzea du helburu: prestakuntza, enplegua, etxebizitza eta parte-hartzea. Gazte-eragileekin, erakundeekin eta gazteekin lankidetzan egin da. Gazteen kalitatea, hurbiltasuna, zeharkakotasuna eta parte-hartze aktiboa sustatzen ditu.

Programa, zerbitzu eta jarduerarik nabarmenenak

Gazte Informaziorako Udal Bulegoa

14 eta 35 urte bitarteko gazteei arreta integrala emateko gunea. Sexualitateari, osasun mentalari eta gai juridikoei buruzko doako aholkularitzak eskaintzen ditu. Honako zerbitzu hauek hartzen ditu barne: lan- orientazioa, bekak, etxebizitza, boluntariotza eta nazioarteko mugikortasuna. Hizkuntza Kluba, Viajeteka eta online iragarki-taula bezalako ekimenak ditu. Gazteen emantzipaziorako eta parte-hartze komunitariorako funtsezko baliabidea da

Gazteentzako aholkularitzak

Hiru arlotako zerbitzu konfidentzialak eta doakoak: sexualitatea (Asexoria), osasun mentala (Psikoaholkularitza) eta juridikoa. 14-35 urteko gazteei zuzenduta, harremanak, antsietatea, kontratuak edo lan-eskubideak bezalako gaiak jorratzen dituzte. Psikoaholkularitzak bostehun gazte inguru artatzen ditu urtean, jarraipen pertsonalizatuarekin. Gazteen behar emozional, sozial eta legalei erantzuten diete. Emantzipazio-prozesuan laguntzea funtsezkoa da.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)

Dokumentu programatikoak

Plangintzaren garapena 2025

2025ean plangintza-fase giltzarri bat aurreikusten da, gazte-elkarte eta gazte independenteen ekarpenekin. EGK- k emantzipazioari, osasunari, berdintasunari eta iraunkortasunari buruzko partaidetza-prozesuak, diagnostikoak eta proposamenak bultzatzen ditu. Gazteen eta administrazioaren arteko solaskide gisa jarduten du, eta politikek gazteen benetako premiei erantzuten dietela bermatzen du. 2025ean, Gazteriaren Estrategiaren helburuak sendotzeko lan estrategikoa egingo du.

Programa, zerbitzu eta jarduerarik nabarmenenak

ETIKASI

Batxilergoko, LHko eta unibertsitateko gazteei zuzendutako giza eskubideetarako hezkuntza-programa. Besteak beste, Auschwitz, Ipar Irlanda eta Euskadi giza eskubideen urraketek markatutako lekuak bisitatzen ditu. Enpatia, bakea, aniztasuna eta elkartasuna sustatzen ditu,

zuzeneko esperientziatik abiatuta. Euskadin bizikidetza- erronkei aurre egiteko hezkuntza-tresnak sortzea du helburu. EGK-k bultzatzen du, Eusko Jaurlaritzarekin batera, Gazteriaren Estrategiaren balioekin lerrokatuta.

Agenda 2030, Gazte Plaza

Erakusketa ibiltaria, Garapen Iraunkorreko Helburuak (GJH) euskal gazteei hurbiltzeko. EGK-k eta Eusko Jaurlaritzak antolatuta, hainbat jarduera egiten ditu udalerrietan: tailerrak, hitzaldiak eta scape rooms. Gazteen ezagutza eta inplikazioa sustatzen ditu iraunkortasunaren erronka globaletan. Doako prestakuntza jasotzen du baliabide gutxiago dituzten ikastetxeentzat. Ekimen parte-hartzailea eta dibulgatzailea da, Gazteria Estrategiarekin bat datorrena.

C. Diagnostikoaren adierazleak

Erantsitako taulan, diagnostikoa egiteko erabilitako adierazleen sailkapena ageri da, arlo bakoitzaren arabera (aipatu diren ordenan daude zerrendatuta). Adierazleek askotariko jatorriak dituzte, baina datuen hornitzailea berdina izan da: Gazteriaren Euskadiko Behatokia. Lehen mailako zein bigarren mailako iturrietatik atera ditu datuak.

ARLOA	ADIERAZLEAK
Testuinguru demografikoa	• Biztanleria gaztea • Gazteria-indizea • Atzerriko biztanleria gaztea • Atzerriko gazteak gazte guztien biztanleriaren gainean • Lehen haurra jaiotzean amak zuen batez besteko adina • Atzeratutako amatasun- eta aitatasun-indizea • Ondorengoak izan nahi dituzten gazteak
Hezkuntza	• Ikasketen edo prestakuntza-mailaren gaineko asebetetzea • Eskola-uzte goiztiarreko tasa • Goi-mailako hezkuntzako titulazioaren tasa • Hirueletasun-tasa • Araututako prestakuntzako ikastaroak egiten dituzten gazteak • Ikastera, hizkuntza ikastera eta/edo boluntariotza egitera atzerrira joan diren gazteak
Enplegua eta gizarte- kohesioa	• Jarduera-tasa • Gazteen langabezia-tasa • Okupazio-tasa • Ikasketen ondoren lan-mundura sartzeko tasa • LHko ikasketen ondoren lan-mundura sartzeko tasa • Ikasketei lotutako enplegua • Gazte langileen lanarekiko asebetetzea • Norbere konturako enpleguaren tasa • Soldatadun biztanleriaren behin-behinekotasun tasa • Lanaldi partzialeko enplegu-tasa • Hilabeteko batez besteko soldata garbia • Benetako pobrezia-tasa • Benetako pobrezia-tasa familia gazteetan • Pobrezia-arriskua familia gazteetan • Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzen duten gazteen tasa • DSBE jasotzen duen bizikidetza-unitate baten parte diren 15 eta 29/34 urte bitarteko pertsonen kopurua
Emantzipazioa eta etxebizitza	• Emantzipazio-tasa • Emantzipatzeko batez besteko adina • Emantzipatzeko adin errealaren eta adin idealaren arteko aldea • Alokairuan emantzipatzea • Jabetzan emantzipatzea • Etxebizitza librea jabetzan eskuratzeko kostua • Etxebizitza librea alokairuan eskuratzeko kostua • Merkatuko errentaren eta alokairurako gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea • Ezerezean geratutako emantzipatzeko aurreikuspena

Osasun integrala eta prebentzioa	• Osasun fisikoaren gaineko asebetetzea • Buruko osasunaren gaineko asebetetzea • Antsietatearen eta/edo depresioaren sintomen prebalentzia • Jarduera fisiko neurritsua edo handia • Obesitate-tasa • Tabakoaren ohiko kontsumoa • Alkoholaren gehiegizko kontsumoa • Kalamuaren ohiko kontsumoa • Interneten erabilera arazotsua • Sexu-transmisio bidezko infekzio berriak • GIB infekzio berriak • Haurdunaldiaren borondatezko eteteak • Laneko istripu-tasaren indizea • Suizidioaren heriotza-tasa • Trafikoaren heriotza-tasa
Euskara	• Euskara edo euskara eta gaztelania lehenengo hizkuntza gisa • Euskararen ezagutza • Euskara komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzen duten unibertsitatez kanpoko ikasleak • Euskararen erabilera lagunekin • Euskararen erabilera sare sozialetan • Euskaraz irakurtzeko ohitura
Aisialdia	• Aisialdiaren gaineko asebetetzea • Jarduera artistikoetan parte hartzea • Interneten edukia sortzea • Kirola modu erregularrean egitea • Kontzertuetara joatea • Zinemara joatea • Museoetara joatea • Antzerkira joatea • Irakurtzeko ohitura • Egunean hiru sare sozial edo gehiago erabiltzea
Parte-hartzea	• Asoziazionismo-tasa • Gazteen eta aisialdiko elkarteen parte hartzea • Boluntariotza-lanak egitea • Aurreko urtean mobilizazioetan parte hartzea • Ziberaktibismoan parte hartzea • Aurreko hiru urtetan hauteskunderen batean bozkatu izana • Instituzioek gazteen iritziak ez dituztela kontuan hartzen uste du
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	• Feministatzat du bere burua • Emakume izateagatik diskriminatuak sentitu diren emakumeak • Lana lortzeko genero-desberdintasunaren gaineko pertzepzioa • Soldata-arrakala emakumeen eta gizonen artean • Etxeko garbiketan parte hartzea • Gauez kalean ibiltzeko beldur diren emakumeak • Sexu-jazarpenaren pertzepzioa sare sozialetan • Emakumeen aurkako indarkeria-tasa

Dibertsitatea eta bizikidetza	• Jaioterriagatik diskriminatuak sentitu diren atzerrian jaiotako pertsonak • Immigrante langileak sar daitezen arbuiatzea • EAEn atzerriko pertsona gehiegi bizi direla pentsatzea • Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen alde egotea • Legezko sexu-aldaketaren alde egotea
Jasangarritasuna	• Bere burua oso edo nahiko ekologistatzat hartzea • Kontsumo jasangarriaren indizea • Garraio publiko kolektiboa erabiltzea • Bizikleta erabiltzea ohiko garraiobide gisa
Egungo egoeraren eta etorkizuneko aurreikuspenen balorazioa	• Egungo egoeraren balorazio-indizea • Asebetetze pertsonalaren indizea • Haien adinean gurasoak baino hobeto daudela dioten gazteen indizea • Etorkizunean konfiantza izatearen indizea

OHARRA: Adierazle hauei eta beste batzuei eta Euskadiko gazteen datuei buruzko informazio gehigarria dago Gazteriaren Euskadiko Behatokian, zehazki, “Estatistikak” atalean: *https://www.gazteaukera.euskadi.eus/webgaz00-ovjstat/eu/ae29aConsultaWar/indicadorclasificacion/consultaIndicadores/0?locale=eu*

D. Gazteriaren arloko 2030 Euskal Estrategia monitorizatuko duten adierazleak

Erantsitako taulan Estrategia monitorizatzeko erabiliko diren 27 adierazleak jasotzen dira. Adierazle horiek aukeratzeko, plangintza estrategikoaren, politika publikoen ebaluazioaren eta helburuen jarraipenaren printzipioetan oinarritutako logika egituratua erabili da. Adierazleen definizioa jarduera-eremuan ezarritako helburu estrategikoen arabera egin da, eta horrek aukera ematen du helburu espezifikoetarako aurrerapena ebaluatzeko funtsezko arloetan, hala nola hezkuntzan, enpleguan, osasunean, etxebizitzan, berdintasunean, parte-hartzean eta jasangarritasunean, datu erabilgarriekin eta denboran zehar trazatu daitezkeenekin neur baitaitezke, eta oinarrizko lerroak eta xede-balioak ezartzea errazten baitu, baita luzetarako jarraipena egitea eta kontuak ematea ere.

Adierazleen eta helburuen arteko lotura zuzen horrek aukera ematen du hasierako diagnostikoan identifikatutako lehentasunezko erronkekiko aurrerapen-maila zehaztasunez neurtzeko. Gainera, lerrokatze horrek plangintza-esparruaren barne-koherentzia indartzen du, sortzen ari diren premiei aurrea hartzea eta politika publikoen doikuntza proaktiboa erraztuz.

Hautatutako adierazleak teknikoki sendoak dira, aldizka neurtzeko gaitasuna dutelako, zorrotzak eta alderagarriak, eta, horri esker, politika publikoen eragina neurtu eta baloratu daiteke, epe luzerako ebidentzian oinarrituta. Gainera, iturri egonkor eta fidagarrien bidez lortzen dira, hala nola Gazteen Euskal Behatokiaren, EUSTATen edo inkesta ofizialen bidez, eta horrek bermatzen du emaitzak sendoak izango direla. Dagoeneko baliozkotuta, operatibo eta estatistika- eta ebaluazio-estandarrekin lerrokatuta dagoen adierazle-sistema baten parte dira.

Gehienbat, adierazle horiek koherenteak dira V. Gazte Planak monitorizatzen dituenekin, eta horrek planen eta estrategien arteko koherentzia indartzen du, eta politika publikoen trazabilitatea errazten du

Era berean, sozialki garrantzitsuak eta politikoki estrategikoak dira. Neurketa gazteen bizi-kalitaterako esanguratsuak diren alderdietan oinarrituko dela bermatzen dute, urte arteko alderagarritasuna eta gazteen ongizatearen dimentsioen aniztasuna kontuan hartuta. Hautaketak adierazle demografikoak (amatasun geroratuaren indizea, adibidez), hezkuntzakoak (eskola uztea, hirueletasuna), lanekoak (langabezia, behin- behinekotasuna, soldata), emozionalak eta fisikoak (osasun mentala, gogobetetzea), kulturalak eta linguistikoak (euskararen erabilera), parte-hartzaileak (boluntariotza) eta ingurumenekoak (bizikletaren erabilera) biltzen ditu, ikuspegi integral eta intersektoriala islatuz.

Era berean, hainbat alderdi laburbiltzen dituzten adierazle sintetikoak (hala nola gogobetetze pertsonalaren indizea edo etorkizunarekiko konfiantza) esku-hartze ardaztuak ahalbidetzen dituzten adierazle espezifikoekin konbinatu dira (hala nola etxe gazteetako pobrezia-tasa edo soldata-arraila). Konbinazio horrek aukera ematen du ebaluazio multidimentsional bat egiteko, konparatiboa eta emaitzetara bideratua, gazteei zuzendutako politika publikoak gidatzen dituzten kalitate, ekitate eta iraunkortasun printzipioekin bat datorrena.

Urteko jarraipen-txostenak egiteko, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31n adierazle horiei buruz eskuragarri dauden datu eguneratuenak bilduko dira. Adierazle batzuen kasuan, urtero edo bi urtez behin eguneratzen ez direnez, baliteke informazio eguneraturik ez egotea. Estrategiaren

urteko jarraipen-eredua erakunde publikoek aurreko ekitaldian garatutako jarduerei buruzko informazioa biltzean eta aurkeztean oinarrituko da, eta lehentasuna emango zaie izaera esperimentala edo berritzailea izateagatik edo gazte-politiken arloko ohiko jarduerarekiko aldaketa nabarmena izateagatik bereizten diren ekimenei.

Ikuspegi hori aldaketaren azterketara bideratuta dago, eta ez jarduera instituzional guztien memoria zehatza egitera. Horretarako, erakunde bakoitzaren urteko memoriak edo V Gazte Plana bezalako tresnak badaude. Ondorioz, urteko jarraipenaren ardatza da Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-politika publikoen ekosisteman berrikuntza-elementuak sartzen dituzten ekintzak identifikatzea eta ikusaraztea, bai esperientzia pilotu gisa, bai jarraitutasun-bokazioa duten esperientzia gisa.

Bestalde, azken ebaluazioak Estrategiak Euskadiko gazteen egoeran duen eragin orokorra zehazten du, urteko jarraipenetan lortutako tarteko emaitzetatik harago, adierazleei esleitutako xede-balioak baliatuta. Ebaluazio- fase honek lorpenak, aurrerapen esanguratsuak eta helburu estrategikoekiko desbideratze posibleak identifikatzea erraztuko du, baita indartzea, birbideratzea edo esku-hartze berriak behar dituzten arloak detektatzea ere. Azken ebaluazioak sortutako informazioa funtsezkoa izango da erabaki estrategikoak hartzeko, bai politikak birformulatzeko, bai esku hartzeko plan edo tresna berriak diseinatzeko. Era berean, kontu instituzionalak ematen lagunduko du, herritarrek eta inplikatutako eragileek gardentasuna, zilegitasuna eta gazteentzako politika publikoetan duten konfiantza indartuz.

HELBURU ESTRATEGIKOAK ESKU-HARTZE ARLOAREN ARABERA	INDICADORES	DESKRIBAPENA	OINARRILERROA	XEDE-BALIOAK
TESTUINGURU DEMOGRAFIKOAa				
	1. Atzeratutako amatasun- eta aitatasun-indizea	• Seme-alabarik ez duten eta seme-alabak izatea gustatuko litzaiekeen pertsonen ehunekoa, egoera hori nahi den adinean gertatzeko probabilitate txikia edo batere gertagarritasunik ez dutela uste badute.	% 32,0 (2024)	% 20
HEZKUNTZA ETA ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA				
Gazte guztiek beren itxaropenetara egokitzen diren hezkuntza-ibilbideak eskura ditzaten sustatzea, haien prestakuntza eta laneratzea erraztuz	2. Eskola-uzte goiztiarreko tasa	• Gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (INSN 2) amaitu eta ikasketarik edo prestakuntzarik jarraitu ez duten 18 eta 24 urte bitarteko biztanleen ehunekoa	% 5,0 (2024)	< % 5
	3. Hirueletasun-tasa	• Ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz ongi hitz egiten duten 15-29 urteko gazteen ehuneko	% 56,2 (2024)	> % 60
ENPLEGUA ETA GIZARTE- KOHESIOA				
Gazteek kalitatezko enplegu duin eta seguru bat lor dezatenbultzatzea, enplegukoeta ekintzailetzako politika aktiboen bidez, eta arreta berezia jartzea kolektibo ahulenei	4. Gazteen langabezia-tasa	• Langabezian dauden 16-29 urteko gazteen ehunekoa, adin- talde horretako pertsona aktibo guztiekiko. Langabezian dauden pertsonak dira lanik ez dutenak, baina lan egiteko prest daudenak eta modu aktiboan lan bila ari direnak.	% 10,9 (2024)	<1 % 0
	5. Okupazio-tasa	• Lana duten 16-29 urteko gazteen ehunekoa, adin-talde bereko pertsona guztiekiko	% 45,8 (2024)	> % 55
	6. Soldatadun biztanleria-ren behin-behinekotasun tasa	• Aldi baterako kontratua duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, adin bereko soldatapeko guztiekiko	% 40,0 (2024)	< % 30
	7. Lanaldi partzialeko enplegu- tasa	• Lanaldi partzialean lan egiten dutela aitortzen duten 16-29 urteko gazteen ehunekoa, adin bereko gazte okupatu guztiekiko	% 32,2 (2024)	< % 30
	8. Hilabeteko batez besteko soldata garbia	• 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadunen hileko batez besteko soldata garbia (aparteko ordainsari hainbanatuekin)	1.564 € (2024)	>1.700 €

Gazteek kalitatezko enplegu duin eta seguru bat lor dezatenbultzatzea, enplegukoeta ekintzailetzako politika aktiboen bidez, eta arreta berezia jartzea kolektibo ahulenei	9. Benetako pobrezia-tasa familia gazteetan	• Benetako pobrezia-egoeran dagoen 35 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxeetan bizi diren biztanleen ehunekoa. PGDI metodologiaren arabera, benetako pobreziak jasotzen dituen inguruabarren arabera, pobreziaren dimentsio batean edo bestean (mantenua edo metatzea) agertzen diren oinarrizko premiak behar bezala betetzeko arrisku-egoerak ez daude behar bezala konpentsatuta biztanleriaren eguneroko bizitzan, pobreziaren bizipenetik kanpoko gutxieneko ongizate-maila batera iritsi ahal izateko. Adierazlearen eraikuntzan, mantentze- eta metatze-adierazleetan duten posizioaz gain, horri lotutako beste prekarietate-elementu batzuk ere hartzen dira kontuan. Adierazgarriena da azken urtean gabezia-egoerak agertu direla.	% 6,1 (2022)	< % 5
EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA				
Gazteei etxebizitza duina eskuratzen laguntzea, emantzipatzen laguntzeko	10. Emantzipazio-tasa	• Jatorrizko familia-etxetik kanpo bizi diren 18-34 urteko biztanleen ehunekoa, adin bereko pertsona guztiekiko	% 32,3 (2024)	> % 50
	11. Emantzipatzeko batez besteko adina	• Gazteek familiaren etxea uzteko batez besteko adina. 15 eta 34 urte bitarteko adin bakoitzeko emantzipazio-tasan oinarritzen da. 15-34 urte bitarteko adin bakoitzerako «irteera-probabilitate» bat kalkulatzen da, adin horri dagokion emantzipazio-tasa ken aurreko adinari dagokion emantzipazio-tasa (adibidez, 16 urteko biztanleriaren emantzipazio-tasa ken 15 urteko biztanleriaren emantzipazio-tasa). Abiapuntua 15 urte direnez, irteteko probabilitatea familia-etxetik kanpo bizi diren 15 urteko pertsonen proportzioaren berdina da, 15 urteko guztizko biztanleriari dagokionez	29,8 urte (2024)	<28 urte
OSASUN INTEGRALA ETA PREBENTZIOA				
Gazteen autozaintza sustatzen duten eta haien ongizate fisikoa, mentala eta soziala hobetzen duten bizi- ohiturak eta ingurune osasungarriak sustatzea	12. Osasun fisikoarekiko asebetetzea	• 15-29 urteko pertsonek beren osasun fisikoarekin duten gogobetetze-maila, 0tik 10era bitarteko eskalan	7,4 puntu (2024)	>8 puntu
	13. Osasun mentalarekiko asebetetzea	• 15-29 urteko pertsonek osasun mentalarekin duten gogobetetze-maila, 0tik 10era bitarteko eskalan	7,2 puntu (2024)	>8 puntu
	14. Antsietatearen eta/edo depresioaren sintomen prebalentzia	• Azken lau asteetan antsietate- eta/edo depresio-sintomak izan dituzten 15-29 urteko pertsonen ehunekoa	% 18,9 (2023)	< % 8
	15. Suizidioaren heriotza-tasa	• Suizidio eta norberak eragindako lesioen ondoriozko heriotzen kopurua 15 eta 29 urte bitarteko populazioan, adin-talde horretako 100.000 pertsonako	4,5x100.000 (2022)	0

EUSKARA				
Eguneroko bizitzako esparru guztietan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea	16. Euskararen erabilera lagunekin	• Lagunekin batez ere euskaraz edo euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiten duten 16-24 urteko gazteen ehunekoa	% 37,9 (2021)	> % 40,5
AISIALDIA				
Kultura eta kultura- eta aisialdi-eskaintza garatzea, berdintasuna, balioetan oinarritutako hezkuntza eta ohitura osasungarriak sustatzeko eta, aldi berean, gazte-ekimenak babesteko eta gazteen sormena sustatzeko	17. Kirola modu erregularrean egitea	• Astean 3 aldiz edo gehiagotan kirola egiten duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa	% 59,1 (2025)	> % 60
	18. Aisiarekiko gogobetetasuna	• Aisialdiarekiko gogobetetze-maila, 15-29 urteko pertsonen 0tik 10era bitarteko eskalan.	6, 9 (0tik a 10ra puntuak)	> % 7
PARTE-HARTZEA				
Gazteen parte-hartzea sustatzea, herritartasun kritiko eta aktiboa garatzea eta eraldaketa sozial eta komunitarioetan inplikatzea bultzatuz	19. Boluntariotza-lanak egitea	• Boluntariotza-lanak egiten dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoa	% 14,9 (2025)	> % 15
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA				
Berdintasunezko eta emakumeentzako desberdintasun eta diskriminaziorik gabea den gizarte baterantz aurrera egitea	20. Lana lortzeko genero -desberdintasunaren gaineko pertzepzioa	• Prestakuntza eta esperientzia bera izanda, gizon batek emakume batek baino aukera gehiago dituela lanpostu bat lortzeko uste duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa	% 35,7 (2025)	% 0
	21. Soldata-arrakala emakume eta gizonen artean	• 18-34 urteko emakumeen eta gizonen hileko batez besteko soldata garbien arteko aldea (aparteko ordainsari hainbanatuekin)	-179 euro (2024)	% 0
	22. Gauez kalean ibiltzeko beldur diren emakumeak	• Gauez kalean bakarrik ibiltzeko beldurra duten 15-29 urteko emakumeen ehunekoa	% 69,7 (2024)	< % 50
	23. Emakumeen aurkako indarkeria-tasa	• Emakumeen aurkako indarkeriagatik salaketaren bat jarri duten 15-29 urteko emakumeen kopurua, adin-tarte bereko 1.000 emakumeko	10,3 x 1.000 (2024)	<8 x 1.000

JASANGARRITASUNA				
Gazteen artean ingurumen-kontzientzia sustatzea, bizimodu eta ohitura iraunkorragoak sustatzeko	24. Bizikleta erabiltzea ohiko garraiobide gisa	• Egunero edo ia egunero bizikleta erabiltzen duten 15-29 urteko biztanleen ehunekoa	% 8,6 (2023)	> % 20
EGUNGO EGOERAREN ETA ETORKIZUNERAKO ITXAROPENEN BALORAZIOA				
Egungo egoera eta etorkizunerako itxaropenak baloratzea	25. Egungo egoeraren balorazio- indizea	• 0tik 100era bitarteko eskalan, egoera pertsonalari, oro har gazteei eta Euskadiko egoerari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa	67 (0tik 100erako batez bestekoa) (2024	>70
	26. Asebetetze pertsonalaren indizea	• 0tik 100era bitarteko eskalan, egoera pertsonalarekiko gogobetetzearen batez besteko puntuazioa, honako alderdi hauek kontuan hartuta: laneko egoera edo itxaropenak, ikasketak edo prestakuntza-maila, familia, aisialdia, lagunak, harreman sentimentalak eta/edo sexualak, osasuna, irudi fisikoa, hileko diru-eskuragarritasuna eta familiarekin edo bere kontura bizitzeko egoera (pertsona bakoitzaren kasuaren arabera)	72 (0tik 100erako batez bestekoa) (2024)	>70
	27. Etorkizunean konfiantza izatearen indizea	• Adierazle sintetikoa, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek beren egoera pertsonalari, oro har, eta Euskadik bost urteko epean dituzten itxaropenak jasotzen dituena.	56 (0tik 100erako batez bestekoa) (2024)	>70